

+



Maria Angeles Barreri elkarrizketa

Bizipoza: aniztasunetik, elkar babesteko sarea

30 EUSKAL EMAKUME ESANGURATSU, BISTARA

Laboratorium museoan ikusgai dago '30 emakume ahaztezin' erakusketa / 4



M8



GEHIGARRIA ERDIKO ORRIETAN


Bergarako Laboratoriumen daude, maiatzaren 30era arte, 30 euskal emakume nabarmenen gainean egindako akuarelak. MARKEL ARRAYAGO

Udaltzainek, irakasleek eta etxez etxeko langileek txertoa hartu dute aste honetan / 2

SINADURAK


	JOANES PLAZAOLA / 32
	JONMIKEL INSAUSTI / 35
	OSKAR ELIZBURU / 6
	ONINTZA LEGORBURU / 18
	ANDER ETXEBERRIA / 48

2MÓ 99€



betaurreko graduatuak (batzuk eguzkitakoak izan daitezke)

Kontsultatu optikaren konpainiarekin ezagueriak.



SPRING IS MÓ

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE


Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Oñati eta Aretxabaleta dira Gipuzkoan gorritz markatutako herriak

Azken astean 127 debagoiendar kutsatu ditu birusak, eta eskualdeko intzidentzia-tasak lurraldekoen gaindi jarraitzen du: 472,15koa zen atzo. Bestetik, astean hartu dute txertoa, besteak beste, 90 urtetik gorakoek. Gaur egingo dute LABIren bilera

Maialen Santos ARRASATE

Joan den eguenetik eguazten honetara arte, 127 debagoiendar kutsatu ditu koronabirusak, aurreko astean baino 52 gutxiago -179 izan ziren-. Azken egunetako kasuekin, dagoeneko 5.827 dira eskualdean gaitzak kutsatutako herritarrek, eta atzo lau pertsona zeuden Debagoieneko Ospitalean ingresatuta.

Herrika, Arrasaten baieztatu dituzte kasu positibo gehien (34), eta gertutik jarraitu dio Oñatik (30). Hala ere, joan den astean baino positibo gutxiago izan dira bi herrietan. Aretxabaletan, aldiz, igoera nabarmena izan da; izan ere, azken zazpi egunetan 29 positibo erregistratu dituzte. Antzuolan ere sei kasu gehiago izan dituzte oraingoan (19), eta Bergaran, ostera, erdiak baino gutxiago (14).

Semaforoaren sistemari erreparatuta, 5.000 biztanletik gorako herrien artean Aretxabaleta (522,60ko tasa) eta Oñati (793,51ko tasa) ageri dira gorritz margotuta, eta aipatzekoa da bi herri horiek direla Gipuzkoan gorritz dauden bakarrak. Are gehiago, EAEn hiru herri daude gorritz: eskualdeko biak eta Derio.

Herri txikiei dagokionez, Antzuolak 1.193,21eko tasa erregistratu zuen atzo. Beheranzko joera hartu duen herririk ere badago: Aramaio. Otsailaren hasieran aste latzak igaro ostean, azken zazpi egunetan ez du kasu berririk erregistratu eta nabarmen egiten ari da behera intzidentzia: atzo, 67,57koa izan zen.

Debagoieneko intzidentzia-tasari dagokionez, azken egunetan behera egiten jarraitu du pixkanaka, azken egunean zer-

txobait gora egin badu ere -472,15koa zen atzo-. Bizkaiak, Gipuzkoak, Arabak eta Nafarroak ere behera egin dute azken egunetan, eta eskualdea oraindik ere horien oso gainetik ageri da. Debagoiena eta Bizkaia daude muturreko arrisku-mailaren mugaz gaindi -250etik gora-.

TXERTAKETA-PLANA

UDALTZAINEK, ETXETXEKO LANGILEEK ZEIN ADINDUEK HARTU DUTE TXERTOA

Koronabirusaren aurkako txertaketa-planak aurrera segitzen du, eta aste honetan bertan, martitzen eta eguaztenean, jaso dute txertoa eskualdeko herrietako udaltzainek, etxez etxeko udal langileek eta 55 urtez az-

Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Arrasate	34	49	2427	109,91
Oñati	30	61	911	79,44
Aretxabaleta	26	11	558	78,81
Antzuola	16	10	190	87,20
Bergara	14	33	1258	83,67
Eskoriatza	7	14	288	70,19
Aramaio	0	1	136	91,89
Elgeta	0	0	51	45,09
Gatzaga	0	0	8	32,00
GUZTIRA	127	179	5.827	89,91

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

piko Haur Hezkuntzako irakasleek. Debagoieneko Ospitalean hartu dute txertoa.

Horietaz gain, 90 urtetik gorakoak ere astean hasi dira txertatzen bailaran, eta 690 herritar inguru daude deituta. Bakoitza dagokion osasun etxean hartzen ari da, eta Osakidetzaren deia jasotzen ari dira horretarako. Arduradunek eskatu dute deia jasotzera itxaron dezatela herritarrek, eta osasun etxeetara ez dezatela deitu, lineak kolapsatu egin daitezkeelako.

Arrasatearren kasuan, txertoa Debagoieneko Ospitalean jasotzen ari dira adinekoak. Eta Antzuolako eta Elgetako 90 urtetik gorako bizilagunek, ostera, egubakoitzean jasoko dute txertoa, euren osasun eremuetan.

Bestetik, mugikortasun arazoak dituzten adinekoentzat, bihar,

autoetatik atera gabe txertoa jarri ahal izateko gunea jarriko dute ospitalean.

Azkenik, Gipuzkoako adinekoen eguneko zentroetako erabiltzaileak eta 55 urtetik gorako langileak ere ari dira txertoa hartzen. Astelehenean, gainera, desgaitasuna dutenei txertoa jartzeari ekin zioten.

BISITAK ETA IRTEERAK

ASTEAN LAU IRTEERA ETA BI BISITA IZAN DITZAKETE ZAHAR ETXEETAKOEK

EAEko hiru aldundiek eta Jaurlaritzako Osasun Sailak jardue-protokolo bat landu eta adostu dute adinekoen eta desgaitasuna dutenen egoitza-zentroetako bisitei eta irteerei dago-

Antzuolan, ikastaroak bertan behera


Astebetaz herrian eskaintzen diren ikastaroak bertan behera uztea erabaki du Antzuolako Udalak. "Asteburuan eman den koronabirus kasuen gorakada ikusita, Udalak eskaintzen dituen ikastaro guztiak bertan behera geratuko dira astebetaz. Beraz, aste honetan Olaranen ez da inolako ikastarorik egongo, ezta gimnasioan ere; eta liburutegian dagoen Ludoteka ere itxita egongo da", argitu du udalak. "Egoerak hobera egiten duela ikusten bada, astelehenean aurrera normaltasunera bueltatuko gara. Neurria hartzeko, Herri Eskolarekin eta osasun-arduradunekin hitz egin dugu, eta alde guztietatik egokitzat jo da erabakia. Izan ere, udalarentzat herritarren osasunak izan behar du lehentasuna egoera honetan. Zaindu!", azaldu dute.

Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA


14 EGUNeko TASA
100.000 biztanleko

- >=500
- 300-499
- 60-299
- < 60



kienez; izan ere, zentro horietako egoera "nabarmen" hobetu da azken asteetan, alde batetik, erabiltzaileen eta langileen txertaketaren ondorioz, eta, bestetik, komunitateko egoera epidemiologikoak "bilakaera ona" izan duelako. "Gutxieneko kontaktuak ezartzeko erabakia hartu da; izan ere, egoerak ahalbidez badu, bisitak eta irteerak egunero egin daitezke. Gainera, orain arte pertsona bakarra sar zitekeen, eta protokoloak bi pertsona aldi berean izatea aurreikusten du, eta ez dute beti berberak izan behar", adierazi dute.

Protokoloan zehazten diren baldintzak etenda geratuko dira egoitza dagoen udalerririk 100.000 biztanleko 500 kasutik gorako 14 eguneko intzidentzia metatua gaudituz gero.



Udaltzain bat txertoa hartzen. A. ARANA

NEURRI MURRIZTAILEAK JOAN-ETORRIAK MUGATU EGINGO DITUZTE MARTXOAN ETA APIRILEAN ERE

Gotzone Sagardui Jaurlaritzako Osasun sailburuak eguaztenean esan zuen martxoan eta apirilean mugikortasuna mugatzeko neurri murriztaileak mantentzea "beharrezkoa" izango dela. Azaldu zuenez, "erabateko zuzurtzia" behar da pandemiaren bilakarak hobera egin dezan; izan ere, azken egunetan, "moteldu" egin da datuen beheranzko joera. Hala, Aste Santuko oporren bueltan, EAEko konfinamendu perimetrala mantendu egingo dela aurreratu zuen Sagardui.

Gaur batuko da LABI Aholku Batzordea osasun egoera aztertzeko, eta ostean emango dute erabakien berri. EAEko udalerrien itxiera perimetrala altxatzea eta lurralde bakoitzaren barruan mugikortasuna baimentzea izango dute aztergai. Horretaz gain, pertsonen bilerak gehienez ere lau lagunekoak izatetik seira pasatzea ere aztertuko dute bileran. Horren harira, Gotzone Sagardui asteon azaldu du ospitaleetako ZIUek "tentsionatuta" jarraitzen dutela, eta helburua intzidentziasaren jaitsiera dela: "100.000 biztanleko 60 kasuraino jaitea dugu helburu, eta oraindik ere urrun gaude".

"Ez dugu jakin txertoa noiz iritsiko zitzagun"

QUALID SAIDI ANBULANTZIAKO LANGILEA

Azpiktratatuta lanean ari diren ambulanzietako langileek protestan dihardute azken asteetan, lehen lerroko langileak diren heinean txertoa jarri diezaietela eskatzeko

M.S. BERGARA

Azpiktratatutako ambulanzietako langilea da Oualid Saidi bergararra, eta Osakidetza osasun langileekin alderatuta "diskriminazioa" sufritzen dutela uste du.

Zergatik ari zarete protestan?

Txertoa jarri diezagutela eskatzeko egin ditugu protestak; izan ere, azpiktratatuta gaudenek orain arte ez dugu jakin txertoa helduko ote zitzagun, ez eta noiz iritsiko zitzagun txanda. Osakidetza langileekin ez da hala gertatu?

Anbulanzietan lan egiten duten Osakidetza langileak txertoa hartuta daude dagoeneko, eta oraindik hartu ez dutenek bade horretarako hitzordua, behintzat. Baina Osakidetza langileak gutxiengoa dira; esango nuke %90 baino gehiago azpiktratatutakoak direla. Beti izan gara ilarako azkenak.

Diskriminatuta sentitzen zarete, hortaz...

Betidanik egon da diskriminazioa, koronabirusa iritsi zenean ere lehenbizi Osakidetza langileei iritsi zitzaizkien materiala, eta gero, beste guztiei. Txertoarekin berdin gertatu da; beti gara ahaztuak. Esan daiteke pandemiak areagotu egin duela alde hori. Hala eta guztiz ere, esan beharra daukat orain ez zaigula ezer falta; materialez ondo baino hobeto hornituta gaude.

Non egiten duzu lan?

Ambulancias Gipuzkoa enpresan; Gipuzkoan dagoen enpresa bakarra da. Nik, zehazki, ambulanzietan ez-asistentzian lan egiten dut; eta bakarrik joaten naiz. Denetarik egiten dut: pazienteak mugitu, aulki gurgildunetan zein esku-ohetan eraman, ospitalera eraman medikuarekin hitzordua dutenean, errehabilitaziora eraman, ebakuntza batera eraman, kimioterapia edo erradioterapia hartzeko



Oualid Saidi asteon, ambulanzietako lan-jarduna hastear. o.s.

"GU EZ KUTSATZEKO ZEIN HERRITARREN SEGURTASUNERAKO DUGU BEHARREZKO TXERTO HARTZEA"

ra... Larrialdiak ere artatzen ditugu, baina, normalean, ez dira oso larriak izaten. Hala ere, batzuetan, horiek ere tokatzen zaizkigu.

Debagoienean aritzen zara?

Askotan, bai. Bergarako naiz, eta Debagoieneko Ospitalean, Arrasaten, aritzen naiz, gehienetan. Gasteizera ere joaten naiz; hemengo ospitalearekin lotura zuzena du Txagorritxu Ospitaleak.

Koronabirusa dutenak edo izan dezaketenak artatzen dituzu?

Kutsatuta dauden edo horren susmoa duten herritarrak artatzeko espezializatutako ambulanzietan daude. Baina ni ere aritzen naiz, batzuetan. Esaterako, Aretxabaletako GSR Debagoiena egoitzako nagusiak kutsatu eta ospitalera joan behar izan dutenean aritu naiz euren joan-etorrietan laguntzen. Hain

zuzen, egoitza ospitalera eraman izan ditut, eta gero, alta jaso dutenean, ospitaleetik egoitzara itzuli. Bestetik, Arantzazuko hotelean isolatuta dauden gaixoeekin ere gu aritzen gara.

Txertoa premiazkoa duzue, beraz... Zalantzarik gabe. Izan ere, birusarekin kontaktuan gaude, nolabait esateko. Eta gainera, esan beharra daukat txertoa ez dugula eskatzen soilik gu ez kutsatzeko; ambulanzietan eraman ditugun herritarren segurtasunagatik ere bai.

Nola dago txertoaren afera?

Lankide batzuek dagoeneko hartu dute txertoaren lehen dosia. Baina gainontzekoek egun hauek zehar hartuko dugu. Gure kasuan, enpresan baditugu mediku eta erizainak, eta haiek jarriko digute, Urnietan dugun egoitzan. Lehen lerroan aritzen diren lankideek, koronabirus kasuak artatzen dituztenek ere, duela gutxira arte ez zekiten txertoa noiz hartuko zuten.

Gaurko greba bertan behera gertatu da, azkenean...

Bai, badirudielako txertaketa aurrera doala, pixkanaka bada ere. Gasteizen, Lakuan egin zen protestan, adibidez, izan nintzen.

Historian zehar egindako lanagatik aitortza berezia

'30 emakume ahaztezin' erakusketak Euskal Herriko historian zehar esanguratsuak izan diren emakumeen figura ekarri nahi du gogora, akuarela erakusketa berezi baten bitartez. Bergarako Laboratorium museoa dago ikusgai, maiatzaren 30a arte

Jone Olabarria BERGARA

"Akuarela erakusketa bat baino askoz gehiago" da maiatzaren 30era arte Laboratorium museoa ikusgai dagoen *30 emakume ahaztezin* erakusketa. Hala zehaztu zuen Laboratorium museoko zuzendari Rosa Errazkinek atzo egindako prentsa agerraldian. Bertan izan ziren Izaskun Landaia Emakundeko zuzendaria, Gorka Artola alkatea eta Ainhoa Lete Bergarako Udaleko Berdintasun zinegotzia.

Profil askotariko emakumeak

Euskal Herriko historian esanguratsuak izan ziren 30 emakumeren erretratu eta biografiak laburra batzen ditu erakusketak. Askotariko profilak dituzte: Joxepa Antoni Aranberri margolaria, Eulalia Abaitua argazkilaria, Lurdes Iriondo musikaria edota Julene Azpeitia ikastolen bultzatzailea, besteak beste. Orain arte, Bilbon egon da ikusgai, eta, Bergaratik pasa ostean, Gasteiz eta Donostian gozagai egotea espero dute. Akuarelak soilik ez, antzinako elementu historikoak eta *Lan eta lan, emakumea Bergaran* ikus-entzuzeko pieza ere bertan daude.

Erakusketak museoaren iza-tearekin bat egiten duela azaldu du Rosa Errazkinek: "Jasanga-



Izaskun Landaia, Laboratorium museoko eta Udaleko hainbat ordezkarekin. M.A.

rritasuna eta berritasuna oinarri, garapen eragilea izatea du helburu. Ildo horretan, gure historian ekarpen garrantzitsuak egin dituzten emakume guztiak ikusgarri egiteko lanean eragile izan nahi du Laboratorium museoa ere".

"EMAKUME GUZTIAK IKUSGARRI EGITEKO LANEAN ERAGILE IZAN NAHI DU MUSEOAK"

ROSA ERRAZKIN, LABORATORIUM

Erakusketaren abiapuntua Elena Ciordia artistak egindako 30 akuareletan eta ostean sorturiko liburuan dagoela azaldu du Izaskun Landaia: "Emakundek 30 urte bete zituenean, zerbait berezia egin nahi genuen eta pentsatu genuen gure herriko

"HAIN IKUSGARRIAK EZ DIREN LANETAN ARITU DIRENAK ERE OMENDU NAHI DIRA"

IZASKUN LANDAIA, EMAKUNDE



Bilbotarrek egindako ekarpenei batuko zaizkie Bergaran egindakoak. J.O

Emakume anonimoak ere, bistara

Erakusketan bertan bisitariak beste hainbat emakume anonimo eta ahaztezin izenak, argazkiak, istorioak ekarri ditzaten panel bat jarri dute. Ez bakarrik erakusketan, sare sozialen bitartez ere egingo da izenen jasotze hori, *#emakumeahaztezinak* traolarekin.

30 emakumeren oroimena berreskuratzea eta bertan jasotzea".

Aitortza publikoa egiteko

Erakusketan eremu publikoan aritu diren 30 emakume omentzen dituen arren, helburua hain ezagunak ez direnak ere gogora ekartzea dela zehaztu du Landaia: "Hain ikusgarriak eta hain publikoak ez diren beste-lako lanetan aritu direnak ere omendu nahi dira. Gure gizarterako guztiz beharrezkoak eta funtsezkoak diren lanak egin dituztelako eta ez dutelako jaso merezi zuten aitortza publikorik".

"BALIOA EMAN NAHI DIOGU EMAKUMEEK EGITEN DUTEN LAN IKUSGAITZ GUZTIARI"

GORKA ARTOLA, BERGARAKO ALKATEA

Erakusketaren aurkezpenean, eta Emakumearen Nazioarteko Egunaren testuinguruan, azpimarra jarri nahi izan du Gorka Artola alkatea: "Balioa eman nahi diogu emakumeek egunero egiten duten lan ikusgaitz guztiari".

Erakusketa herritar guztiei zabaldu nahi izan diete, baina fokua bereziki jarri nahi izan dute gaztetxoengana. Maiatza bitarteko tarde honetan gaia lantzeko ikastetxeekin egingo dituzte lanketak. Ainhoa Lete Berdintasun zinegotziak ere hori bera azpimarratu du: "Adin guztietako herritarrengana eragitea da helburua, baina, bereziki, inportantea iruditzen zaigu heziketa haurrekin eta gazteekin egitea. Etorkizuneko herri feminista sortu dezaten, pertsonen arteko berdintasuna oinarri izango duena".

288 herritarrek hartu dute parte ontzi arinak bereizteko kanpaina

Hondakin ezegokien kopurua gutxitzeko helburuarekin jarri zuen abian kanpaina Mankomunitateak, otsail hasieran

J.O. ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta, otsailaren 6an sentsibilizazio kanpaina bat jarri zen abian, ontzi arinekin batera pilatzen diren hondakin ezegokiak gutxitzeko helburuarekin.

Mankomunitateak emandako datuen arabera, orain arte 288 herritarrek parte hartu dute kanpaina: 197 herritar izan dira informazio puntuetara hurbildutakoak eta 75 tailer zein egitasmoetan parte hartu dute-

nak. Horiez gain, 16 herritarrek egin dute online ekarpenen bat, hondakin inpropioen kopurua murrizteko ideiak emanda.

Jakinarazi dutenez, ontzi arinen bilketan topatzen diren hondakin ezegokien edo inpropioen kopuruak, ingurumen kalteez gain, azken bi urteetan 150.000 euroko galera eragin dio Mankomunitateari. Datorren zapatutik hasita, zapatuero saioak izango dira Elgetan, Oñatin, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan, hurrenez hurren.

PSE-EEK domekan omenduko du Isaias Carrasco Arrasaten

Navas de Tolosa kalean 2008ko martxoaren 7an erail zuen ETak Isaias Carrasco zinegotzi sozialista izandakoa, eta leku horretan egingo diote omenaldia bihar, zapatuan, 12:00etan. COVID-19ak eraginda, lore eskaintza bai, baina urtero egin ohi duten osteko ekitaldia bertan behera geratu da. Hamahirugarren aldia izango da aurtengoa.

Iazko otsailean baino 200 langabe gehiago daude Debagoienean

Otsaila hasi baino 51 langabe gutxiagorekin amaitu zen Debagoienean. Hala, 2.637 langabe zeuden hilabetea bukatzean, eta langabezia tasa %8,46an kokatu zen. Iazko otsailarekin alderatuta, bestalde, aurtengo otsailean 200 langabe gehiago zeuden balaran, eta, Aramaion eta Elgetan izan ezik, gainerako herri guztietan egin du gora kopuruak.

"Une zailak dira zientzia dibulgazioa egiteko"

Juan Inazio Perez Iglesiasen hitzak dira; Biologian doktore eta Fisiologian katedradun izateaz gain, EHUKo errektore izan zen 2004tik 2009ra, eta azaroaz geroztik Jakiunde ko presidente ere bada; 'Harira' saioan izan da, kargu berriaz eta COVID-19az hizketan



Perez Iglesias, martitzenean, Goiena telebistako platoon. NEKANE MUÑOZ

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Ezagutza sortzea eta gizarteari helaraztea da Jakiunde elkar- tearen misioa, eta zeregin hori "inoiz baino garrantzitsuagoa" den honetan heldu da Juan Inazio Perez Iglesias Jakiunde elkar- tearen presidente izatera, 2020ko azaroan.

Zientzia, "eraginkor"

"COVID-19aren agerraldiak dena baldintzatu du, eta orain, jende guztia zientziari begira dago. Baina presioa handia izan den arren, esango nuke zientziak ondo erantzun duela. COVID-19aren aurkako txertoak denbora tarte laburrean garatu dira, eta zientziak erantzun eragin- korra eman du, nire ustez. Beste gauza bat da nola egin den txertoaren merkaturatzea edo hori ahalik eta azkarren jartze- ko erabilitako logistika. Hor sortu diren arazoak zientziaren esparrutik kanpo daude".


Hala ere, zientzia dibulgazioa egiteko une zaila dela dio, "zientzia, izatez, probisional eta kontingentea delako": "Kontingentea da, zientziak ezin duela- ko beti emaitza bat bermatu. Zientziari ezin zaio eskatu: 'Aizu, konpondu iezadazu arazo hau hilabete bateko epean'. Ez da horrela; batzuetan, erantzunak eta konponbideak eman ditzake, baina beste batzuetan, ez. Eta kontingentea izateaz gain, probisional ere bada, eta argi geratu da azken urte honetan. Alde handia egon daiteke une honetan dugun ezagutzaren eta urtebete barru eduki dezakegunaren artean. Pandemia hasi zenean, sekulako arreta jartzen genuen objektu fisikoetan: eskuak garbitu, gauzak desinfektatu... Eta orain, frogatuta geratu da aerosolek dutela kutsatzeko benetako kutsatze-gaitasuna. Hori guztiori kontuan izanda, argi daukat oso une delikatuak direla dibulgaziorako".

Etorkizuneko pandemiak

Argi du COVID-19arekin bizitako- koa ikasgai gisa erabili behar duela zientziak, aurrerago etor daitezkeen pandemiei "hobeto erantzuteko". Hau entrenamendu bat izan da aurrerago etorri- ko diren pandemia gogorragoei erantzuteko; izan ere, etorriko dira gehiago. Hau ez da larriena izango. Epidemiologia eta mikrobiologia alorrean asko erabiltzen da *The Big One* esamoldea, etorkizuneko etorriko den pandemia erraldoi bat izendatzeko. Egunen batean etorriko da, gripe formarekin edo beste batekin, ez dakigu, baina gure zeregina da gizarte horretarako prestatzea". Alde horretatik, osasunaren eta ekonomiaren arteko oreka mantentzea "oso zaila" dela uste du: "Txinan erabateko geldialdiak ondo funtzionatu du, baina herrialdearen %5i eragin dio; nazio oso bati aplikatzeak ondorio larriagoak ditu, eta oso zaila da oreka hori lortzea".

Zer da Jakiunde?

Zientzia, arte eta letren akademia Eusko Ikaskuntzak sortu zuen, 2007an, eta Bergarako Olaso dorrean du egoitza. Alor askotariko 97 adituk osatzen dute, eta gizariek dituen erroka handien aurrean hausnarketarako eta analisisirako aholkularitza eskaintzen dute. Instituzioei ematen dieten aholkularitza zerbitzua, nagusiki, baina ezagutza gizarteratzeko lan ere egiten dute; hitzaldiekin, eta gazteei zuzendutako *Jakin-mina* eta halako programekin.



"Leku gutxitan erabiltzen den eredu pedagogiko, berritzaile eta parte- hartzailea baliatzen dugu"

Carla Horrillo (Arrasate, 21 urte) Lehen Hezkuntza graduko hirugarren maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean, eta aurten. Atzerriko Hizkuntzako ibilbidea egiten hasi da.

Definitu, apur bat, zeure burua.

Orain arteko ikasketak D ereduko eskola eta institutu publikoetan egin ditut, Lehen Hezkuntza Arrasate Herri Eskolan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Arrasate Institutuan, hain zuzen. Nire zaletasun nagusia argazkigintza da, eta bidaiatzea, mendira joatea eta lagunekin eta familiarekin denbora pasatzea ere asko gustatzen zait.

Zergatik aukeratu zenuen gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Bi arrazoi nagusirengatik aukeratu nuen: betidanik gustatu izan zaidalako irakastea eta haurrekin egotea eta egungo gizarte irakaskuntzaren bidez hobetu daitekeela uste dudalako; azken finean, hezkuntza gizartearen oinarria da.

Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen eskaintzen duen metodologiagatik eta etxetik hurbil dagoelako. Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia? Oso ona izan da, nire ibilbide akademikoan zehar bizi izandako esperientziarik hoberena izaten ari da. Egia esanda, gradua hasi nuenean ez nuen espero hain pozik eta gustura egotea.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (Huhezi) jasotzen duzun ikasteko metodologia? Hitz bakarrean definitu beharko banu, berritzailea dela esango nuke. Gaur egun ikastetxe eta unibertsitate gutxitan erabiltzen diren eredu pedagogiko, berritzaile eta parte-hartzaileak erabiltzen dituzte, sormena

eta elkarlana sustatuz. Unibertsitateak zer gustatzen zaizu gehien? Eta hobetzekorik? Gehien gustatzen zaidana da proiektuak lan egiten dela, taldeak txikiak direla, irakasleekin gertuko harremana dugula eta arreta pertsonalizatua jasotzen dugula. Hobetzekoei begira, unibertsitate berritzailea izateko, estrategia berriak martxan jartzea ezinbestekoa da, eta, batzuetan, egiten diren aldaketak ulertzea ez da erraza izaten. Etorkizunari dagokionez, zeintzuk dira zure asmoak? Nire helburu nagusia irakaskuntzan erabat murgiltzea da; alegia, nire ibilbide profesionalari ekitea. Aldi berean, etorkizunari begira, bigarren gradu bat edo bigarren espezialitate bat ikastea gustatuko litzaidake.



ZABALIK

OSKAR ELIZBURU

Bultzada!

Aurreko batean, kalean nindoala, euskaltegirako bidean, aspaldiko legez, musukoa, betaurrekoak lurrunduta, motxila bizkarrean... eta: "Hepa, Oskar, aspaldiko!". Buelta eman, eta ahotsagatik ezagututa: "Ene! Zelan? Ez gara, ez, aspaldi egon!". Hau eta bestea komentatu, eta hara non bota didan: "Zer, orain larri ibiliko zarete Korrika egin barik, ezta? Zelako zuloa!".

Ahopean aipatu nion bagenuela zerbait egiteko asmoa, baina oraindik ezin genuela ezer zabaldu. Abisatzeko erantzun zidan, berehalakoan, laguntzeko prest.

Animoak eman eta gure jarduna, AEKren lana, goraiatzeko ziharduenean, Korrikan parte hartu ezin izanaren sentimendu sakona igarri nion; eta, egia esan, pena eta indarra, biak batera sentitu nituen. Aurrera egiteko bultzada eta euskararen aldeko agerraldi mundiala egin ezin izanaren hutsunea; ekimenaren parte biok, sentimendu bateratua...

BERTSOREN BAT, ABESTI BAT ELKARREKIN KANTATU, ARGAZKIA ATERA...

Lagunen eta euskaltzaleen bultzada ezinbestekoa dugu beti, eta gehiago horrelako egoeren aurrean.

Gaur, Debagoieneko euskaltzale eta korrikazale guztiei

emango dizuet lagunari ahopean azaldu nionaren berri: badator ekimen bat AEKrekin bat egiteko, zuloa betetzen laguntzeko zein helduen euskalduntze alfabetatzea auzotzeko... *Bultz!* Ez gara milaka lagun bilduko, besarkatuko, dantzan jarriko... Ez, hori hurrengo urtean egingo dugu, berrelkartzeko leku alaia izango den 22. Korrikan.

Martxoaren 28an izango da bilkura, eguerdiko hamabietan elkartuko gara Herriko Plazan, eta ordu erdiko ekitalditxo egingo dugu elkarrekin, egoerak ematen dituen aukerak eta arauak kontuan hartuta. Eta *gure mezua* irakurriko dugu, betiko lez, euskararen normalizazioa aldarrikatzeko beharrak hor diraelako. Eta hori guztia elkarrekin egin nahi dugu: bertsoen bat, abesti bat elkarrekin kantatu, argazkia atera, marrazkilariak lanean, auzolanean... Ordu erdi goxogoxoa, elkarri bultzada emateko!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Kafe bat

ARANTXA URRETABIZKAIA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Pasadizo hau kontatzen dudana bakoitzean, entzulea harritu egiten da.

Duela hogeit eta koska urte, gure semea txikia zenean, nirekin etorri zen Durangoko Azokara, liburu berri bat salgai nuelako.

Han esplikatu nion nire liburuaren ale bat saltzen zen bakoitzean argitaletxeokoei marrazki bat idazten zutela aurrean zuten paperean, liburuaren izenaren atzetik, eta marrazki bakoitzak adierazten zuela nik kafe bat

erosteko adina diru eskuratzen nuela.

Arratsalde osoan ez zion paperari bista kendu. "Zortzi kafe, ama, hamar kafe..."

Gertakizun hura barne txiste moduko bat bilakatu zen gure artean.

Geroztik, Durangotik etxera itzultzen naizenean, "ze, ama, kafe asko?", galdetzen dit.

Azken liburuarekin galdera hori egin zidanean, erabaki nuen kontua berriz ere egin behar nuela, kafearena aspaldiko neurketa zelako.

Emaitzak adierazi zidan ez zidala saldutako ale bakoitzak kafe bat erosteko adina ematen.

Ez zen ale bakoitzeko eurora heltzen eta nik,

pandemiaren aurretik, astean behin kafetegi batean hartzen nuen kafeak 1,30 balio zuen.

Horregatik euskaraz idazten dugun gehien-gehienok beste lanbide bat dugu; gehientsuenak, irakaskuntza.

Eta horrek badu alde onik.

Idazten dudana liburuak harrera txarra badu, kritika ezkorrak jasotzen baditu, ez bada argitaletxeak aurreikusitako salmenta neurritik heldu, nire autoestimua sufrituko du, baina nire kontu korrontean ez.

Eta horrek askatasuna ematen dizu, agian bestela izango ez zenukeen askatasuna.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

Sailtetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen

aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Asmoa da energia ekoizpena eta kontsumoa bateratzea"

JON MURGIONDO ARETXABALETAKO ETXEZURI BASERRIKO ARTZAINA

Imanol Beloki ARETXABALETA

Gipuzkoako landa garapeneko proiektuei aitortza emateko asmoz, Landaola Federazioak laugarren edizioeko sariak banatuko ditu gaur, egubakoitza. Hautagaien artean erakunde publikoak eta pribatuak daude, eta erakunde pribatuen arteko hautagaietako bat da Aretxabaleako Etxezuri, *Latxa Energy* proiektuagatik. Jon Murgiondo da proiektuaren kideetako bat. **Latxa Energy proiektua zertan oinarritzen da?**

Artzain eta baserritar guztiok gaude arduratuta gure energia kontsumoekin, fakturekin... Geroz eta dependentzia handiagoa dugu energia konpainia handiekiko... Arazo hori ikusita sortu genuen *Latxa Energy* proiektua, talde eragile batekin.

Elkarlanean gauzatutako proiektu berritzaileak garatzen zeintzuk aritu zarete?

Otxandioko Kerixara gaztandegia proiektuaren



Jon Murgiondo artzaina. ETXEZURI

buru dugu, eta eurekin batera, Noemi Salazar kotsultorea, Neiker, Azti, Latxa Esnea, Artzai Gazta, Goiener Taldea eta gu, Etxezuri, gara *Latxa Energy* proiektuaren kide. Proiektu

pilotu moduan hasi ginen, beste baserri edo gaztandegi batzuei balio izan diezaien gure proiektu edo ikerketa honek. **Proiektua aurrera eramateko zein inbertsio egin dituzue?**

Europako eta Eusko Jaurlaritzako dirulaguntzekin lagunduta dago proiektua. Gure kasuan, baserriko kontsumo ohiturak aztertu zituzten Goienekoek, zein makineria eta zein kontsumo ditugun ikusita. Horren arabera, eguzki-plakak jarri genituen; helburua efizientzia energetikoa lortzea da. Hala, gure kontsumo ohiturak aldatu egin behar izan ditugu, ahalik eta autonomoenak izateko. Horrekin batera, Etxezurin galdara bat jarri dugu, biomasarekin eta olioarekin, gazta eta ura berotzeko, LED argiteria, eta abar.

Balio handia du Landaola sarietarako hautagai izateak?

Lehenengo aldiz gaude hautagai gisa, eta aitortza beti etortzen da ondo. Gizarte osoak du energiarekiko kezka, eta aitortza honek indarra ematen digu.

Aurrera begira, zer?

Gaur-gaurkoz, 320 ardi inguru ditugu, eta urtean 5.000 kilo gazta inguru egingo ditugu, gutxi gorabehera. Horrekin batera, aurrera begira, *Latxa Energy* proiektuarekin jarraitu nahiko genuke, hobekuntzan eta berrikuntzan lanean jarraituz, gure ogibideari dagozkion alor ezberdinetan.

HAU BE BADOGU!

Martxoaren 3ko erailketak gogoan



45 urte bete ziren eguaztenean Gasteizko bost langile erail zituela Polizia Nazionalak:

@ideiazabaldub: "Gaur duela 45 urte Espainiako polizia armatuak 5 langile erail eta ehundaka zauritu egin zituen Gasteizko sarraskian".

@jonperezgarcia: "Memoria. Justizia. Duintasuna. #Martxoak3".

@martxoak3: "#M3moría bizirik Zaramagako #Martxoak3-ko elizaren hormetan. 45 urte gure bihotzetan".

Emakumeen Egun berezia sarean ere

Astelehenean, Martxoaren 8an, izango da Emakumeen Eguna, eta, pandemiagatik, sarean ere "zarata ateratzeko" deialdia egin du mugimendu feministak:

@herrekagorria: "M8 baino lehen nondik gatozen aztertzeak aurreruntz begira jartzen gaitu!".

@UZEI: "#M8 Honako sarrera hau hautatu dugu gaur #Euskalterm-etik, autodefentsa feminista".

@m8Arrasate: "Dena aldatu, sistema arrakalatu!".

Txertoak gora eta txertoak behera

COVID-19aren kontrako txertaketaren inguruko kontuak bolo-bolo dabiltza sare sozialetan:

@samaravelte: "Txortaketarena lehenago jakin izanez gero, negazionista gutxiago leudeke, eh? #marketing".

@aolagoi: "Txertaketa erritmoaren kontuan, aitzakiak alde batera utzi eta serio jartzeko garaia da".

@txemarinhas: "Txertaketa plana badirudi ezetz, ez doala aurrera espero bezala".

ITURRI ONETIK

Liburua, abestia eta bideoklipa 30 urte ospatzeko

AGAKO Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatuaren 30. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien harira -liburua ere argitaratuko dute-, askotariko estiloetako Arrasateko dozena bat musikarik Arrasaten izan diren hiru gaztetxeen historia kontatzeko sortutako kantua musikatu eta grabatu dute Shot! estudioan. Kantuaren izena *Hiru hamarkada luze* da. Datozen asteetan bideoklipa grabatuko dute eta apirilko ospakizunetarako egingo dute publiko.

ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2010-03-06

Mendian hildako Joseba Igesiasi omenaldia

Joseba Iglesias 2010eko otsailaren 28an Udalatz inguruan hil zen 19 urteko gazte arrasatearraren omenezko ekitaldiak egin zituzten Zabalaundin eta Arrasateko gaztetxean. Izan ere, mendia eta gaztetxea ziren Igesiasen toki kuttunenak. Mendi ibilaldia, txalapartariak, aurrekua, bazkaria... egin zituzten. Murala margotu zuten gaztetxearen kanpoaldean, eta argazkia atera horma-irudiaren aurrean.

Bergarako EAJk gaitzetsi egiten ditu Joan den astean Bergarako Sortuk egindako adierazpenak eta kaleetan jarritako kartelak

ENAITZ AGIRRE

BERGARAKO URI BURU BATZARREKO LEHENDAKARIA, BERGARAKO EAJ BERGARA

Joan den astean, Bergarako Sortuk Bergarako enpresen kontrako hainbat adierazpen egin zituen, bertako medioan, sare sozialetan eta kalean ipinitako hainbat kartelen bidez, eta benetan larriak iruditzen zaizkie jeltzaileei.

EAJren ustez, herriko enpresek, bertako ekonomia bultzatzeaz gain, lanpostu duinak sortzen dituzte, herriarrei lana emanez eta, bidez batez, hauen ongizatea bermatuz. Eta, nola ez, herrian aberastasuna sortzen dute, bertan bertakoa. Jeltzaileen ustez, bertako enpresa txikiak eta ertainak babestea ezinbestekoa da herri baten garapenerako.

Horrez gain, Bergarako EAJk uste du bertako ekintzaileak babestu eta bultzatu beharra dagoela; izan ere, administrazio guztien laguntza ezinbestekoa dute beraien proiektuak aurrera eramateko; batez ere, orain, inoiz bizi ez dugun krisi baten erdian, ekimen enpresarial berri bati ekiten diotenean.

Bide batez, Bergarako EAJk Bergarako alkateari eta Udal Gobernuari galdetu nahi die

Sorturen adierazpenen inguruan duten iritzia; ea Bergarako enpresen aldeko hautua egiten duten edo Sorturen adierazpenekin bat datozen. Herriak jakin beharra du.

Azkenik, Bergarako enpresak animatzen ditugu beren lana orain arte bezala ahalik eta hobekien egiten jarrai dezaten, eta, nola ez, ekintzaileei gure babesa eskaintzen diegu.

Gorputz Hezkuntza, pandemia garaian

MIRIAN URZELAI

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAN LIZENTZIATUA ETA BIGARREN HEZKUNTZAN GORPUTZ HEZKUNTZAKO IRAKASLEA OÑATI

Pandemiak ekarri dizkigu debeku ugari, baina irakasleok egon gara eta gaude prest ikasleekin eta familiekin aurre egiteko elkarlanean erronka berri honi, nahiz egun gutxi batzuk egon eskolara joan barik, martxan hasi ginenetik, bermatu egin dugu gizarteak hain beharrezkoa duen kontziliazio hori.

Agintariak eta espezialistek justifikatutako arrazoinamenduz hartu dute erabaki zentzudun, egoki eta zuzena. Maskaraz, eta beste erritmo eta intentsitate batez, baina mugimenduan Gorputz Hezkuntzako saioretan parte hartzearena, garapen integral baterako bidean, ikasleen oinarritzko eskubideak bermatzearena, alegia.

Azken ikerketek ziurtatzen digute –horien artean, *Mayo Clinic Proceedings*-en publikatutakoak– egoera fisiko onean edota oso onean dauden pertsonak SARS-CoV-2-a hartuz gero, beraien ospitaleratze aukerak erdira murrizten direla. Argi utziz, beraz, jarduera fisiko erregularra egiteak, dieta orekatu eta atsedan egokiek, noski, gure defentsa-sistema indartzen duela.

Ikasleek inoiz baino behar handiagoa dute goiz erdia baino gehiago eserita pasatzen duten aulki horretatik jaiki eta euren gorputzarekin bat adimena mugimenduan jartzeko, euren nortasuna gizakiontzat hain garrantzitsuak diren sozializazio bizipen ezberdinez aberasteko.

Eman diezaiegun garrantzia kalitatezko bizitza bete eta osasuntsua izateko eskolak eskaintzen dizkigun bitartekoei, eta irakasgai bat bera ere ez gutxietsi... handik eta hemendik, motibazioz ikasten baitugu guztietatik. Haurren eta nerabeen sedentarismoak ekarriko digun etorkizuneko osasun sistema kolapsatua eragozteko denboraz gaude oraindik.

Ikasturte hau benetan gogorra eta deserosoa egiten ari zaie ikasleei, eta biziki konbentziturata esan dezaket aurten Gorputz Hezkuntzako saioretan bizi eta ikasitakoak ekarriko dizkien onurak inoiz baino beharrezkoagoak dituztela haurrek eta

nerabeek. Gure saioretan euren irribarre ezkutuek hala diote.

Beraz, sedentarismora garamatzaten ordenagailu, mugikor eta tabletak horrenbeste begiratzeari utzi, eta hartu zuentzat osasuntsua eta kalitatezkoa izango den mugimendurako tarte hori.

Martxoaren 8a

ITZIAR USANDIZAGA

BERGARA

Emakume pentsiodunok, 2021eko Martxoaren 8an, berretsi egingo ditugu guztiontzat duinak, bidezkoak eta nahikoak diren pentsioak eta pentsio publikoen sistema publikoaren aldeko apustua. Hiru urte baino gehiago dira etengabe mobilizatzen ari garela, emakumeak soldatetan eta pentsioetan bereizten dituen genero-arrakala amaitzeko.

Indarrean dauden lan eta pentsio erreformei mehatxu berriak gehitu zaizkie, eta Toledoko Ituneko zehaztugabetasunen eta gomendioen babesean, pentsioen hurrengo erreforma gauzatuko da, hori saihesten ez badugu.

Toledoko Itunean egindako pentsioen erreforma honek, Elkarriketa Sozialerako Mahaiko eragileek onartu nahi dutenak, alegia, emakume pentsiodunok desanparorik gupidagabeenean uzten gaitu oraindik ere.

2011ko erreformak kalte handia egin zien gure pentsio

ziztrinei. Guretzat, egungo pentsiodunentzat, ez da nahikoa hura indargabetzea; aitzitik, gutxieneko pentsioak handitu egin behar dira, 1.080 eurora iritsi arte, kotizaziopekoak eta ordaindutakoaren arabekoak ez direnak ere.

Toledoko Itun horrek, orain Elkarriketa Sozialerako Mahaia denak, 2011ko edizioan ezarri zuten pentsioen kalkulua, eta 15 urtetik 25era igo zen, pixkanaka, 2022ra arte. Orain, 2020an, 35 urte inposatu nahi dituzue pentsioak kalkulatzeko, xantaia eginez, 25 urteak gaitz txiki gisa onar ditzagun? Lanaldi eta soldata prekarioak dituzten emakumezko langileek, gehienek, ez dute inoiz erretiroa hartuko, ez 25ekin, ez 35ekin!

Erreforma horrek murrizketak gehitu dizkie jada jasan ditugun murrizketei.

Honako hauek nahi eta eskatzen ditugu:

- 1.- Gutxienez 1.080 euroko pentsioa, hamalau ordainsaritan.
- 2.- Pentsioetan genero-arrakala ezabatzea.
- 3.- Alarguntza-pentsioa bat etortzea kotizatzailearen ezkontideak adin-mugarik gabe kobratutakoaren %100arekin.

Emakume pentsiodunok bat egiten dugu V. Mundu Martxako emakumeekin.

Emakume pentsiodunok aurrera! Gora Martxoaren 8a!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrek: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefona eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



Udalbatzak ostalarien mozioa onartu du asteon

Ostalaritza Aurrera Gipuzkoako plataformak aurkeztutako mozioa EAJren, EH Bilduren eta Elkarrekin Arrasateren aldeko botoekin eta alderdi sozialistaren abstentzioarekin onartu zuten martitzeneko osoko bilkuran, eta beste hainbat puntu ere onartu zituzten

Eneko Azurmendi ARRASATE

Hiru eskaera jasotzen ditu mozioak: batetik, Arrasateko Udalarri eskatu diote udalerrian autonomoek bizi duten egoeraren berri emateko Eudeli, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari; bestetik, ostalaritza sektoreari dirulaguntzak emateko eskaera egin diote Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari; eta, azkenik, Diputazioari eskatu diote ostalaritzako establezimenduetan (IBI) zergen bilketa bertan behera uzteko, "jarduera normala berreskuratu arte".

Azpimarratzekoa da ostalariei babesa erakutsi zietela alderdi guztiek osoko bilkuran.

Horren harira, ostalariek terrazetan egindako inbertsioentzako dirulaguntzen bigarren deialdia zabaldu du Arrasateko Udalak, eta apirilaren 25era arte izango dute ostalariek eskaerak aurkezteko. 2020ko martxoaren 14tik 2021eko apirilaren 30era arte eginiko material erosketak edo inbertsioak lagunduko dituzte dirulaguntza horiek –toldoak, itzalkinak, manparak, altzariak, berogailuak, eta abar–. Halaber, gehienez inbertsioaren %25 finantzatu dute, eta enpresa edo aktibitate bakoitzak 2.000 euroko muga du.

Bizikidetzaren plana ere, onartuta

2023ra arteko Arrasateko Bizikidetzaren eta Aniztasun Ekintza Plana ere onartu zuten martitzeneko saioan, baina oposizioa EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek baliabide pertsonal eta ekonomiko falta leporatu zioten Gobernuari. "Plana osatua da, edukia ere ona eta interesgarria, eta helburuekin bat gatz, baina exekutatzeko ezinezkoa da", azaldu zuen Maider Morras EH Bilduren bozeramaileak. Koalizio moreko zinegotzi Eva Abuinek gaineratu zuen "oso beharrezkoa" dela plana,



Martitzenean egindako elkarretaratzea, osoko bilkura hasi zenean. HASIER LARREA

TAO SISTEMAREN ORDENANTZAREN TESTUA ERE ONARTU ZUEN UDALBATZAK, BEHIN BETIKO

baina "baliabide falta horrekin" ezin dutela onartu.

Anuska Ezkurra Udal Gobernuaren bozeramaileak, berriz, "aitzakiatan gorde barik" bi alderdiei eskatu zien baiezkoa emateko. "Herriarentzat ona izango den plan bati bizkarra emateko aitzakiak bilatzea ez da herrigintza. Baliabideak kontuan hartu dira, baina plangintza hau aurrera ateratzeko guztion parte-hartzea behar da. Jar dezagun martxan eta joango gara ikusten ze baliabide behar dituen".

TAOk, pauso bat gehiago

TAO (OTA) sistemaren ordenantzaren testua behin betiko onartu zuen udalbatzak, eta jendaurreko epealdian jasotako bost alegazioei erantzuna ematea ere bai –EH Bildu eta Elkarrekin Arrasate abstenitu egin ziren–. Erantzun horien ondorioz, or-

denantzaren testuan ez da aldatzarik egin behar, baina udal teknikarien txostenak egoki ikusten du "funtsezkoak" ez diren hainbat aldaketa egin ahal izatea.

Adierazpen instituzionalik ez

EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek Udal Gobernuari leporatu zioten Martxoaren 8aren gaineko adierazpen instituzional bat lantzeko prestutasunik eza, eta Johanna Sanchez sozialistak erantzun zien Eudelen adierazpen eredu bidali zuela eta prest egon dela elkarlanerako, baina ez duela erantzunik jaso.

Musakolako alkatearen kasua

EH Bilduk zera leporatu zion EAJri: "2020 bukaeran, Mikel San Miguel auzo alkatea salatu zuen Arrasateko EAJk, Musakolan bizi ez zelako. Alkatea aldatzera behartu zuten auzoa, eta, legalki arrazoia izan arren, moralki oso jokaera zakarra izan zen. Gainera, EAJtik ez zen inor aurkeztu hauteskundeetara. Errespetu falta izugarria da".

EAJk erantzun zuen "barne-arazo" bat medio ez zirela aurkeztu egun hartan, eta barkamena eskatu zien musakolarrei.

Egitarau "oparoa", gaur hasita, Martxoaren 8aren bueltan

Belen Nevadok 'Itolarriak' antzezlan eskainiko du gaur, egubakoitza, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan

E.A. ARRASATE

Arrasateko Udalak, herriko hainbat talde eta eragilerekin elkarlanean, ekintza egitarau "oparoa" antolatu du Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan.

Kartel lehiaketan parte hartu duten kartel guztiak, esaterako, ikusgai egongo dira Emakume Txokoan, martxoaren 15era bitartean. Bestalde, *Itolarriak* antzezlan eskainiko du Belen Nevadok gaur, egubakoitza, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian, gazteleaz. Martxoaren 11n, eguna, ordu eta leku berean,

Romipen, emakume ijitoak berdintasunerako bidean dokumentala aurkeztuko dute, eta ostean, solasaldia egongo da. Hilaren 18an, *Salda badago* liburua aurkeztuko dute, Kulturaten, eta 25ean, Zinegoak jaialdiaren baitako emanaldia egongo da.

Arrasatetik kanpo, asteburu honetako beste hitzordua Irun eta Hendaia artean egingo du Emakumeen Mundu Martxak, 12:30ean hasita, *Zubi guztien gainetik. Mugarik ez. Transnazioan ez lelopean*. Informazio gehiago, 21. orriko gehigarrian.

Ibai-artek zozketa bat antolatu du Aspacerekin elkarlanean

Martxoaren 20ko baserritarren azokan postu bat jarriko dute, Aspaceko kideek egindako hainbat produktuekin

E.A. ARRASATE

Aspacek Arrasaten duen Udalaitez zentroko kideek egindako saskiak eta lanparak zozketatuko dituzte martxoaren 20an, baserritarren azokan 09:00etatik aurrera jarriko duten postu batean, eta zozketan parte hartzeko hainbat bide jarri dituzte herritarren eskura. Horietako bat Arrasaten erostea izango da, Arrasate Txartelarekin, betiere. *"Ibaiarte.eus"* webgunean zure helbide elektronikoa utzi, erosketa-txartel baten argazkia bidali 688 73 41 49 Whatsapp zenbakira edo gure

Instagram edo Facebookeko kontuetan partekatu gure argitalpena", azaldu dute.

Gaineratu dutenez, besteak beste, Xabik, Juan Luisek, Asierrek, Estebanek, Soniak, Anak, Donatok, Mikelek, Sistik, Estik, Elisabethek, Vanesak, Nereak, Josunek, Luisek eta Liernik egindako neurri askotariko saski eta lanparak izango dira. "Azokan, gainera, produktu gehiago erakutsiko dituzte; beraz, gerturatzeko eta zure saskia eskuratzeko aukera ere izango duzu", azpimarratu dute.

OHARRAK

Iñaki Peña medikuaren hitzaldia, Kulturaten

Zainketa aringarriak pandemia garaian hitzaldia egingo du barneko medikuak martxoaren 9an, martitzena, Kulturateko areto nagusian, 18:00etan. San Felipe Elkarlaguntzak antolatuta. Leku kopurua mugatua izango denez, izena eman behar da, 943 77 30 22 telefono zenbakira deituta.

Ludoteka ibiltaria San Andresera pasako da

Arimazubi plaza izango da elkargunea martxoaren 6an, 13an, 20an eta 27an, eta parte-hartzaileek erabakitako ekintzak egingo dituzte. 11:30etik 13:30era egingo dute eta 3-12 urte arteko haurrek izango dute parte hartzeko aukera. Izena emateko lotura *Goiena.eus* webgunean dago.



Eraikinaren estruktura eta barruko arkuak mantendu egingo dituzte. ENEKO AZURMENDI



Eraikineko leihoak ere "oso bereziak" dira, "merkatuan aurkitzeko zailak direnak". Suitzatik ekarri dituzte.

Urtea amaitu aurretik lanak bukatuta, 2022an erabilgarri egon dadin

Kulturola izango den eraikina birgaitzeko lanen erdia eginda dago, eta, arkitektoaren aurreikuspenaren arabera, urtea amaitu aurretik bukatuko dituzte lanak; era horretan, datorren urte hasieran eraikina erabiltzeko moduan egongo dira talde eta eragileak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Obraren arduradunek, arkitektoek eta udal ordezkariak komunikabideentzako bisita gidatua egin dute asteon, eraikina birgaitzeko lanak ze puntutan dauden azaltzeko. Jovino Martinez Sierra obraren arkitektoak azaldu duenez, "lan zailenak" eginda daude dagoeneko, baina oraindik erdia dago eginda. "Instalazio guztiez gain, akaberak, zolatuak, beirateak, eta abar jartzea falta da". Hori hala, obraren epea luzatzea onartu du aste honetan udalbatzak, EAJren eta alderdi sozialistaren aldeko botoekin, EH Bilduren abstentzioarekin eta Elkarrekin Arrasateren kontrako botoarekin –otsailaren 15ean amaitzen zen epea–.

Obraren luzapena, "behin-behinean", urriaren 1era arte izango da, baina, agian, beste luzapen bat egin beharko dutela azaldu du Maria Ubarretxena alkateak, urte bukaerara arte. Izan ere, arkitektoaren aurreikuspena da 2021a bukatu aurretik lanak amaitu ahal izatea eta datorren urte hasierarako taldeak eta eragileak eraikina erabiltzen hasi ahal izatea.

Aurreikusitakoa baino gehiago luzatu dira lanak. "Gehienbat, pandemiagatik, obra gelditu egin baitzen hilabete batzuetan. Bestalde, eraikinak daukan monumentu izaera dela eta, baimen asko eskatu behar izan dizkiogu Aldundiari, eta horrek ere atzeratu ditu lanak, eta lurzoruaren kutsatze maila ere aurreikusitakoa baino handiagoa zen".

Monumentu historiko izaera

Ondare aldetik, izan dezakeen izaera gorena dauka eraikinak, monumentu historiko izaera, hain zuzen –eliza edo katedral batek daukana, esaterako–. "Luis Astiazaran arkitektoak diseinatu zuen, 1939an, eta, garai hartarako, aitzindaria izan zen. Denboran zehar egiten joan diren esku-hartzeen ondorioz, berezko konfigurazioa aldatuz joan da, eta zaharberritze honetan saia-

ERAIKINAREN IZAERA MANTENDU EGINGO DUTE, DAUKAN ONDARE HISTORIKOA AINTZAT HARTUTA

tu gara hori berreskuratzen. Bereztasun nabarmenetako batzuk dira hormigoizko estruktura, beirateen konposizioa, sabai-leihoak, eta abar", azaldu du Martinez Sierra arkitektoak.

Hala, erlojua mantendu eta konpondu egingo dute eta Kulturola izena ere tipologia originalarekin egingo dute, Union Cerrajerak zeramanarekin. Eskailera originala ere mantendu egingo dute –beste eskailera bat ere egin dute beste aldean– eta, azkenik, sarrerako atea eta farolak ere ez dituzte kenduko.

Energia arloan, efizientea

Eraikinak dituen 24 sabai-leihoak esker, besteak beste, "oso eraikin argitsua" da, argi asko sartzen da egun osoan zehar eta lokalak, gainera, eraikinaren perimetro guztian jarri dituzte, "argi naturala ahalik eta gehien aprobetxatzeko". Bestalde, leihoak ere "oso bereziak" dira, "merkatuan aurkitzeko zailak direnak".

Horrez gain, guztiz jasangarria izango dela azaldu du alkateak. "2018koa da proiektua eta energia berriztagarriak urte gutxitan asko hobetu dituzte. Beraz, apro-



Union Cerrajerako erlojua, eraikinaren bereizgarrietako bat, mantendu egingo dute.

betxatu dugu azken teknologiak jartzeko. Efizientzia energetikoari dagokionez, erreferente izango da Arrasaten eta baita bailara mailan ere". Hala, energia aurrezteko sistemak izango ditu eraikinak argiterian, ur txorrotetan, eta abar. "Eraikin guztiak LED argiteria izango du, eta aerotermia sistema eta 85 plaka fotovoltaiko ere bai. Horrek, eraginkortasun energetikoa bermatzeaz gain, mantentze kostuak murriztu egiten ditu", azaldu du arkitektoak.

Proiektuak, 6.149.160,18 euro

Eraikina birgaitzeko lanak 6.149.160,18 eurotan esleitu zizkion Udalak Construcciones Moyua SL enpresari eta 2021eko udal aurrekontuan 1.417.341,26 euro bideratu ditu, "obra amaitzeko eta barrutik ekipamenduetarekin janzten hasteko".

Bestalde, eraikinaren alboko horma batean murala egitea da asmoa, eta Kultura Saisetiko lehiaketa bat abiatuko du Udalak. "Aurrerago emango dugu horren berri", dio alkateak.

19 talde eta eragilek erabiliko dute

Behoko solairuan hauek egongo dira: Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa, Loixe Zeramika, Arrasateko Konpartsak, SUDC eta Santamas Komisiñua –azken bientzat, lokal bat–. Zaldibarko areto futbol txapelketaren balizko itzulerarentzat ere badago lokal bat gordeta.

Lehenengo solairuan, Arrasateko Udal Euskaltegia, Arrasate Margo Taldea, Arrasateko Bertso Eskola eta Doke antzerki taldea.

Bigarren solairuan, Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz dantza taldeak, Arrasate Trikitixa Eskola, Portaloi Kultura Elkarte, Udaxpe Txistulari Elkarte, Sambamaña, Txorbela Otxotea, Ttakun Txalaparta Elkarte eta Arrasateko Gaiteroak. Bestalde, goiko solairuan, bi espazio libre sortu dituzte, "sorkuntzarako, harremanetarako eta gauza berriak sortu ahal izateko".



Goiko solairuan "elkarlanerako" sortu duten espazio libreetako bat.



Eskailera originala mantendu egingo dute.



Sabai-leihoetako bat. 24 daude.



Lokalak eraikinaren perimetroan jarri dituzte, argia naturala ondo aprobetxatzeko.



Sarrerako atea eta bi farolak ere ez dituzte kenduko.

Lanen bigarren fasearen lizitazioa martxan dago

Urtebete geldi egon eta gero, Juan Arzamendi Musika Etxea egiteko lanen bigarren fasearen lehiaketa publikoa ireki du asteon Udalak; 4.076.976,44 eurotan dago aurreikusita aurrekontua, baina enpresen proposamenen arabera aldatu egin daiteke

E.A. ARRASATE

Udal Gobernuak balioa eman dio, Kulturolaz gain, Juan Arzamendi Musika Etxeak ere aurrera egin izanari. Izan ere, urtebete geldituta egon ostean, lanei berrekingo diete, hasiera batean, abuztuan edo irailean. Ondoren, aurreikuspena da sei hilabete behar izatea falta den zatia amaitu ahal izateko; hau da, 2022ko otsail edo martxo ingururako. Lehenik, ordea, enpresa bati esleitu behar dizkio lanak, eta hori "hiruzpalau hilabete" barru egitea aurreikusten du Udalak.

Urrats "garrantzitsua" da

Maria Ubarretxena alkateak azaldu du "kultura eta sormena Arrasateko nortasun eta izaeraren ikur diren heinean" Juan Arzamendi Musika Etxearen eraikuntza amaitzea "mugarri garrantzitsua" izango dela Arrasaterentzat: "Kulturari lekua egiteaz gain, gureak indartu eta sorkuntza lana dinamizatzea ahalbidetuko dugu".

Lehen zatia, Lurgioen enpresak

2017ko uztailaren 27ko osoko bilkuran, 7.480.518 eurotan adostu zuen Udalak eraikinaren irteera prezioa, eta Lurgioen SAURI 5.550.012 eurotan esleitu zizkion lanak, 2018ko urtarrilaren 16an, baina lanen %40 bakarrik egin zituen enpresa horrek, ondoren hartzekodunen lehiaketan sartu behar izan baitzuen. Hori horrela, lanei dagokien abala bereganatu zuen Udalak 2020ko urrian, eta 239.776,54 euro berreskuratu. Kopuru hori obra eten, proiektua berriro abian jarri eta bitarte horretan erakinean hartu behar izan dituzten segurtasun neurriak finantzatzera bideratu du -LKS enpresa arduratu da lan horietaz-.

ABUZTU EDO IRAILEAN LANEI BERREKITEA DA AURREIKUSPENEA, ETA SEI HILABETEAN BUKATU AHAL IZATEA

%60 falta da egiteko

Orain arte egindakoak 2.529.431 euroko kostua izan du eta egiteko dagoen %60, bigarren zatia, 4.076.976,44 eurotan dago aurreikusita -BEZik gabe-, nahiz eta behin betiko kopurua enpresek aurkeztutako proposamenen arabera izango den.

Gainkostuarekin, polemika

EH Bilduk Udal Gobernuari leporatu dio komunikabideetan gezurretan aritzea. "Kea saldu nahi izan du Gobernuak, esaten gainkosturik ez dela egongo. Baina obra horrek gainkostua izango du eta guk kalkulatu dugu bi milioi eurokoa izan daitekeela", azaldu du Maider Morras bozeramaileak.

Anuska Ezkurra Gobernuaren bozeramaileak, horri erantzunez, azpimarratu du "gaur-gaurkoz, esleitu arte", ez dagoela gainkosturik. "Kostua denborarena izan da, egia da, baina proiektua aurrera doa eta hori da albiste garrantzitsuena", adierazi du.



Juan Arzamendi Musika Etxea izango dena, lehenengo Aprendices eraikina. Obraren %40 dago eginda, oraingoz. E.A.

Trantsizio energetikoan sakontzeko gida, eskura

'Fotovoltaikoak etxean' proiektua garatzen dihardu Arrasateko Udalak, H-Enea Living Lab enpresarekin eta Debagoiena 2030 ekimenarekin elkarlanean. Datozen urteetan etxebizitzetan energia eredu alternatiboak ezartzeko gida aurkeztu dute asteon

Hasier Larrea ARRASATE

Herrian trantsizio energetiko-rako bidean "urratsak egiten" jarraitu nahi du Udalak, energia eredu alternatiboen aldeko apustua eginez. Horretarako, Arrasateko etxebizitzetan energia berriztagarrien ezarpena sustatzeko kanpaina bat jarri du martxan, energia fotovoltaikoaren ekoizpenaren bidean "herri-tarrak sentibilizatu eta informazio praktikoa eskaintzeko". Asmo hori aurkezteko prentsaurrekoa burutu dute asteon Maria Ubarretxena alkateak, Edurne Unamuno zinegotziak, Aritz Ameztegi Debagoiena 2030eko kideak eta Eukene Barrenetxea H-Enea Living Lab enpresako langileak.

Europa mailako proiektua

Egitasmoa SHREC Interreg Europe izeneko programaren barruan kokatzen da, eta zortzi entitatek parte hartzen dute: Lituaniako, Herbehereetako eta Suediako unibertsitate banak, Eslovakiako, Frantziako eta Errumaniako hiru energia agintziak, Italiako Piamonte eskualdeak eta Arrasateko Udalak.

Oinarrizko helburua "herriak trantsizio energetikoaren arloan urratsak egiten jarraitzea" dela azaldu du Maria Ubarretxena alkateak, eta eredu alternatiboen kontzeptu hori "herriarrei gerturatzeko pausoz pauso" joan behar dutela gaineratu.

Hori horrela, Udalak, Euskadiko Etxetresnen Klusterrak eta H-Enea Living Lab enpresak gida praktikoa osatu dute, autokontsumorako dauden aukeren, energia berriztagarrien instalaziorako dirulaguntzen eta hobarien inguruko informazioa herritarrei helarazteko. Tafallako erkidegoen esperientzia ere azaltzen du, datu objektiboekin. Gida hori etxek etxe banatu dute, eta Udalaren webgunean ere eskuragarri dago.



Edurne Unamuno, Aritz Ameztegi, Maria Ubarretxena eta Eukene Barrenetxea. H.L.

MODU INDIBIDUALEAN EDO BIZILAGUNEKIN ADOSTUTA INSTALATU DAITEZKE ENERGIOK ETXEBIZITZETAN

Instalatzeko bi modu

H-Enea Living Labeko Eukene Barrenetxeak azaldu ditu etxebizitzetan energia fotovoltaikoa instalatzeko dauden bi moduak: "Erabaki indibiduala izan daiteke, edo bizilagunen komunitate erabaki kolektiboa".

Ekimen ezberdinak sustatuz, helburu nagusia energia fotovoltaikoa "modu kolektiboan" ekoiztu eta kontsumitzera iristea dela nabarmendu duen arren, prozesu hori "mailaka egitea" garrantzitsua dela aipatu du Barrenetxeak, energiaren eta etxebizitzetan arloan dabilzan eragileekin eta Udalarekin egindako elkarrizketetatik ateratako ondorioen barruan.

Bilera irekia eta proba pilotua

Proba praktikoa egin nahi dituzte Arrasateko eta eskualdeko bizilagunen komunitateetan,

proiektua ezagutarazi eta zein harrera jasotzen duen egiaztatzeke. Debagoiena 2030 ekimena arduratuko da proba pilotu hori antolatzeaz.

Hurbilketa informatibo horren hurrengo pausoa Kulturaten herritarrekin bilera irekia egitea dela aipatu du Ubarretxenak, hitzordu horren eguna zehaztu gabe. Bere etxebizitzan energia eredu alternatiboak jartzeko zein aukera daukan jakin nahi duenak BAZera deitu dezake, enpresen gaineko informazioa eskuratzeko.

Eguzki-plakadun udal eraikinak

Udalean elektrizitatearekin zerkusua duten gaitako ardura duen Asier Zuluetak gogorarazi du Arrasaten energia fotovoltaikoa ekoizten eta kontsumitzen duten "hamar udal eraikin" daudela. Konkretuki, Udako Ingurumen Eskolan, Bedoñabe herri eskolan -bertan bi eguzki-plaka daude-, Uarkapen, Musakolako kiroldegian, Ferixalekuko eskolan, Erguingo herri eskolan, Emakume Txokoa, Akei zabortegian eta Etxaluzeko egoitzan daude energia berriztagarriak instalatuta.



Ruben Martinez venezuelarra, bere saioetako batean. RUBEN MARTINEZ SANTANA

Helduentzako ipuinak ekarriko ditu Ruben Martinez kontalariak

'Ahoz aho 2021' jaialdiak Arrasaten hartuko du ostatu datorren eguaztenean, Kulturateko areto nagusian

H.L. ARRASATE

Intujai antzerki taldeak sustatzen duen Ahozkotasunaren Nazioarteko Jaialdiak beste edizio bati ekin dio aurten, iazko arantza kentzeko indar betez. Izan ere, joan den urteko saioak aretoetatik etxeko itxialdira pasa ziren, halaberrez, eta adin guztiarako entzuleei ekitaldiak modu birtualean jarraitzea behartu. Aurten, zorionez, ez da halakorik pasako, mundu mailako ipuin kontalariak hasiak baitira Euskal Herrian barrena euren istorio eta pasadizoak lau haizetara zabaltzen.

Hori horrela, martxoaren 11n izango da egitarau horren lagin bat, Kulturaten, 19:00etan hasita, Ruben Martinez Santana ipuin kontalariaren eskutik. Iberoamerikako ahoz ahoko narrazioen mugimenduko aitzindarietakoa izan zen 80ko hamarkadaren bukaeran, eta ondotox

ezagutzen ditu Iberiar penintsulako ipuin kontalarien zirkuituak, duela 20 urtetik bizi baita Bartzelonan. Besteak beste, konde-hirian antolatzen den *Munt de Mots* jaialdiaren zuzendaria da Martinez, eta lehenengo aldiz gonbidatu dute *Ahoz aho* jaialdian parte hartzera. Hala ere, ez zaio arrotza egingo datorren asteko egonaldia, Euskal Herrira ipuinak kontatzera etortzeko "plazera" eduki baitzuen iraganean.

Martinezek aipatu du "desiratzeko" dagoela bere sormenetik ateratako istorioak publiko helduaren aurrean aurkezteko. Zeri buruz hitz egingo duen ez du oso argi, hala ere, emanaldian zehar sumatzen duen giroaren arabera erabakitzen baitu bide batetik edo bestetik jo: "Esperientziak lagundu egiten du publikora moldatzen eta inprobisazioari etekina ateratzen".

OHARRAK

'Non dago Mikel?' dokumentala

Zapatu eta astelehen arratsaldean proiektatuko dute, Amaia antzokian, 19:00etan, "estatu-krimenaren biktima" izan zen Mikel Zabaltzari buruzko pelikula.

'Vitoria 3 de marzo' pelikula

Domeka arratsaldean, 18:30ean, Gasteizko Zaramaga auzoan duela 45 urte jazotakoaren ikus-entzunezko pieza proiektatuko dute gaztetxean.

'Atzerrian lurra garratz' antzezlan

Migrazioari buruz hausnartzeko obra antzeztuko dute domekan Ander Lipusek eta Laura Penagosek, Amaian, 19:00etan hasita.



Lehiaketako kartela. A.E.

Ehun hitzeko ipuinak sortzeko abilezia

Txirritolak antolatzen duen literatura lehiaketa abian da; martxoaren 24ra arte egongo da lanak aurkezteko aukera. Aurten, berritasuna izango da mikroipunen saila: nerabeei eta helduei zuzendutako saila izango da, sintesi ariketa izango dena

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Txirritola euskara elkarteak martxan jarri du, beste behin, literatura lehiaketa. Martxoan zehar lanak sortzeko eta entregatzeko aukera egongo da: horretarako azken eguna martxoaren 24a izango da.

Dagoeneko egin dute eskolan komunikazioa lana; izan ere, eskolako gaztetxoei zuzendutako bi sail ditu lehiaketa: batetik, LHko lehenengo eta bigarren mailako gaztetxoei zuzendutako taldeko ipuinen saila dago; eta, bestetik, LHko hirugarren eta seigarren maila artekoendako banakako ipuinen saila.

"Eskolan bertan lantzen dute gaia eta eskolatik bideratzen dituzte lanak", azaldu du Txirritola euskara elkartearen kide Oihana Amezkuak.

Berritasuna, mikroipunak

Txirritola euskara elkarteak badu esperientzia literatura lehiaketa antolatzen. Hori horrela, aurten berritasunekin

etortzea erabaki dute: mikroipunen saila izango da aurtengo berrikuntza.

Nerabeei eta helduei zuzendutako egongo da sail berria: hain zuzen, 12 eta 18 urte bitartekoaren kategoria eta helduen kategoria bereizi dituzte.

Sintesi gaitasuna, erakargarri

"Aurten, lehenengo aldiz, ipuin ireki bat planteatu baino gehiago, mikroipunen modalitatea zabaldu dugu. Gehienezko hitz kopurua 100ekoa izango da. Erroka izango da; izan ere, sintesi gaitasuna behar da mikroipunak idazteko. Baina uste dugu formatu hau erakargarria izan daitekeela. Izan ere, badu beste freskotasun bat", azaldu

**MIKROIPIUNEN
FORMATUA
ERAKARGARRIA IZAN
DAITEKEELA USTE
DUTE ANTOLATZAILEEK**

du Amezkuak. Horren harira, gaineratu du bestelako ipuinak idazteak bertigoa ematen dionarendako aukera ona izan daitekeela: "100 hitzek ez dute horrenbesteko bertigorik ematen". Parte-hartzea areagotzea da bi kategoria horiek sustatu izanaren helburua.

Sari banaketa

Lanak liburutegian entregatu beharko dira, gutun-azal batean sartuta, eta ezizenarekin sinatuta. Gutun-azal berean sartu behar dira, aparteko orri batean, ezizenari dagokion izena eta kontakturako telefono zenbakia.

Sari banaketa ekitaldia Aste Santu ondoren egingo dutela aurreratu dute: "Aurreikusten dugu ezingo dela betiko moduan egin. Baliteke telematikoki egitzea, nahiz eta gero sari banaketaren momentua bai egingo dugun banan-banan eta aurrez aurre. Hori Aste Santu osterako utziko dugu". Orain, lanak sortzeko garaia da.

Landa-guneetan zer egin arautzeko planak abian dira

Eguenean egindako osoko bilkuran, sei auzotako plan bereziei hasierako onarpena eman zitzaizkien

A.E. ARAMAIO

Otsaileko ohiko osoko bilkuran, auzotako plan bereziei hasiera eman zitzaizkien. Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabola arautuko dituen plan bereziaren hasierako onarpena ematea erabaki zuten joan den egunean, aho batez.

Bere garaian, udalerrri bakoitzeko landa-guneak, hirigintza lege eta arauen arabera, Jaur-laritzak eta Foru Aldundiak zehaztu zituen, eta inbentario baten sartu. Aramaion hamahiru landa-gune zehaztu zituzten:

horietatik bi Oletakoak dira, eta oraingo fasean, hazkuntzagatik, urbano izatera pasako dira.

Legeak agintzen duen moduan, landa-guneetan eraikin berriak egin ahal izateko plan bereziak lantzen hasi zen Udala 2018an, landa-guneetako antolaketa xehakatu jasotzeko. Plan horien lehenengo idazketa 2018an esleitu zen. Orduan, bi faseetan edo multzotan egiteko erabakia hartu zen: sei landa-gune lehenengo fasean eta beste bost bigarrenean. Lehendabizikoa da orain onartu dutena.

Zinema egitarau zabala antolatu dute Martxoaren 8aren harira

Hilabete osorako ekintzak antolatu dituzte Mugimendu Feministak, Itur-zurik, Zineklubak eta Udalak batera

A.E. ARAMAIO

Astelehenean ospatuko den Ema-kumeen Nazioarteko Egunaren harira egitarau zabala prestatu dute. Ekitaldi nagusia asteleheneko manifestazioa izango da: 18:00etan, kultura etxean.

Nabarmentzekoa da zinemak hartuko duen presentzia. Izan ere, *Zineziklofeminista*-ren barruan, hiru film eskainiko dituzte: horietako lehena domekan, martxoaren 7an, eskainiko dute: *Retrato de una mujer*, kultura etxean, 19:00etan. Martxoaren 14an, *Carmen y Lola* filma eskai-

niko dute, kultura etxean, 18:45ean; eta martxoaren 27an, *Papicha* filma, kultura etxean, 19:00etan. Hiru film horiez gain, martitzenean, martxoaren 9an, zine-kafe emanaldia egongo da kultura etxean: 18:00etan, kafea hartuko dute, eta 18:30ean, *La boda de Rosa* filma ikusiko dute.

Martxoaren 13an, *Tuppersex eta ipuin erotikoak* emanaldia eskainiko du Virginia Imazek, 10:30ean; eta martxoaren 18an, *Ama-alu-lur sorgin baten ametsak* antzezlan eskainiko dute, kultura etxean, 19:00etan.

Pintaketak egin dituzte anbulatorioko sarreran

Martitzenetik eguaztenerako gauean egin zituzten pintaketak: Aitor Montes medikuari zuzendutakoak. Herrian zeresana eman du ekintzak, eta asko izan dira medikuaren alde agertu direnak; batez ere, sare sozialetan. Gazte Asanbladak, esaterako, "lekuz kanpo" daudela dio, eta "pintaketak salatu" eta "medikuari babesa" erakutsi dio.



Pintaketak anbulatorioan. GOIENA



Herritar bi, Kilima dendaren aurrealdean ikusgai jarritako arropen begira. MIRARI ALTUBE

Elikagaien postuak ere izango dira ixadebalden

Gaur eta bihar artean, merkealdien azoka egingo du Aretxarte merkatarien elkarteak, musikak girotuta eta sari bereziak eskainita; hamaika postu izango dira oraingoan, eta produktuak norberaren saltokien aurrealdeetan jarriko dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Ixadebalde merkealdien azokak girotuko du herria gaur, egubakoitza -10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara- eta bihar -10:00etatik 13:30era-. 21. aldia izango da, eta aurten ere badaigo berritasunik; esaterako, elikagaiak eskaintzen dituzten saltoki bik bat egin izana.

Hamaika merkatari jarriko dituzte postuak norberaren saltokiaren aurrealdean; hona hemen horiek: Amaia ume denda, Belar Meta, Asensio, Kilima, Hankabeltz, Tak, Titare, Kiloka, Zubia oinetakoak, Haurrak eta Txilarra. Gehienak arropa eta oinetako dendak dira eta udazken eta negu denboraldian sal-

du gabe geratutako jeneroa eskainiko dute: "Kalitate ona, prezio ezin hobekin". Hankabeltzek eta Kilokak, ostera, elikagaiak eskainiko dituzte.

Azokak iraun bitartean kaleak girotzen saiatuko dira: "Ibai Zangituren laguntza izango dugu horretarako; hortaz, giro ona ziurtatuta dago", adierazi du

"Heriotza hor dago, nahiz eta pentsatu gura ez izan"

JUXE ZUAZUA MIKEL CRESPOREN AMA

'Mendian hil, hirian hil' dokumentalean hartu du parte

M.A. ARETXABALETA

Mendian hil, hirian hil ikus-entzunezkoaren emanaldiak arrakasta izan du herrian. Otsaileko lau emanaldietarako sarrerak salgai jarri orduko agortu ziren eta asteburuan beste bi eskainiko dituzte, egubakoitzean eta domekan. Mikel Cresporen familiak parte hartu du filmean. **Aretxabaletarrek egindako harrera zer iruditu zaizu?**

Hunkitu egiten naiz. Lehenengo unetik sentitu genuen herria gurekin zegoela eta Mikelen heriotza asko sentitu zutela.

Dokumentalak izandako harre-
ra horren isla dela esango nuke. **Eta behin dokumentala ikusita, ezer adierazi dizute?**

Ederra dela esan digute askok. Hitz egiten ez den gai bat dela ere aitortu digute, eta filma ikusi ostean zer pentsatua ematen duela; izan ere, heriotza hor dago eta horri buruz ere berba egin behar da.

Dokumentalarekin gustura geratu zara zu zeu?


Nik hiru aldiz ikusi dut: lehenengo, estreinaldian, eta gero, Arrasaten eta Aretxabaletan.



Zuazua, Respumosoko bidean. JUXE ZUAZUA


Eta zenbat eta gehiago ikusi, orduan eta kontu gehiagorekin geratzen naiz. Niretzako opari bat izan da, eta Iñaki Peña zuzendariari ere halaxe esan nion, Mikeli eta neuri aitari egin geniezaiokeen opari eder bat dela.

Zergatik hartuko duzu parte?



SILVIA ALVAREZ
HAURRAK

"Otsaileko azken astean hartu nuen dendaren ardura eta niretzako lehen azoka izango da. Jendea ezagutzeko eta nire produktua eta markak ezagutzera emateko erabaki dut parte hartzea; izan ere, oraindik ez dut jenero askorik, eta negu partean geratutakoa oso gutxi".



TONE TAMAYO
HANKABELTZ

"Saltoki aurrean jarriko ditugu postuak, eta horrek animatu nau, ez dudalako mugitu beharrik. Abenduan egin zen Neguko Azokarekin oso gustura geratu nintzen; hortaz, errepikatzea erabaki dut. Iberikoen paketeak jarriko ditut, bereziki, eta urdaiazpiko osoak, eskaintza onekin".

Aretxarteko kide eta Kilima dendako Meritxell Serratok.

Ohitura duten legez, opariak ere izango dituzte azokara gerturatzen diren bezeroendako. "Gure dendetan gastatzeko bonuak zozketatu izan ditugu, eta aurten ere egongo dira. Horiez gain, beste era bateko saritxoak ere izango ditugu; otarreak, esaterako", dio Serratok.

Eguraldiaren beldur dira merkatariak, baina herritarrek animatu dituzte postuetara gerturatzen: "Moldatuko gara, eta eskaintzek mereziko dute".

Herrian kontsumitza helburu

Urtebete beteko da egunotan pandemia hasi zenetik, eta merkatariak egoerara moldatu behar izan dute. "Herritarren aldetik jaso dugun erantzuna ona izan da, bertan kontsumitu dute, eta, horren eraginez, askok, behintzat, balantze positiboa egin dugu", adierazi du Serratok.

Hain zuzen, herrian kontsumitzearen garrantzia azpimarratu gura dute egunotan, eta, azokan batzuek bakarrik parte hartu arren, komertzio guztiak jarri gura dituzte agerian.

Literatura solasaldiei berrekingo die liburutegiak apirilean

Udal liburutegiak berriro antolatuko ditu gaztelaniazko literatura solasaldiak. Monica Leiva kazetariak gidatuko ditu horiek eta apirilean hasiko dituzte.

Edukiera mugatua izango denez, izena emateko epea dagoeneko zabaldu dute, eta azken eguna martxoaren 12a izango da. Liburutegira jo behar da horretarako -943 08 10 01-, baita argibide gehiago eskatzeko ere.

Hilabetean behin elkartuko dira eta liburuak liburutegiak lortuko dituela jakinarazi dute. Irakurritakoaren gainean solas egitea bada ere kontua; berba egitea ez dela derrigorrezkoa gaineratu dute.

Aldarrikapenak agerian uzteko manifestazioa

Martxoaren 8ko ekitaldi nagusia Herriko Plazatik abiatuko da, 18:00etan, eta ibilbidearen bost gunetan geldialdia egingo dute, hainbat emakume talderen eskaerak agerian uzteko; bukaera plazan izango du, musikak lagun eginda

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Dena aldatu, sistema arrakalatu leloarekin, borroka feminista antikapitalistaren eta antiarrazistaren aldeko deia egingo dute astelehenean, Aretxabaletako Mugimendu Feministak antolatutako manifestazioan. 18:00etan abiatuko da, Herriko Plazatik, eta Udalak ere sartu du egitarauan.

Bost gune, aldarrikapen bana

Ibilbidean zehar bost gune egokituko dituzte: Errekabarren kalean –komentu inguruan–, Jaiki elkartekoek *performacea* egingo dute, eta Auzoko taldeko kideek murala margotu dute Zainduz eraikinaren atzeko partean; Mitarte kalean, Pikarraituz taldeko feministak izango dira; Durana kalean –plaza barrenean–, Saharako emakumeak; eta Herriko Plazan, Erdu feminista taldeko kideak.

Hiru astean jardun dute gertatze lanetan, eta hainbat esalditan jaso dituzte egun horren



Hainbat emakume, Mundu Martxarako gertatutako oihalarekin, otsailaren 20an. M.A.

bueltako aldarrikapenak. Gune bakoitzean eskaera horietako baten berri emango dute.

Ekitaldiari plazan emango diote bukaera, eta esaldiak han ere botako dituzte, musikak lagun eginda.

Zapiak eroateko eskaera

Manifestazioa hiru zutabetan banatuta egingo dute, distantziak zaintze aldera, eta zutabeetako kideak zapiekin lotuta joango dira. Horregatik, koloretako zapi bana eroateko eskatu dute.

"Aldarrikatu egingo ditugu gure eskubideak"

MARAU
SAHARRA

Saharako emakumeek txoko bat izango dute manifestazioak egingo duen ibilbidean.

Zergatik erabaki duzue gune bat izatea?

Munduko gainerako emakumeekin bat egin gura dugu egun berezi horretan. Batetik, gure eskubideak aldarrikatu gura ditugu; indarkeriaren eta arrazismoaren aurka agertu gura dugu, eta, immigranteak garen aldetik, lan baldintza



M.A.

berberak eskatuko ditugu. Eta, bestetik, Saharako zona okupatuetan bizi diren emakumeen eskubideak haizatu gura ditugu, indarkeria egoerak, kartzela-zigorak, esaterako, jasaten dabilzako.

Asko elkartuko zarete?

Aretxabaletan ez gara saharar asko bizi, baina guztiok batuko gara. Saharako eremu okupatuetan ere ospatzen genuen, eta hemen ere bai.

Emakumea eta askatasuna

Martxoaren 8a gogoan lanketa egin dute Kurtzebarri eskolan, *Emakumea eta askatasuna* gaia ardatz hartuta. Artelanak sortu dituzte ikasleek, eta atzo, museo bat egokitu zuten horietan. Astelehenean erakutsiko diete ikasleei bertan, eta gurasoek ere izango dute ezagutzeko aukera. "Eskolako gurasoek eta edozein herritarrek gure erakusketa birtualki ikusi ahal izango dute telefonoen edo beste gailu batzuen bidez", adierazi dute Kurtzebarriko kideek.



Asteleheneko elkarretaratzea. I. BELOKI

Pentsioen igoera eske elkartzen hasi dira

Basotxo erretiratuen batzordeak deituta, elkarretaratzei berrekin diete astean, pentsioen igoera eta gutxienez lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea eskatzeko. Adierazi dute astelehen guztietan elkartuko direla Herriko Plazan, 12:00etan, eta hamabost minutuko egonaldia egingo dutela. Herritarrak ere gonbidatu dituzte aldarrikapenekin bat egitera.

'Matriuska' antzezlan eskainiko du Ttak Teatroak bihar

Martxoaren 8arekin bat egin da Udalak ere protagonismoa eman gura izan die emakumeei hilabete guztian, Arkupen. Eta hasteko, Kamikaz Kolektiboak eta Ttak Teatroak *Matriuska* antzezlaneroango dute Zaraia aretoko oholtzara, bihar, zapatua (19:00). Historiaren parte diren aurreko belaunaldietako emakume guztien gorputzak, izenak eta existentziak berreskuratu behar diren gainera hausnartzeko ikuskizuna izango da.

Ikus-entzunezkoari dagokionez, *Cholitas* dokumentala eskainiko dute hiru egubakoitzetan: 12an, 19an eta 26an. Amerikako menditontorrik garaienetakoa igo zuten Boliviako bost emakume indigenen istorioa jasotzen du horrek.

Eta gaur, egubakoitza, Maria Antonia Ugarte Garai arrasa-tearrak egindako margolanak –olioak, pastelak eta akuarelak– jarriko dituzte ikusgai erakusketaretoan.

AMAIA UME DENDA
BELAR META • ASENSIO • KILIMA
HANKABELTZ • TAK • TITARE
KILOKA • ZUBIA OINETAKOAK
HAURRAK • TXILARRA

Aretxabaletako XXI. merkaldien azoka

IXADEBALDE

MARTXOAK 5
10:00 - 13:00
16:30 - 20:00

MARTXOAK 6
10:00 - 13:30

SARI BEREZIAK

KALE ANIMAZIOA

POSTUAK DENDEN KANPOALDEAN

Logos at the bottom: Udalak, Auzoketako Mugimendua, Auzoketako Mugimendua, Auzoketako Mugimendua.

Buruari eraginez, memoria trebatzen

Olazar Erretiratuen Elkarteko zenbait kidek memoria lantegia izan zuten eguaztenean, Sara Alava gizarte-hezitzailearen eskutik. Urtebete egon dira Olazarkoak ekintza barik, eta aste honetan egindakoarekin "oso pozik" agertu dira bertaratutakoak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Memoria lantegia izan zuten eguaztenean Eskoriatzako Olazar Erretiratuen Elkarteko kideek, Sara Alava gizarte-hezitzailearen eskutik. Urtebetez inongo ekintzarik antolatu gabe egon dira erretiratuak, eta goz zeuden ekintzaren bat noiz antolatuko, eta parte hartzeko. Hori horrela, edukiera neurriak kontuan izanda, eta plaza kopuru mugatua ezarrita, ikasturte osoa iraungo duen memoria lantegiarekin hasi berri dira, kultura etxean.

Especializatutako zerbitzua

Pertsona nagusientzat estimulazio kognitiboan espezializatutako zerbitzua eskaintzen du Sara Alavak. Helduaroan zehar pertsonak burua modu aktiboan eta osasungarrian mantentzen ezaten egiten du lan, eta prebentziozko metodologia lantzen arituko da ikasturte honetan Eskoriatzan. Eguaztenean, lehenengo saioa izan zen, eta, bertaratu ziren herritarrei zenbait azalpen ematez batera, ariketak ere jarri zizkien, jende nagusiarentzat espresuki prestatutakoak, alegia.

Buruari eragitearen garrantzia

Garrantzitsua da adineko pertsonak memoria lantzea, izaten diren aldaketak nabarmenagoak direlako, Sara Alava gizarte-hezitzailearen esanetan: "Adin hauean, fisikoki zenbait gauza egitea gehiago kostatzen zaigu, edo denbora gehiago behar dugu gauzak egiteko. Arlo kognitiboan, berdina gertatzen da. Nahiz eta osasun arazorik ez izan,

ESTIMULAZIO KOGNITIBOAN ESPEZIALIZATUTAKO ZERBITZUA HASI DIRA EMATEN



Sara Alava gizarte-hezitzailea erretiratuekin, memoria lantegian. MAIALEN SANTOS

gehiago kostatzen zaigu hitzak gogoaraztea... Orduan, lantzen badugu, azkarrago aritzen gara, hobeto funtzionatzen dugu; gako buruari eragitea da".

Konfinamenduak ere memoria arazo gehiago sortu dituela azpimarratu gura izan du Alavak; gaineratu du oraingoz saio bakarra egin arren, parte hartuko dutenek nabaritutako dutela ikasturte osoan zehar egingo duten lanketa: "Eskoriatzan, eguaztenean hasi ginen, baina, beste herri batzuetan ari gara saioekin, eta sarri egin dugu berba bizi dugun egoerak guztioi eragin digula. Denok igartzen dugu aldaketa, gure ohiturak aldatu egin dira, harremanak gutxitu, jende berarekin egoten gara, aktibitateak gutxitu egin dira... Denak eragiten du. Orokorrean, jendeak dio norbere burua moteldu egin dela, eta, horri buelta ematen saiatu behar dugu".

Arrakasta duen saioa

Jende nagusiarentzat prestatuta dagoen materiala eramaten dute memoria lantegiko saioetara, eta, ariketak egiten gustura aritzeaz batera, klaseetan

izaten den giroa ezin hobea dela adierazi du. "Harrera ona izaten du memoria lantegiak, edo hori adierazten digute, behintzat, bertara datozenek. Ea zer moduz doan ikasturtea...", esan du Alavak.

Buru ondo mantentzeko



KONTXI OYANGUREN
ERRETIRATUA

Kontxi Oyanguren urtero animatzen da memoria lantegian parte hartzera, eta aurten ere ez du hutsik egin. Lehenengo saioa eginda, "pozik" agertu da: "Oso gustura etortzen gara, eta esan dezakegu erronka bat jartzen diogula geure buruari, zenbakiak, hitzak... ez galtzeko. Gainera, giro oso ona egoten da eta horrek lagundu egiten du".



Mariasun Pagoaga, Jokin Bereziartua eta ikasleak: Zihara Etxeberria eta Eider Urkia. M.A.

Almeneko ikasleek Mariasun Pagoaga elkarrizketatu dute

'Galdegazte'-ko denboraldi berriaren bigarren saiorako elkarrizketa martxoaren 10ean ikusi ahal izango da

I.B. ESKORIATZA

Arizmendi ikastolako Almeneko ikasleek Mariasun Pagoaga Arrasateko aktorea elkarrizketatu zuten *Galdegazte* saioaren zazpigarren denboraldiko bigarren saiorako. Martxoaren 10ean ikusi ahal izango da, 21:30ean eta 23:30ean, Goiena telebistan.

Telebistako lana ezagutzen

Arrasateko aktorea gehiago ezagutzeko aukera izateaz batera, telebista plato bat, errealizazio gela bat eta erredakzio bat ezagutzeko tartea izan dute ikasleek.

Izan ere, ikastetxe bakoitzeko lau ikasle hartzen dute parte saio bakoitzean, modu zuzenean. Horietako bik elkarrizketatzaile lanetan, eta beste bik, saioa nola errealizatzen den zuzenean ikusita. Gainera, ikasleak arduratu dira saioaren produkzioaz, eta bildutako materialarekin elkarrizketa prestatu eta Jokin Bereziartua *Galdegazte*-ko aurkezlea bidelagun izanda egin diote elkarrizketa Pagoagari. Ikus-entzuleek Pagoaga ezagutzeko gain, aktorearen arlo in-timoenaren berri ere izango dute, ikasleen lanari esker.

Odola ateratzeko autobusa Fernando Eskoriatza plazan

Odola emateko autobusa martitzenean izan zen Fernando Eskoriatza plazan, 16:30etik 20:15era bitartean. Hala, 18 eta 65 urte bitarteko eskoriatzarrek odola emateko aukera izan zuten, bete beharreko baldintzak jarraituz. Martxoaren 9an, datorren martitzenean ere aukera izango da odola emateko, ordu eta leku berean.

Odol premiak bere horretan jarraitzen du eta Odol Bankuak azpimarratu du neurriak hartu dituztela, odola emateko edo odola ateratzeko prozesuan parte hartzen duten pertsona guztien osasuna babesteko. Datorren martitzenean ere neurri berberak jarraituko dituzte.

Joskintza-ehungintza saioak martxoko hiru egubakoitzetan

Lourdes Martinez jostunaren gidaritzapean, martxoko hiru egubakoitzetan joskintza-ehungintza eskola magistral saioak izango dira, kultura etxean. 15:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 21:00etara izango dira, martxoaren 9an, datorren martxoaren 5ean, martxoaren 12an eta martxoaren 26an, eta horietan, hauek egiten ikasteko aukera izango da: japoniar poltsa itzulgarria, kortse estiloko gerrikoa, lentzeria-kuleroak, kimonoa, makrame teknika mural txikia eta aro bako bularretako lentzeria. Josteko makina beharko da, makrame teknika egingo den egunean izan ezik. Informazio gehiagorako, 658 75 13 75 zenbakira deitu daiteke.

"Astehenean, lehenengo lerroan egongo naiz"

ELENA HERRERA AUZOKO ESKORIATZA TALDEKO KIDEA

Auzoko Eskoriatzaren saioetatik Eskoriatzan Feminismoa Bizirik Taldearen ekintzetan parte hartzea pasa da. Hala, Martxoaren 8an ere ekintza guztietan egon gura du

Imanol Beloki ESKORIATZA

Elena Herrera mexikarra duela bost hilabete eta erdi iritsi zen Eskoriatzara, eta Auzoko Eskoriatza taldean ari da ordutik hona, euskara ikasten eta herrira integratzeko lanetan. Ez zaio zaila egin, saltsa guztietarako prestutasuna baitu, eta horren adibide garbia da Auzoko Eskoriatzak egiten dituen azken saioetan Eskoriatza Bizirik Feminismo taldeko kideek ere parte hartu dutela, eta Herrera, saioetatik haratago, beselako ekintzetan ere aritu da. **Eskoriatzara iritsi berri, nolako izan da harrera?**

Eskoriatzara iritsi eta bi hilabetera hasi nintzen Auzoko Eskoriatza taldean. Euskara ikasteaz gain, integratzeko modu aparta da, eta norberaren esfortzua ikusten dutenean are eta gehiago gerturaten dira. Horrekin batera, beste hainbat ekintzetan parte hartu dugunez, agurtu egiten naute kalean.

Azken saioetan, Eskoriatzan Feminismoa Bizirik Taldekoen bisita izan duzue. Zertara joan zaizkizue?

Gu ezagutzera etorri ziren, eta, bide batez, Martxoaren 8aren baitan, beraien proiektuaren berri eman ziguten. Kanpotik etorritako guztiok gonbidatu eta animatu gintuzten ekintze-



Elena Herrera. ELENA HERRERA

tan parte hartzea, eta niri interesa piztu zitzaidan. Hala, Auzoko Eskoriatza taldeko saioez gain, zer egiten duten galdetu eta beraiekin integratzen saiatu naiz, edozein kontutan nire aletxoak jartzeko prestutasuna agertuta.

Saioetan egin dituzuen lanketekin batera, hartu duzu parte beste ekintzaren batean?

Bai; otsailaren 20an, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxoarako oihalak egin genituen, eta, Auzokoren saioetan elkartzen garenez gain, herrira integra-

tzeko bide eman dit. Arratsaldean izan zen ekintza nagusia, baina goizetik aritu nintzen beraiekin parte hartzen. Horrekin batera, Huzei Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera ere joan gara Auzoko Eskoriatza taldekoak. Iratxe Arrese dinamizatzaileari eskerrak eman beharrean nago, gure integratzaileak lan handia egiten baitu. Unibertsitatean, esaterako, gure hizkuntzen gainean egin genien berba ikasleei, eta zenbaitek agurtu egin naute kalean, nahiz eta nik ez jakin nortzuk ziren... **Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, astehenean izango da. Lehenengo lerroan egongo zara?**

Bai, noski. Mexikon nengoela hartu nuen parte zenbait manifestaziotan, eta #niunamenos traola erabiliz aktiboa izan naiz sare sozialetan berdintasuna aldarrikatzen. Neure burua ez dut aktibista sutsu bezala sentitzen, baina Eskoriatzan Feminismoa Bizirik Taldekoek astehenean parte hartzeko eskatu didate, eta gogoz nago horretarako. Gainera, Mexikoko egoeraz ere hitz egin diet, berdintasunaz hitz egin dugu, egitasmoan interesatuta nago... Horrenbestez, bertan izango naiz, banderatxo goian jarrita.

'Partxis erraldoia' izango dute haurrek gaur gozagarri

Hiru egubakoitzetan egingo den ekintza izango da; gaur, martxoaren 12an eta martxoaren 26an

I.B. ESKORIATZA

Tortolis ludotekakoek ekintza berezia antolatu dute hiru egubakoitzetan gauzatuko dutena. Hain zuzen ere, hamar metro karratu dituen partxis jokoaren irudi erraldoia dago Intxaur-

txueta auzoko zoruan margotuta, eta, bertako irudia aprobetxatuz, *Partxis erraldoia* izango dute. "Gaur, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailakoen txanda izango da. martxoaren 12an, laugarren mailakoak arituko

dira, eta, martxoaren 26an, aldiz, bosgarren eta seigarren mailakoak. Gaurko eguraldi txarra dago iragarrita, beraz, agian, ludotekan egin beharko dugu ekintza. Hala ere, izena eman dutenek beste egun batean egingo dute. Asmoa, partxis jolaseko fitxak haurrak beraiek izatea da...".

16:45ean hasiko dira jolasarekin, baina aurrez izena eman beharko da. Horretarako, WhatsApp-a bidali daiteke 688 601 374 telefono zenbakira.



Zuhaitzak landatu zituzten unea, ginkanaren ostean. XABI GOROSTIDI

Herriko zuhaitzak jolas bidez ezagutu dituzte gaztetxoek

Bi makatzondo eta bi sagarrondo landatu zituzten, Gurel Guraso Elkarteak antolatutako ginkanaren ostean

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Urteroko hitzordua izan ohi da Zuhaitz Eguna Leintz Gatzagan, eta aurten ere ez du hutsik egin. Joan den zapatuan, zuhaitz landaketa egin zuten, baina, horrekin batera, Gurel Guraso Elkarteak kideek herriko gaztetxoendako ginkana antolatu zuten, Gatzagako zuhaitzak bertatik bertara ezagutzeko asmoz.

Bederatzi puntuko ginkana osatu zuten, asmakizunekin eta erronkekin, eta amaieran, lau zuhaitz berri landatu zituzten Gatzagainen; bi makatzondo eta bi sagarrondo.

Ginkanan, gozatu

Hiru eta lau laguneko taldeetan, hauek izan ziren herriko txokoetan zehar asmakizun bidez landu zituzten zuhaitzak: hurritza, intxaurrondoa, gereziondoa, zipresa, artea, haritza, pagoa, okaran japoniarra, hagina, zumarra eta bananondoa. Mapa bati jarraiki, herriko zuhaitz-tara inguratu eta horietako bakoitzean gutun-azal bat zuten zain, barruan zuhaitzari zegokion asmakizun batekin. Horrekin batera, mapako gunek batetik bestera joan aurretik, erronka bat gainditu behar zuten.

GORA ETA BEHERA



I.B.

Eskola pareko eta inguruko lanak

Eskolako sarrerako eskailerak berritu egin dituzte. Gainera, zorua altxatuta zegoen zenbait tokitan, eta zuloak tapatu egin dituzte, oinezkoen zein ibilgailuen segurtasuna bermatzeko.



Herritar bat, jolasguneen galdeketa esku artean daukela, plazan. MAIDER ARREGI

Nolako jolasguneak izan nahi dituzten aztergai

Antzuolako jolasguneen gaineko parte-hartzea abian da. Martxoaren 17ra arte dute herritarrek aukera Herriko Plazan jarritako mahaian galdeketa bete eta uzteko. Udala, prozesua aztertze, aurrez batu da Landatxoperekin, Idolazekin eta Pausokarekin

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolarrei nolako jolasguneak eduki nahi dituzten eta egun nola ikusten dituzten galdetu die Udalak. Herritarrek iritziak eta ekarpenak Herriko Plazan jarrita dagoen mahaian utzi ditzakete ondorengo egunetan. Orain arte harrera ona izan duela ekimenak azaldu du Beñar-

do Kortabarria alkateak, eta jada 80 bat herritarrek –martitzeneko datua– euren ekarpena egin dutela dio. Aurrez, ordea, Pausoka, Idolaz eta Landatxope herriko eragileekin batu da Udala. "Parte-hartze prozesua nola egin adosteko eta kontrastatzeko herriko eragileekin batu ginen aurrez", azaldu du Beñar-

do Kortabarria Antzuolako alkateak. COVID-19ak eraginda, Udalak ezin izan du ohiko parte-hartze prozesurik egin. Hala, herritarren iritzia jaso eta landutako proposamena berriro eragileekin partekatu du. "Galdeketatik ateratako orokortasunak berriz partekatuko ditugu eragileekin".



Anbulatorio aurreko jolasgunea

Jaurlaritzaren dirulaguntzen baita, Udalak jolasgunea estaltzeko eskaera eginda dauka. "Erantzunaren zain gaude; baina laguntza eskoletan zuzenean dauden guneendako da. Galdetegiaren arabera, ez dago hain garbi parke hori estali beharra dagoenik".

Galdeketa

Guztira, zortzi jolasgune eta aisialdigune ditu egun Antzuolak; eta antzuolarrek gune horien garbitasuna, mantentzea eta egokitasuna baloratzeko aukera dute prozesuaren bitartez. Baina herritarren nahiak jasoko dituen bigarren atal bat ere badu galdeketa. "Askotariko ekarpenak jaso dira orain arte: tiro-lina, paseatzeko gune gehiago izatea, *pumptrack* parke bat eta rokodromoa daude, besteak beste, eskaeren artean", gaineratu du alkateak.

Herriko Plazan jarrita dagoen jolasguneen gaineko galdeketa martxoaren 17ra arte bete dezakete antzuolarrek. Horren ondoren, ondorioak aterako ditu Udalak, eragileekin partekatu, eta denen artean erabakiak hartuko dituzte.

HERRITARREN, LANDATXOPEREN, IDOLAZEN ETA PAUSOKAREN ARTEAN AZTERTUKO DUTE



NIRE USTEZ

ONINTZA LEGORBURU

Egitetik ordaintzera

Telezaborra ikusi zalea naiz. Ikusi nezake euskaldunok behia jeztera bidaltzen gaituen *reality* berria, baita elkarri oihuka hitz egiten dioten Espainiako kateetako saioak ere. Entretanimendu hutsagatik ikusi ohi ditut, gainera, saio hauek. Eta bereziki entretenigarria suertatzen zait Espainiako Estatuko Cuatro kateko *First dates* saioa.

Saioan, elkar ezagutzen ez duten bi pertsona elkartzen dituzte afaltzeko, eta helburua maitasun istorio baten sorrera litzateke. Programa

honen maitasun eredu erromantikoa alde batera utzita, badirudi saio honetara bertaraten direnen profila norberarena baino askoz ere progreagoa dela: mundu guztiak praktikatzeko du polimaitasuna, bisexual zein pansexual gisara identifikatzen dira partaide asko...

Baina bada gauza bat bereziki harritzen nauena: (ia) beti, bikote heterosexualetan, gizonetakoak ordaintzen du afaria. Jada gauditutako kontutzat neukan

paternalismo kiratsa darion ekintza hau. Baina telebista saio honetan, bederen, norma da.

Ezin nezake esan azken hamarkadetan emakumeon eskubideen alde ez denik aurrerapausorik eman. Baina bide asko dugu egiteko.

Esaterako, 2018ko Eustateko datuen arabera, etxeko eta zaintza lanetan, emakumeok gizonen baino ia bi ordu gehiago igarotzen baititugu egunean.

Afariak egitetik ordaintzera igarotzea nahi dugula, alegia!

Zapi moreak astintzeko dei egin du Andramanuelak taldeak

Martxoaren 8rako, Emakumeen Nazioarteko Egunerako, elkarretaratzea eta manifestazioa deitu dituzte

Maidar Arregi ANTZUOLA

Andramanuelak Antzuolako emakume taldeak eta Udaleko Gizarte Zerbitzuek, elkarlanean, elkarretaratzea eta manifestazioa antolatuko dituzte Martxoaren 8rako. Elkarretaratzea astelehenean eguerdiko hamabietan izango da, Herriko Plazan; eta manifestazioa, aldiz, arratsaldeko seietan hasiko da.

"Martxoaren 8an amantalak balkoietan jartzeko proposamena egiten diegu antzuolarrei, eta arratsaldeko manifestaziorako zapi more bat ekartzea ere

eskatzen diegu", azaldu dute Andramanuelak emakume taldeko eragileek.

Martxoaren 13an, zapatuan, Mirari Martiarenaren eta Idoina Torregaraireren eskutik, *Luze edo motz* ikuskizuna izango da ikusgai, arratsaldeko seietan, Torresora aretoan.

Saioak euskara, berdintasuna eta genero ikuspuntua jorratzen ditu, eta askotariko gaiak taularatuko dituzte, hala nola hillekoa, emakumeen masturbazioa eta menopausia; betiere, umoretik landuta.

Atletismoaren haria Antzuolan eten ez dadin

Ekain eta Ibai Larrea anaia bikiak (2002, Antzuola) Espainiako kros txapelketan izan berri dira 20 urtez azpiko kategorian lehiatzen. Han bizitakoa eta pandemiak eraginda eguneroko entrenamendu saioa nola bizi duten kontatu diote GOIENARI

Maidar Arregi ANTZUOLA

Joan den domekan Espainiako kros txapelketa Getafen jokatu ostean, Larrea anaia etxean, Antzuolan jarraitu dute entrenamendu saioekin. Txapelketa azkarra eta intentsua izan zela diote -20 urtez azpiko kategorian-.

Ekain Larreak 14. postua eskuratu zuen, 27 minutu eta 7 segundoko denbora eginda: "Oso ondo nago. Sentsazio onak izan nituen, baina amaiera gogorra egin zitzaidan".

Ibai Larreak ere lasterketaren gogortasuna azpimarratu du: "Ia zortzi kilometroko krosa zen, azkarra eta aldapatsua. Lokatzik ez zegoen, baina gogorra". 40. postua eskuratu zuen, 28 minutu eta 19 segundoko denborarekin. Irabazleak, El Mehdi el Nabaouik, 25 minutu eta 42 segundoko denbora egin zuen.

Pandemia betean egon arren, atleta gazteak oso egoera onean daudela aitortu dute. Izan ere, orain dela aste pare bat Euskadiko txapelketan parte hartu,

eta podiumera igo ziren biak, Enekok urrea eta Ibaik zilarra eskuratuta. "Pandemiak eraginda, oso proba gutxi egon dira, eta lehen krosa Euskadikoa izan zen. Orokorrean, konfinamenduak eragina izan du, eta uste dut atletok ez geundela sasoirik onenean. Batzuk konfinatuta ere bazeuden, eta ez zuten parte hartzerik izan".

Elkarrekin entrenatzen

Etxetik gertu, trenbidean entrenatzen dira: "Zorionez, etxe inguruan entrenatzeko aukera dugu, eta trenbidera joaten gara entrenamendu arruntak egiteko. Entrenamendua indartu gura badugu, Zumarragako pista joaten gara. Entrenamendu ber-

EUSKADIKO KROS TXAPELKETAN URREA ETA ZILARRA JANTZITA, PODIUMERA IGO ZIREN BI ANAIK

dinak egiten ditugu eta bata bestea zuzentzen edo laguntzen saiatzen gara. Alde horretatik, abantaila da". Euskal selekzioko taldekideekin harreman polita dutela adierazi dute, eta oso gustura daudela. Zaletasuna, baina, etxetik dator: "Gurasoek atletismoa egiten zuten gaztetan; Behobian ere parte hartu izan dute. Antzuolako herriak atletismoarekiko zaletasuna betidanik izan du".

Erronka berriak

Ibaik mendi lasterketak egiteari ekingo dio. "Modalitate ezberdina da, korrika gutxiago egiten da eta. Federatuta nago eta aukera dut. Hala, apirilean Sevilara joango naiz; ondoren, Kantabriako eta Miranda de Ebroko probak egin nahi ditut".

Ekain, aldiz, Malagako pista estaliko Espainiako txapelketan izango da asteburuan; maiatzean, berriz, pista irekiko Espainiako txapelketan parte hartzeko prestatuko da.



ZUMAIA ELKORO

Gaztetxoak Arranoaitzen

Gazte txokoak antolatuta, Arranoaitzera irteera egin dute herriko neska-mutikoeak. "Bertako parajeak gertutik ezagutzeko asmoz irteera egitea adostu genuen. Antzuolaren mugakide diren herrietara joateko aukera izanda, Oñati aldera gerturatu, eta Arranoaitzera igo gara, taldean, babes neurriak bermatuta", azaldu du Zumaia Elkor koordinatzaileak.

AKEko futbol talde nagusiak ere liga ekiteari uko egin dio

Gipuzkoako Futbol Federazioak jakinarazi du txapelketari uko egin arren mailari eutsiko diotela

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Kirol Elkarteko talde nagusiak, preferente mailakoak, uko egin dio aurtengo ligan parte hartzeari. "Bizi dugun pandemiak eraginda hartutako erabakia izan da. Osasuna lehenetsi dugu, eta, beraz, lehiaketan parte hartzeari uko egin diogu, adostasunez", argitu du Antzuola Kirol Elkarteko presidente Ibon Gezalagak.

Gazte mailakoek ere ildo beretik uko egin diote txapelketari, eta soilik entrenamenduekin jarraituko dute; ez, ordea, ka-

deteek, eta txapelketa martxoko bigarren asteburuan hasiko dutela aurreratu du klubak.

"Lehiaketak albo batera utzi arren, entrenamenduekin jarraituko dute talde guztiek; bai lehen mailakoak eta baita gaitzakoek ere", gaineratu du AKEko presidentek.

Gipuzkoako Futbol Federazioak aditzera eman du lehiaketan parte hartuko ez duten arren, bai lehen mailako Antzuolako taldeak eta baita gazte mailakoak ere mailari eutsiko diotela datorren denboraldian.



Ibai eta Ekain Larrea anaia bikiak, entrenamendu saioa hasi aurretik, Antzuolan. IBAI LARREA

Herriko haur eskolan izena emateko epea zabalik dago

Haur eskolan izena emateko epea zabalik dago. Egoerak baldintzatuta izen-ematea etengabe irekita dago, eta matrikula egin eta hamar egunera hasteko aukera ere badago. Edozein zantza argitzeko 943 78 60 15 zenbakira deitu dezakete herritarrek, edo antzuela.antzuela@haurreskolak.eus helbide elektronikora mezua idatzi dezakete.

Podologia zerbitzua jasotzeko txanda hartu daiteke gaur

Martxoan podologia zerbitzua jasotzeko aukera izango dute herriko erretiratuek: martxoaren 5ean eta 16an, hain zuzen ere. Egun horietan hurrengo zerbitzurako txanda hartu ahal izango da, 943 76 62 71 telefonora deituta -10:00etatik 12:00etara bitartean-. Osasun neurriei jarraituz, sarrera Torresoroako terrazatik izango da.

Zubi zaharren gaineratik bide berriak eraikitzen

Emakumeen Eguna aldarrikatuko dute Elgetan ere Martxoaren 8an. Elkarretaratzea dago deituta, 19:00etarako, plazan. Bezperan, 'Birritan bortxatua' antzezlana izango da, Espaloian, eta biharamunean, hitzaldia egingo du Carlota Alfarak, liburutegian

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA
Euskal Herriko Emakumeen V. Mundu Martxak Irun eta Hendaia arteko zubian izango du amaiera ekitaldia bihar eguerdian. Hain zuzen ere, *Zubi zaharren gaineratik bide berriak* irakur daiteke ekitaldi horretarako egingako zapietako batean. Deba-goienetik ere hainbat zapi bidali dituzte; adibidez, Elgetakoa, non *Paperak lortzeko behar den lan kontratua eskaini* dioen.

Emakumeen Mundu Martxa amaitu bezain pronto helduko da aurten Martxoaren 8a. Emakumeen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko elkarretaratzea dago deituta astelehenerako Elgetan. Plazan da hitzordua, 19:00etan. Leloa da: *Elkarrekin lanean berdintasunerako*. Pandemia egoerara egokitutako elkarretaratzea izango da, non ohiko babes neurriez gainera distantziak tentuz errespetatu beharko diren.

Herri Eskolan ere badihardute Emakumeen Nazioarteko Egunarekin lotutako lanketa egiten, eta ekintza bereziak izango dituzte Martxoaren 8an.

Carlota Alfaren hitzaldia
Domekako antzerki emanaldiak eta Carlota Alfarak martitzenean liburutegian egingo duen hitzal-



Martxoaren 8ko elkarretaratzea, iaz. L.Z.L.

diak osatzen dute Martxoaren 8rako prestatutako ekintza sorta. Elgetako idazle eta blogariak *Emakume basatia* izenburupean egingo du hitzaldia, 18:30ean.

Alfarak Clarissa Pinkoa Estesen *Mujeres que corren con los lobos* liburuan irakurri zuen lehen aldiz emakume basatiaren teoriari buruz: "Emakume ororen baitan bizi da indar boteretsu bat senak, sormenak eta jakinduriak gidatzen duena". Pinkoak azaltzen du gizarte patriarkalak ahalegin etengabea egin duela indar hori errepre-

Hiru hitzordu nagusi

Martxoak 7, domeka
• 18:00 *Birritan bortxatua* antzezlana, Espaloian.

Martxoak 8, astelehena
• 19:00 Elkarretaratzea.

Martxoak 9, martitzena
• 18:30 Carlota Alfaren hitzaldia, liburutegian.



Birritan bortxatua antzezlana. ALDATZEN LAGUNTZEN ANTZERKI TALDEA

'Birritan bortxatua' antzezlana

Aldatzen Laguntzen antzerki taldeak *Birritan bortxatua* antzezlana egingo du domekan, Espaloian. Nagore du izena antzezlanean protagonistak eta 44 urte ditu. Bortxatua izan zen herriko festetan, duela hiru urte. Mutil ezezagun bat izan zen. Nagorek denbora behar izan du beldurra gaintzeko, baina salaketa jartzea erabaki du. Orduan hasi da biktimaren bigarren amesgaiztoa. Epaietan zehar bizitakoak eta sufrimendukoak kontatzen ditu antzezlanean, baita gizartearen partetik jasotako epaia ere. Fikziozko antzezlanean honek errealitatean gertatutako hainbat bortxaketatan du oinarria.

Martxoaren 8ko ekintzen bueltan antolatuta emanaldia Udalak. Sarrera doan da, baina, eserleku kopurua mugatua izanik, erreserba egitea gomendatu dute. Udal webgunean egin daiteke. Emanaldia 18:00etan da.

mitzeko zein makurtzeko, eta emakumeak rol zurruntara mugatzeko. "Milaka urte darabagu sexu ahula entzuten eta geure burua zerbitzari gisa ulertzen. Ondorioz, gure baitan sinistuta gaude emakumeen dohainak bigarren mailakoak direla, eta modu horretan ez da erraza gizartearen aurka igeri egitea", gaineratzen du Alfarak *caortega.com* blogean emakume basatiari eskainia dion atalean. "Horregatik, akaso, beren alde maskulinoa sustatzeko ahalegin bizi dira ezagutzen ditudan

emakume gehienak", gehitzen du hizlariak.

Emakume basatiaren teoriaren inguruan arituko da Alfaro hitzaldian. Lekua mugatua dela eta beharrezkoa da aurrez izena ematea, *labur.eus/mujersalvaje* estekaren bitartez.

CARLOTA ALFARO EMAKUME BASATIAREN GAINEKO TEORIAZ ARITUKO DA MARTITZENEAN

Zaldibar Argitu plataformak martxak antolatu ditu Eitzagara

Zabortegea amildu zela hamahiru hilabete dira bihar, eta elgetar talde bat 11:30ean irtengo da plazatik, oinez

L.Z.L. ELGETA

Bihar beteko dira hamahiru hilabete Zaldibarko zabortegea amildu zela. Zaldibar Argitu plataformak ekitaldia deitu du Eitzagan, 12:30erako, eta hainbat martxa egingo dira haraino.

Elgetatik abiatuko den herri-tar taldea 11:30ean irtengo da plazatik, eta joan-etorria oinez egingo du.

Beste hiru martxak Eibartik, Ermutik eta Zaldibartik irtengo dira. Amildutako zabortege au-

rrean elkartuko dira guztiak eta 12:30ean ekitaldia egingo dute, 394 egun. *Joaquin eta Alberto gogoan. Argitu arte jarraituko dugu* lelopean. Bi hildakoen herrietan -Zalla eta Markina- elkarretaratzeak egingo dituzte egun berean.

Zabortegean gertatutakoa eta Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze langileak gogora ekartzeko antolatu ditu ekintzok Zaldibar Argitu plataformak. Horrekin batera erantzukizunak eskatzeko.

Erretiratuendako kakorraz eta puntu saioak eguaztenetan

Xalbadorpe erretiratuen elkar-teak antolatuta, ordu eta erdiko saioak egiten dituzte eguaztenetan. Kakorraz eta puntu eskulanak egiten dituzte eta Olga Fernandezek eta Ana Royuelak gidatzen dute ekimena. Lauzpa-bost lagun elkartzen direla azaldu du Fernandezek. "Pandemia dela-eta erretiratu asko inora irten barik daude. Egoerak ez

du batere laguntzen, eta horregatik jarri genuen ekimena martxan". Fernandezek gogorazten du aukera zabalik dagoela, eta beste lau zpa-bost plaza libre daudela. Interesatuak deitu besterik ez dute: 667 80 70 06.

Saioak 17:00etatik 18:30era egiten dituzte. Olga Fernandezek azaldu du jende gehiago animatzen ez bada aldi baterako eten egingo dutela ekimena. Horregatik animatzen dituzte Elgetako erretiratuak izena ematera eta parte hartzera.

MARTXOAREN 8A

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



Ezkerretik eskumara, askotariko zaintza lanetan diharduten Karmele Loiti, Elvira Gordillo, Itxaso Elkorobarrutia eta Ana Nogueiras. JONE OLABARRIA

Zaintza lanei balioa emateko lanean

Berdintasuna aldarrikatu, arduraz • Zapi moreak Irunera • Luciana Alfarori elkarrizketa



Inoiz baino garrantzitsuagoa

**ZURE KONFIANTZAKO
GARBIKETA ENPRESA**

Elkarrekin berdintasunerantz!

Hemen
garbiketak

Intxaurtxueta 16, behea
ESKORIATZA
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

Arduratik egindako deia, arduraz jokatzeko asmoz

Ezohiko deialdia da aurtengo Martxoaren 8koa. Osasun egoerak baldintzatu arren, kalera irten eta "sistema arrakalatea" eskatu du Euskal Herriko mugimendu feministak. Deialdiarekin bat eginda, Debagoienean ere deitu dituzte mobilizazioak

Jone Olabarria ARRASATE

Dena aldatu, sistema arrakalatu lelopean kalera aterako da martxoaren 8an Euskal Herriko mugimendu feminista. Emakumeen Nazioarteko Eguneko mobilizazioak "inoiz baino beharrezkoago" direla iritzita, sistemari arrakalak sortzeko konpromisoa hartu du mugimendu feministak: "Osasun prebentziarako neurriek zein mugikortasun mugek ohikoak ditugun mobilizazio erak zailtzen dizkigute, baina kaleak salaketarako espazio izateko modua bilatuko dugu. Dagokigun arduraz jokatu, datorren Martxoaren 8an kaleak eta pla-



lazko Bergarako mobilizazioa. GOIENA

zak hartzera animatzen ditugu emakumeak, trans eta bollerak".

Zaintzak, erdigunera

Emakundek "zaintzak ikustarazteko, baloratzeko eta gizarte osoaren artean banatzeko" dei egin du aurtengoa, "ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lanak aitortzeko eta baloratzeko".

Osasun egoerak baldintzatu, polemika sortu da aurtengoa mobilizazioak direla eta. Eusko Jaurlaritzatik "elkarretaratze jendetsuak egiteko unea ez dela" adierazi dute, baina Mugimendu Feministatik "arduraz jokatzeko" deia eginda, kalera irtengo direla ziurtatu dute.

Bailako deialdiak, herri

Itaia emakume sozialisten antolakundeak ere deialdia egin du Martxoaren 8rako. *Emakume langileen interesen defentsan lege burgesa borrokatu* lelopean, "emakume langileen eguneroko miseria" lehen lerrora ekarri eta emakume langileen interesak oinarri izango dituen proposamenak garatzeko dei egin dute: "Lanean jarraitu behar dugu emakume langileen arteko elkartasuna eraikitzeko, gure bizi eta lan baldintzak hobetzeko, eta horretarako gaitasun politikoak garatu eta horiek antolakuntza komunistaren baitan txertatzeko".

Hala, Deba bailarako Itaia taldeak mobilizazioa deitu du astelehenerako, Bergarako epaitegi aurrean, 18:00etan. Era berean, Debagoieneko herri gehienetan deitu dute elkarretaratzea herrietako mugimendu feministetako ordezkariak. 18:00etan egingo dituzte mobilizazioak Aramaion, Leintz Gatzagan, Aretxabaletan eta Antzuolan, 18:30ean Bergara eta Eskoriatzan eta 19:00etarako deitu dituzte Oñatin, Elgetan eta Arrasaten.

'Salda badago' liburua, hilaren 18an Arrasaten

2019ko azaroaren 1ean, 2an eta 3an ospatutako Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan eztabaidatutako gaiak batzen dituen *Salda badago* liburua otsailaren 15en aurkeztu zuten, eta ordutik hona Euskal Herriko txoko ezberdinetan ari dira aurkezpenak egiten. Hala, martxoaren 18an iritsiko da bailarara; Arrasatera, hain zuzen ere. Kulturaren egingo dute aurkezpena, 19:00etan.

Proiektua Salda Badago lantaldeak eta Emagin ikerketa eta formakuntza feministarako elkarteak elkarlanean egin dute. Jardunaldietan jasotako eduki politikoez gain, prozesuan egindako urratsak ere batzen ditu.

MARTXOAK 8

INOR KANPOAN GERATU EZ DADIN

FEMINISMOA AURRERAI

emakume txokoa
ARRASATEKO UDALA
Arrasateko Udala

MARTXOAREN 8KO EGITARAUA · 2021

MARTXOAREN 8KO KARTELEN ERAKUSKETA

Martxoaren 2tik 15era, Emakume Txokoen.

MARTXOAK 5

Belen Nevadoren eskutik "Itolarriak" antzerkia. Irtsi da iraultza hormonalak, boterea eta pasio kubatarra....

Ostiralean, 19:00etan, Kulturateko Areta Nagusian, gaztelaniaz.

MARTXOAK 6

Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxoak amaierako ekitaldia antolatuta du "Zubi guztien gainetik. Mugarik ez, Transnazionalik ez" lelopean.

Artetikinza feminista egingo dute, kolektibo feminista, migratu eta arrazializatuen parte hartzearekin.

Larunbatean, 12:30etik 15:40ra. Irún-Hendala muga.

MARTXOAK 8

Arrasateko Mugimendu Feministak deituta, 19:00etan, Seber Aluben.

Arrasateko "neska gazteek deituta, elkarretaratzea: 10:30ean Gaztelupen eta 11:00etan Arrasateko Institutuan.

MARTXOAK 11

"Romipen, emakume ijitoak berdintasunerako bidean" dokumentalaren aurkezpena eta ostean solasaldia egile eta protagonistenekin.

Ostegunean, 19:00etan Kulturateko Areta Nagusian, gaztelaniaz.

MARTXOAK 18

Salda badago. Euskal Herriko V. jardunaldi feministen liburua aurkezpena.

Ostegunean, 19:00etan, Kulturateko Areta Nagusian, euskaraz.

MARTXOAK 25

Zinegoak hedapena-film laburren emanaldia.

Ostegunean, 19:00etan, Kulturateko Areta Nagusian, euskaraz eta gaztelaniaz.

Hausnarketarako jarduerak, bailaran ere bai

Debagoieneko herrietan egitarau oparoa antolatu dute Martxoaren 8rako: musika, hitzaldiak eta erakusketak izango dira protagonista nagusi

Jone Olabarria ARRASATE

Emakumeen Nazioarteko Egunerako deitutako elkarretaratze eta mobilizazioez harago, bailarako herrietan egitarau oparoa prestatu dute aurtengo M8rako. Hainbat herritan hasiak dira dagoeneko jarduerak egiten; horren adibide da Antzuolan joan den zapatuan eskainitako lodifobiari buruzko hitzaldia.

Asteburuan ere jarduera ugari prestatu dituzte herrietan, Martxoaren 8ko egitarauaren baitan. Domekan, esaterako, emakume artisauen azoka egingo dute Oñatin. Zapatuan, Neomak taldearen kontzertua izango da Eskoriatzan, 19:00etan; gaztetxotan hasita, trikiti txapelketetan aurkari nahiz bikote gisan plazara salto egin eta gerora, Kepa Junkera eta Sorginak-en ibiliak dira talde horretako kideak.



KONTSUMOA ETA INDARKERIA

Irantzu Varela kazetari eta aktibista feministak umore garratzetik aztertuko ditu kontsumoarekin eta indarkeria matxistarekin lotutako hainbat alderdi. *No hay matriarcado ni en el supermercado* izeneko bakarrizketaren bidez, eta Setem Hego Haizeak-ek eginiko kontsumoen biolentzia ikerketen ondorio diren beste hainbat gai aztertuko ditu. Eguaztenean izan zen Oñatin, eta gaur, 19:00etan, Eskoriatzan, Zaldibar antzokian.



M8KO KARTELEN ERAKUSKETA

Aurkeztutako hogeitaz lanen artean, Helena Azkarragaurizar Jauregiaren *Ate Gorria* lana izan da aurtengo onena, eta, hortaz, berea da Martxoaren 8ko kartelaren irudia, baita *Inor kanpoan geratu ez dadin* lelopean egitaraua zabaltzeko erabili den eskuorriaren irudia. Lehiaketara aurkeztutako kartel guztiak ikusgai daude dagoeneko erakusketan. Martxoaren 15era arte egongo da Emakume Txokoan.



'30 EMAKUME AHAZTEZIN'

Erakusketa atzo zabaldu zuten, Bergarako Laboratorium Museoan, emakume ezezagunen figura berreskuratu eta nabarmentzeko asmoarekin. Elena Ciordia margolariaren akuarela-erretiratuek hainbat diziplinatan nabarmendu ziren emakumeak islatzen dituzte, hala nola idazketa, bertsolaritza, argazkilaritza... Erakusketa ibiltaria Emakunderen ekimena da, eta izenburu bera duen liburuak osatzen du.



LILATOIA, AURTEN 'APP' BIDEZ

Osasun egoera ikusita, bere burua berrasmatu behar izan du Lilatoiak ere aurtun. Munduko edozein tokitatik korrika egiteko aukera egongo da, baita oinez, patinetan edo *handbike*-an egitekoa. Aurretik, *app*-a deskargatu behar da, eta sailkapen ofiziala lortu. Hilaren 5etik 8ra egin ahalko da, bakarka zein taldeetan. Oinezko modalitatean 9 urtetik aurrera har daiteke parte; gainerakoetan, 14 urtetik aurrera.



Berdinetik, berdinera
geuri ere badagokigulako

FAGOR 
FAGOR TALDEA

Zaintza lanak, erdigunean: funtsezko izanda ere, ikusezin sentitzen dira

Zaintza lanak bistartzeko asmotan, etxez etxeko zerbitzuan, jangelako zaintzan, garbiketan eta adinekoen egoitzan lan egiten duten lau profesionalak euren testigantzak eskaini dituzte. Sektore feminizatua dela azaldu, eta zaintza lanen profesionaltasuna defendatu dute

Jone Olabarria ARRASATE

Jaiotzatik hil arte beharrezkoak dira zaintza lanak. Sektorea, orokorrean, "guztiz" feminizatutako arloa dela salatu dute Karmele Loiti, Ana Nogueiras, Elvira Gordillo eta Itsaso Elkorobarrutia langileek. Etxez etxeko zerbitzuan, adinekoen egoitzan jangelako zaintzan eta garbiketara lanetan aritzen diren emakumeak dira; laurak bat datoz, profesionalak dira eta lan hori ere profesionaltasunez egiten dute: "Formakuntza jaso dugu, lan hau egiteko gai egiten gaituena".

Historikoki zaintza lanak "emakumeen arduratzat" hartu izan direla salatu dute, "emakume jaio izangatik soilik. Asko daukagu profesional bezala gizaritari erakusteko, ateak zabaldu eta etxean geratzen den lana kalera irteteko".

"Aitortzarik gabeko lana"

Pandemiak, hein batean, lanaren garrantzia bistaratu duela uste dute, baina gizaritearen partetik eta apurka bada ere gero eta aitortuago daude arren, erakunde partetik "inplikazio falta" eta "utzi-

keria" salatu dute: "Gure lana oraindik urrun dago baldintza duinak izatetik, hitzarmen on batekin".

Etorkizunerako, "giltzarri"

Zaintza lanek etorkizunean egin-kizun "garrantzitsua" izango dutela uste dute: "Bizitzaren zaintza egiten dugu, denok behar dugun lan bat. Etorkizuneko ongizatea bermatzeko beharrezkoa da lan hau". Era berean, baldintzak hobetzeko, zaintza lanen publikazioa ezinbestekoa dela uste dute.



KARMELE LOITI

ARRASATEKO ETXEZ ETXEKO LANGILEA

"Antzinako roletatik datoz lan baldintza txarrak zaintzan"

Zaintza lanak etxetik kalera irteteak, lan kotizatu bilakatzeak, "lanaren prekarietatea" azaleratu egin duela azaldu du Karmele Loitik: "Oraindik ez da emakumea eta zaintza lanak lotzen dituen antzinako ideia baztertu, rol horretatik datoz ere lan baldintza txarrak, prekarietatea...". Ohiko lan jardunekin alderatuta, partzialitate handiko lana dela zehaztu du: "Hemen ez zara lanera sartzen, zure zortzi ordu egin eta bukatuta. Oso partziala da; goizean joaten zara pertsona jaikitza, gero, bazkaltzen ematera, garbiketarako egitera, eta iluntzean, oheratzen laguntzera, esaterako". Etxez etxeko zaintza etorkizunean "erabakigarria" izango dela uste du, "bizi kalitatea bermatzen duelako".

MARTXOAK 8

BERGARA
izan, biz, ekin

BERGARAKO BERDINTASUN KONTSEILUA

SEMINARIOAN

MARTXOAK 5 ETA 7, 18:30EAN
MARTXOAK 8, 19:00ETAN
ZINEA: "MARIE CURIE"

MARTXOAK 6, 19:00ETAN
ANTZEZLANA: "YO NUNCA"

MARTXOAK 10, 18:30EAN
ZINEKLUBA: "NEVER RARELY
SOMETIMES ALWAYS"

MARTXOAK 12, 19:00ETAN
KONTZERTUA: "THE MOOD RINGS"
(INFOA: WWW.SEMINARIOA.EUS)

MARTXOAK 8
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
12:00ETAN
DUNTASUNA TALDEAREN
KONTZENTRAZIOA UDALETXE
AURREAN
EMAKUMEEK EGINDAKO LANAK
IKUSARAZTEKO ERAKUSKETAK

MARTXOAREN 4TIK
MAIATZAREN 30ERA
(LABORATORIUMEN)
30 EMAKUME AHATZEZIN
(INFOA: LABORATORIUM - 943767844)

MARTXOAREN 5ETIK 21ERA
(AROTZEGIN)
HERRIKO EMAKUME ARTISTAK:
EDERTASUNA EMAKUMEAREN BI
IKUSPUNTUETATIK

emun

Euskara eta
berrikuntza soziala

euskara eta berrikuntza sozialaren bidegurutzetean **aholkulariak** gara

euskara · genero berdintasuna · gobernantza · gizarte erantzukizuna · berrikuntza plataformak www.emun.eus



ANA NOGUEIRAS CADAVID
JANGELAKO ZAINZAILEA ETA GARBITZAILEA

"Ez da soilik eskolako patioan egotea, balioak lantzen dira"

2007an hasi zen jangeletako zaintzan lanean Ana Nogueiras arrasatearra. Bi ordu eta erdiko lan hori etxeetako garbiketa lanarekin konbinatzen du, egunero bost orduko jardunarekin. Garbitzaile lana "fisikoa eta oso gogorra" dela aitortu du Nogueirasek, eta bi kolektiboen partetik egiten duten lana aldarrikatu du: "Hemen gaude, lan handia egiten dugu, ez da soilik patioan egotea, balio asko landu behar ditugu haurrekin". Orain dela gutxi arte "behe mailako" langiletzat hartu izan direla azaldu du, pandemiak "apur bat" bistaratu dituela uste duen arren: "Orain dela gutxi, eskolako ikasle baten ama eskertuta etorri zen, bere alabak hobeto jaten zuela, autoestimua handiagoa zuela..."



ELVIRA GORDILLO
ESKORIATZAKO JOSE ARANA EGOITZAKO LANGILEA

"Ez da lan bezala hartu, gure betebeharra zela uste izan da"

Zaintza "emakumeen lana" den ideia oraindik ere gizartean oso barneratua dagoela salatu du Elvira Gordillok: "Ez da lan bezala hartu, emakumeon betebeharra dela uste izan da". Erizain laguntzailea da Eskoriatzako adinekoen egoitzan: "Fisikoki eta psikologikoki gogorra da; jendearekin egiten duzu lan, eta bere pozak baina baita arazoak ere eramaten dituzu". Egoitzako langileen artean bi baino ez dira gizonezkoak, nahiz eta dioen lan baldintzei dagokionez ez dagoela ezberdintasunik. Zaintza lanek publikoak izan behar dutela zehaztu du Gordillok: "Esentzialak izanda, ikusezin sentitzen gara. Ez gabilta merezi ez dugun ezer eskatzen: lan baldintza duinak, zerbitzu hobea emateko".



ITSASO ELKOROBARRUTIA
ARETXABAILETA ETA ESKORIATZAKO ETXEZ ETXEKO LANGILEA

"Egoera hobetzeko, etengabe borrokan egon beharra dugu"

Hiru etxetan egiten du lan Itsaso Elkorobarrutiak, pertsonen zaintzan eta horiek dituzten beharrei erantzuna emanda. Hogei urte daramatza lanean, eta zaintza ez dagoela aitortua zehaztu du: "Zerbitzu esentziala garelako diote, baina hori ez dago inon ere ez aitortuta: "Egoera hobetzeko, etengabe borrokan egon behar izaten dugu". Adineko pertsonak eta langileak "merkantilizatzea" ezin dela onartu azaldu du, eta erakundeen partetik zaintza lanekiko utzikeria salatu: "Sektore guztia pribatizatzen ari dira. Eraikuntza arloko enpresa handiak sartu dira sektorea kontrolatzera, negozioa ikusi dutelako. Hori ezin da onartu; lan baldintzak hobetuz zerbitzua ere hobetuko da erabiltzaileendako".

MARTXOAK 8

*Jabetzen Eraikitzen Sortzen
Ekiten Iraultzen*



Gizartearekin bat berdintasunerako bidea egiten...

ERREKA

erreka.com



ERREKA SARBIDE AUTOMATIKOAK | FINKAPEN SOLUZIOAK | PLASTIKOAK



Mundu Martxan parte hartu zuten Aretxabaletako emakumeak. GOIENA

Bailarako zapiak bihar utziko dituzte Irunen

Otsailaren 20an pasa zen Emakumeen Mundu Martxa bailaratik. Emakume arrazializatuen gaia bistaratzea eta lantzea izan du aurten helburu ekimenak; Euskal Herri osoan egindako 72 zapi batu dituzte dagoeneko Mundu Martxako kideek

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE
Bailarako feministek, otsailaren 20an, herriz herri eta zubiz zubi eraiki zuten katea. Ekimena Euskal Herriko Mundu Martxaren barruan egin zen, eta helburua feminismoa eta arrazakeria oinarri hartuta mugak eta transnazionalak salatzea izan zen. Herrietan egindako zapiak jaso zituzten orduan; bihar, aldiz, zapi horiek Irunera eramango dituzte, Hendaiaetik joango diren manifestariei emateko.

Ekimeneko antolatzaile Luciana Alfarok azaldu du pozik daudela erantzunarekin: "Bizi dugun krisi egoera honetan horrelako erantzuna izatea positiboa da".

Arrazakeria bistaratzea helburu
Mundu Martxak, aurten, migrazioaren kudeaketa, transnazionalak eta mugak izan ditu oinarri, eta horiei heldu die. Hala, herrietan sortutako zapietan feminismoaren eta antiarrazakeriaren gaineko leloak irakurri ahal izan dira.

Borroka horren inguruan berba egitea eta borroka hori bistaratzearen garrantzia azaldu

dute antolatzaileek. Izan ere, etxeko langile tituluaren azpian daudenak barne-langileak direla diote, eta horiek migratzaileak izaten direla. Aldiz, etxeko lanak orduka egiten dituzten pertsonak autoktonoak direla.

Hain zuzen, *Paperak lortzeko behar den lan kontratua eskaini, Zure etxe hutsa alokatu pertsona migratzaileei, Zure etxea errolatzeko eskaini behar duenari, Gure etxeko langileei kontratu duinak, Paperekin edo paper gabe pertsona bat naiz zu bezala* dioten zapiak idatzi dituzte bailarako elkarte feministek.

Amaiera, Irunen

Bihar, martxoak 6, zapatua, Irunen egingo duten manifestazioarekin amaituko dute Mundu Martxa. Hego Euskal Herrian jasotako 72 zapiak eramango dituzte hara: "Santiago zubiaren eta etorbidearen artean egingo dugu ibilbidea eta ordu eta erdi inguru irauango du". 11:00etan hasiko dute ibilaldia, eta ordu berean Hendaian manifestazioa hasiko dute. 72 zapiak emango dizkiete Hendaiaetik joango diren manifestariei.

24/7 24 ORDUKO ZERBITZUA

GSM LARRIALDI TELEFONO INSTALAZIOA ETA KUOTAN TELEFONO LINEA BARNE

LED ARGIEKIN ETA EFIZIENTZIA ENERGETIKOA



igogailuak | ascensores

PIEZAK BARNE

INDUSTRIAKO IKUSKAPENAK ANTOLATU ETA ATENTZIOA EMATEA

ESKULANA ETA JOAN-ETORRI GUZTIAK



Euskal Herria hobetzeko prest?
Bertakan emakumezkoen kirola, gubdengoa, egokitua eta inklusiozkoa babesten dugu, elkarrekin Euskal Herri hobea erokituzko.

OROTARIKO ZERBITZUA
100 €-tik / hileko
Arrunta 70€-tik / hileko

info@bertako.eus

Garaia Berrikuntza Gunea
20.500 Arrasate
943 903 450

www.bertako.eus

Parekidetasunaren alde



ARRASATE

"Sistemak egiturazko beste arazo batzuk ditu"

LUCIANA ALFARO FEMINISTA

Mugimendu feministak dituen erronken gainean berba egin du Luciana Alfaro, eta bailarako herrietan egingo diren manifestazioetan parte hartzera deitu du

A.E. BERGARA

Luciana Alfaro bergararra Martxanterak talde feministako kide da, eta baita Euskal Herriko Emakume Migratuen eta Arrazializatuen sareko kide ere. Martxoaren 8an kalera irtetearen garrantziaz jardun du.

Zer aldarrikatuko duzue Martxoaren 8an?

Urriaz geroztik, Euskal Herriko sare feministak landu duen leloa izan da *Dena aldatu, sistema arrakalatu*. Erdigunean jarri nahi dugu zaintzaren gaia; dena dela, gai horren inguruan pandemia hasieran hasi ginen lanean. Izan ere, pandemia honek hainbat arazo utzi ditu agerian:



Luciana Alfaro. GOIENA

migratzaileen zaurgarritasuna agerian geratu da; baita etxerik gabekoena ere; eta, azkenik, baita gutxieneko pentsioa baino txikiagoa jasotzen duten nagusien egoera ere. Gure nahia da kolektibo horien guztien egoera bistaratzea. Ez da bakarrik sistema maskulinoaren aurka egitea; izan ere, sistema horren atzean egiturazko beste arazo batzuk daude: adibidez, arrazakeria eta klase egoera. Horiek dira Martxoaren 8ari begira ditugun aldarrikapenak.

Eskutik doaz arrazakeriaren kontrako mugimendua eta feminismoa?

Emakumeen Mundu Martxak Euskal Herriko mugimendu feministari egindako aldarrikapenarekin bat egin nahi dut. Arrazakeriaren aurkako borroka borroka feminista ere izan behar du. Horrek esan nahi du kalera irtengo garela zapalkuntza dakarren dominazio horri aurre egiteko; izan ere, sistema horien eraginez bizitza batzuk eten egin daitezke.

Gaur egun, zeintzuk dira mugimendu feministaren erronkak?

Aipatutako gai horiek zabal landu behar ditugu. Gure nahia

da mugimendu feminista erakitzea; baina mugimendu hori izan dadila, era berean, arrazakeriaren aurkakoa, kapitalismoaren aurkakoa eta kolonialismoaren aurkakoa. Mugimenduaren erronka hortik doa: sistema horiek guztiak lantzeko gai izan behar dugu. Izan ere, dena uztartuta dago.

Eudelek zaintzaileengan jarri du aurten fokua.

Bai, kontuan hartu behar dugu zaintzaile lanean diharduten asko etxeko langile daudela; eta nabarmendu behar da ez dela gauza bera. Langile soziosanitario izateko ikastaroa exijitzen zaie, eta gero, etxeko langile moduan izan.

Egoerak egoera, kalera irteteko aldarria egingo duzue.

Bai; herri bakoitzeko mugimendu feministak antolatutako manifestazioetan parte hartzea. Kalera irten daiteke, eta aldarrikatu daiteke. Ondo baino hobeto dakigu zer den elkar zaintzea, eta ikusi da manifestazioetan ez dela kutsatzen. Distantziak gordeta eta maskararekin, aldarrikapenekin bat egiteko dei egiten dut.

Emakume eta gizonetzkoen arteko parekidetasunaren alde

Bergara • México • Group

Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA
ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!

Gizartearekin bat berdintasunerantz!

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

goiena”

Ikasturtea martxa onean doa Musika Gelan

Pandemia egoerara egokitzea ez da lan makala izan, baina pozik da Lorea Larrañaga irakaslea eta baita ikasleak ere. Ikasturte hasieran ziurgabetasun maila handia zegoen, baina, birusak baimenduta, musika bere bidea egiten ari da Elgetan

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Zailtasunak zailtasun, gustura dihardu Lorea Larrañagak. Gainerako jarduera guztietan moduan, pandemia egoerara egokitutako neurriak hartu behar izan zituzten ikasturte hasieran, baina aurrez aurreko eskolei eusteko moduan izan dira orain arte, eta garrantzitsua da hori, irakaslearen hitzetan. Saioak berrantolatu egin behar izan ditu, eskolako bizikidetzat talde iraunkorrak mantenduz egiten ditu taldekako eskolak eta, Udalak horrela eskatuta, berrantolatu egin behar izan zuen jarduera. "Egunean taldekako saio bakarra egiten dugu. Hala, arratsalde berean talde bakar batek erabiltzen du gela. Horrek aldaketak ekarri ditu antolaketan; astean ordu erdiko bi saio egin beharrean ordubeteko saio bakarra egiten du talde bakoitzak". Bestelako neurriak ere hartu dituzte: "Leihoak zabaltzen ditugu, sarreran tenperatura hartzen dugu, gela ematen dugu eskuetan, aldaketetan desinfektatu egiten ditugu pianoa, mahaia, aulkiak... Gauza asko dira, baina lortzen ari gara eskolak ganoraz ematea", dio.

Iazko ikasturte amaiera gogoan du Larrañagak. "Azkeneko, kaosa izan zen. Hasieran, esko-



Lorea Larrañaga, musika hizkuntzako ikasleekin, martitzenean. L.Z.L.

AURREZ AURREKO ESKOLEI EUSTEKO MODUAN IZAN DIRA ORAIN ARTE MUSIKA GELAN

la telematikoak nobedadea ziren eta oso pozik hasi ginen denok, formal eta puntual. Baina, denborarekin, umeak aspertzen joan ziren, konexio arazoak zeuden, entzuten zuenak ez zuten ikusten, edo alderantziz... Zaila izan zen

azkeneko. Aurten, hiruzpalau ikasle egon dira konfinatuta, eta online aritu gara, baina beste gauza bat da".

Alde batera utzitakoak

Helduen abesbatza, umeen abesbatza, jendaurreko emanaldiak... Oraingo, halakoak alde batera utzita daude, ezinbestean. "Mezako kantak entseatzeko ditugu, justu-justu, elizkizuna hasi baino ordu laurden lehenago. Ikasturte amaierako emanaldia egitea ere zail ikusten dut aurten. Ea bideo bat egiten dugun".



Sentsibilizazio kanpainaren jardueretako bat, Arrasaten. IMANOL SORIANO

Edukiontzi horira botatzekoak ondo bereizteko ekintza bihar

Mankomunitateak mahaia jarriko du plazan, jolasaren bidez sentsibilizatzeko eta eskuliburuak banatzeko

L.Z.L. ELGETA

Antzuolan, Arrasaten, Aretxabaletan eta Bergaran egon ostean, Elgetara iritsiko da bihar Debagoieneko Mankomunitatearen *Ondo bereiztua, asko aurreztua* kanpaina. Hondakinen kudeaketarekin lotura duen sentsibilizazio ekintza da, eta helburua da ontzi arinen birziklatzea hobeto egiteko gakoak ematea. Mankomunitateko presidentea Maite Antonek azaldu du azken bi urteetan gora egin duela edukiontzi horietara botatzen diren hondakin ez egokien kopuruak, eta horrek ondorioak dituela. Alde batetik, ingurumeneari eragindako kalteak daude, eta, bestetik, horien kudeaketan sortzen den galera ekonomikoak. "Bereizketa ondo ez egiteagatik bi urteotan 150.000 euroko galarak eduki ditu Mankomunitateak", azaldu du. Pixoihalak edo hondakin organikoak dira edu-

kiontzi horietan amaitzen duten inpropioetako batzuk. Herriz herriz ari da kanpaina egiten Mankomunitatea, eta Elgetaren txanda da bihar.


Informazio puntua zapatuan

Mankomunitateak informazio puntua jarriko du zapatuan, plazan. Hainbat dinamizatzaile izango dira bertan, 10:30etik 14:00etara. Azalpenak eman, eta ohitura egokien gaineko eskuliburuak banatuko dituzte. Gainera, umeekin zein gaztetxoekin hainbat ekintza egingo dituzte, jolasten ari diren bitartean ikas dezaten. Hondakinen urrezko hiru arauen murala, hondakinen karakterizazio saioa eta hondakinen ginkana egingo dituzte.

Ekintza presentzialetan protokoloak zorrotz beteko dituztela iragarri dute, eta alde aurretik izena emateko gomendatzen dute.

Zilarrezko domina banarekin Andoaindik

Andoaingo piano jaialdian izan ziren zapatuan Irea Alberdi eta Mirari Gonzalez piano ikasleak. Pandemiak baldintzatutako jaialdia izan da aurtengoa, baina egin dute eta pozik itzuli dira handik bi elgetarrak. Zilarrezko domina bana jaso dute. Bigarren aldian zuten Alberdik eta gustuko duela azaldu du. Lehen aldian izan da Gonzalezendako eta errepikatuko lukeela azaldu du.



Irea Alberdi eta Mirari Gonzalez, Andoaingo diplomekin eta dominekin. L.Z.L.

Elgetako bake epaile kargua berritzeko prozesua zabalik da

Bake epaile titularra eta ordekoa izendatu behar ditu Udalak. Udal osoko bilkurari dagokio izendapena egitea, eta zabalik da interesatuek eskaera aurkezteko epea. Lau urterako kargua da eta udaletzeko idazkaritzan daude ikusgai baldintzak eta bete beharreko eskakizunak. Eskaerak idatziz eskatu behar dira udaletxean.

OHARRAK

Ipuinen ordua, gaur

HH-5, LH-1 eta LH-2 mailetako neska-mutikoendako ipuin saioa liburutegian, 17:20an. Udal liburutegiak antolatuta eta kontalari boluntario taldearen eskutik.

Hobariak zergetan

Gaur amaitzen da ondasun higiezin eta ibilgailuen zergetan hobariak eta salbuespenak eskatzeko epea.



Gaur irekiko den erakusketan parte hartuko duten Bergarako artistetako batzuk, Aroztegin, martitzen iluntzean. MAIALEN LOPEZ



Maitena Arana margolaria, bere koadroetako bat jartzen. MAIALEN LOPEZ

Etxeko artistak, eta hainbat diziplina

Erakusketan parte hartu duten Bergarako 23 emakumeei esker artearen askotariko diziplinez gozatzeko aukera egongo da Aroztegi aretoan gaur hasi eta martxoaren 21era arte: margolanak, eskultura, argazkiak, zeramika, testuak...

Parekidetasunari deia, artelaneanetik

Begarako emakume artisten taldeak bosgarren urtez antolatu du Martxoaren 8aren bueltako erakusketa, 'Edertasuna emakumearen bi ikuspuntuetatik' izenburu duena, eta 23 artistaren obrak batzen dituena; gaur ireki eta hilaren 21era arte egongo da ikusgai

Jokin Bereziartua BERGARA

Bosgarren urtez jarraian antolatu dute Bergarako emakume artistek Martxoaren 8aren bueltako erakusketa, herrian errotzen doan ekimena den seinale. Ezin da ahaztu, gainera, iaz pandemiak bete-betean harrapatu zituela; izan ere, erakusketa ireki eta astebetara heldu zen konfinamendua; Aroztegi itxi egin behar izan zuten. *Amalurra* izena jarri zioten iaz erakusketari, eta lau azpigai jorratu nahi izan zituzten: lur-eremua, migrazioa, emankortasuna eta materia.

Inposatutako edertasunaz

Aurtengo erakusketaren izenburua *Edertasuna emakumearen bi ikuspuntuetatik* da. "Edertasuna, askotan gure erabakia dena eta beste askotan inposatu egiten zaiguna. Aroztegi bi zatitan banatu dugu: kolore zuriz, batetik,

guretzat ederra dena; eta, bestetik, arrosa kolorez, emakumeari inposatzen zaion edertasunaren adierazle", adierazi dute.

Martxoaren 8aren bueltan antolatutako ekimena izanik, "oso berezia" dela diote: "Gure lana herritarrei erakutsi nahi diegu, emakumeon izenean bizirik gaudela adierazteko. Urtero elkartu ahal izatea motibazio handia da guretzat, eta asko hunkitzen gaitu. Lan berriak sortzeko edo dauzkagunak denon artean prestatzeko aukera izateak asko batzen gaitu. Indar handiarekin eta oso gogotsu gatoz!".

**EDERTASUNA DUTE
HIZPIDE AURTEN ETA
GAIAREN BUELTAN BI
ZATITAN BANATU DUTE
AROTEGI ARETOA**

Musikaz girotutako inaugurazioa

Gaur inauguratuko dute erakusketa, 18:00etan. Antolatzaileek gogora ekarri dute Aroztegi edukiera 42 laguneko dela, eta erakusketa honako ordutegi honetan bisitatu ahalko dela: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; domeka eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Pandemiak zuzenean eragin dio inauguraziorako zuten asmoari: "Gure asmoa 19:00etan inauguratzea zen, baina, pandemiagatik, aurreratzea erabaki dugu. Erakusketari hasiera emateko, urtero egin izan dugun moduan, luntxa eta antzezlan bat egitea zen ideia. Baina asmo hori ere zapuztu digu COVID-19ak... Beraz, gure taldeko Julia Pajaresek musikarekin girotuko du inaugurazioa, bisitariek

giro goxoan murgilduta ikus ditzaten gure artelanak".

Belaunaldi ezberdinen batasuna

Ekimen honen bereizgarrietako bat da belaunaldi ezberdinetako emakumeak artearen bueltan elkartzen dituela: "Adin ezberdinetako emakume talde bat izanda eta arte diziplina ezberdinak landuta ere, oso ondo ulertu dugu elkar hasieratik. Oso azkar egin genuen bat eta harremana oso ona da talde barruan. Erraza egiten zaigu ideia bat sortzea eta ideia hori gauzatzea". Gaur herri osoaren

**ADIN ASKOTARIKO
EMAKUMEAK BILTZEN
DITU ERAKUSKETAK:
"OSO HARREMAN ONA
DUGU GURE ARTEAN"**

aurrean irekiko duten erakusketak, artista bakoitzaren arte-lanez harago, badu atzeko lana: "Hilabete batzuk lehenago batzartzen gara, ideia zaparrada egiteko. Aurtan, oso ezberdina izan da prestaketa, elkartzeko arazoak izan ditugu eta. Baina pandemiak ez digu gure arteaz gozatzeko eta gozarazteko grina kendu, eta bueltan gatoz". Asteaz zehar aritu dira Aroztegin lanean, erakusketarako dena gertu egon dadin, eta muntaketa lanak ere txandaka egin dituzte; gainera, taldeko kide batzuk konfinatuta egon dira azken egunetan...

Oztopoak oztopo eta arazoak arazo, pandemia sasoiaren ere erakutsiko dute: "Dena dugu gertu Bergarako emakumeen arteaz gozatzeko. Kultura zaindu beharra dugu; orain, inoiz baino gehiago! Denok zaudete gonbidatuta Aroztegitik pasatzera!".

Herritarrei ekarpen eske, 2030eko Bergarari begira

'Bergara 2030 egin herrixa' plana aurkeztu du Udal Gobernuak, "Bergararen epe ertain eta luzera begirako iparrorratza" markatzeko; herritarrekin partaidetza prozesu baten bidez gauzatu litzateke eta espero dute lehen emaitzak udarako gertu izatea

Jokin Bereziartua BERGARA

Udal Gobernuak *Bergara 2030 egin herrixa* plan estrategikoa aurkeztu zuen eguazten arratsaldean. "2030eko Bergara herritarren artean nolakoa izatea nahi dugun adosteko jarri dugu martxan. Eman diogun izenak berak adierazten du bere izaera. Denon artean etorkizuneko herria diseinatu dugu eta prozesu parte-hartzailearen bitartez herria, komunitatea egingo dugu", esan zuen Gorka Artola alkateak.

Helburu zehatz batzuk lortu beharko lirateke prozesuaren amaieran. Adibidez, urte, agintaldi eta ideologiaren gainetik herriko erronkei modu antolatua eta eraginkorrean erantzuteko udal-kudeaketarako tresnak eguneratzea; udal barruko eta kanpoko parte-hartzea sistematizatzea; Udaleko informazio guztia gardentasunez zabaltzea eta komunikazio-bide berriak aztertu eta erabiltzea; eta Udalaren iraunkortasun egoeraren inguruko datuak jaso eta interpretatzea. Prozesuan zehar genero ikuspegia eta giza eskubideak zeharkakotasunez erabiliko dituzte, oinarri moduan.

Izadi 21 enpresaren bitartez

Izadi 21 enpresa ari da lanketa teknikoki bideratzen. Enpresako



Eguazteneko agerraldia: Aranberri, Gonzalez, Artola, Iñurategi eta Iturbe. J.B.

arduradunetako bat den Aitor Gonzalezek dio pandemia egoeran herritarren inplikazioa lortzea izango dela erronketako bat, herritarren parte hartze barik prozesuak ez lukeelako zentzurik izango: "Prozesu osoan zehar ezinbestekoa izango da udal-egituraren parte diren eragileek zein gizarte-eragileen parte-hartzea. Prozesu osoan irekiko diren guneetan parte hartzea gonbidatzen ditut herritarrak, ez dira damutuko. Etorkizuneko herria denon artean egin dezagun". Horrekin batera, Gonzalezek aipi-

marratu zuen plan estrategikoa "tresna, praktikoa, eraginkor eta erabilgarria" izateko "garrantzitsua" dela hedadura garbi finkatzea: "Landa beharreak gaiak eta ardurak hasieratik zehatz banatu behar dira".

Emaitzak udarako izatea espero

Azaldutenez, planaren oinarriak dira parte-hartzea eta adostasuna; zeharkakotasuna; informazioa eta gardentasuna; berdintasuna eta giza eskubideak. "Gizarte osatzen duten pertsonen eskubideak bermatu



Oxirondo azoka, erabat hutsik, atzo goizeko lehen orduan. EIDER MONCAYOLA

Azokaren gainbehera: erreleborik ez

Plan estrategikoarekin batera, metodologia berarekin, modu paraleloan eta koordinatuta, azokaren inguruko hausnarketa prozesua egingo da, *Gipuzkoako azokaren sarea* deritzon proiektuari esker. Oxirondok gaur egun bizi duen egoeraren argazki ahalik eta zehatzena atera nahi dute, besteak beste, bertan galdetegi bat jarrita. Debagoieneko Landa Garapenerako teknikari Mari Karmen Iturbek dio bi arrazoi nagusi daudela azokaren gainbehera azaltzeko, Gipuzkoan eta Euskal Herri osoan aplikagarria: "Baserritarren eta kontsumitzaileen aldetik errelebo falta dago. Zahartzen ari dira bai baserritarrak bai kontsumitzaileak, eta horri buelta ematea izango da etorkizuneko erronka nagusia". Pandemia egoeran seguruak direla frogatzeaz gain, azokoen garrantzia nabarmendu du: "Iraunkortasunaren aspektu guztiak betetzen dituzte".

egin behar dira; are gehiago, halako proiektu batean. Herritarrak, edonolako jatorria izanik ere, partaidetzarako, ezagutzarako, informazioa jasotzeko eta proiektuaren unean uneko egoera zein den jakiteko egingo dugu lan", adierazi zuen Udal Gobernuko bozeramaile Nagore Iñurategik. Kronogramaren berri ere eman zuen prozesua jarraitzeaz arduratuko den Ekaitz Aranberri zinegotziak; martxoan zehar, herriko talde eta sektoreekin elkarriketak egingo dira –oraingoz, hamabi talde elka-

rrizketatu dituzte–; apirilean eta maiatzean zehar, gaikako lau mahai eratu dituzte; eta, prozesua amaitzeko, apirila eta ekaina bitartean, "herri-bilerak" egingo dituzte. Espero dute udarako prozesuaren lehen emaitzak esku artean izatea.

PANDEMIA EGOERAN HERRITARREN INPLIKAZIOA LORTZEA IZANGO DA ERRONKA NAGUSIETAKO BAT

Fraiskozurin egingo da Erramu Zapatuko azoka, hilaren 27an

COVID-19agatik, hamabi postu jarriko dituzte, gehienez; posturako eskaera martxoaren 10erako egin behar da

J.B. BERGARA

Pandemiak suspenditu zuen Bergarako lehen festa esanguratsua izan zen Erramu Zapatuko, eta aurten ere ezingo da ospatu. Hala ere, Udalak azoka antolatuko du; jende pilaketak

ekiditeko, azoka produktu zehatz batzuetara bideratuko du Udalak. Gehienez, hamabi postu jarriko dituzte, eta, sanmartinetan egin moduan, Fraiskozurin jarriko dute martxoaren 27an, 09:30etik 14:30era. Postua jartzeko lehen-

tasuna hurrenkera honetan zehaztu du Udalak: Bergaran edo Debagoienean egoitza duten barazki, fruta eta bertako elikagai ekoizleak; Oxirondoko azokan parte hartzen duten ekoizleak; nekazaritza ekologikoaren bidez produktuak ekoizten dituztenak; eta Gipuzkoako barazki, fruta eta elikagai ekoizleak. Eskaera martxoaren 10erako egin behar da, beharrezko dokumentazioa ferixabergara@bergara.eus helbidera bidalita. Argibide gehiagorako: www.bergara.eus.



Pandemiara egokitutako azoka, Fraiskozurin, 2020ko sanmartinetan. J.BEREZIARTUA



Olatz Sanz Errasti, Lander Juaristi Lasa eta Idoia Larrañaga de la Presa, asteon, Zabalotegiko Txiki Txokoaren atarian. J. BEREZIARTUA

"Bergara hezitzaileagoa" nahi, Zabalotegitik hasita

Bergara Herri Hezitzailea taldea sortu dute, etorkizuneko Bergarak izan beharko lituzkeen balioez gogoeta eragiteko; hasteko, Zabalotegiko Txiki Txokoaren kanpoko espazioa partaidetza prozesu baten bidez eraldatu nahi dute, "nahiko hilda" dagoela iritzita

Jokin Bereziartua BERGARA

"Herri eta auzo guztiak hezitzaileak direnez, Bergara zein baliotan hezi nahi dugun hausnartzeko sortu genuen taldea. Maratoi bat da eta lehen urratsak egiten ari gara". Bergara Herri Hezitzailea taldeko Lander Juaristi Lasaren hitzak dira, duela urtebete abiatu zuten ekimenaz berbetan. Francesco Tonucci psikopedagogo italiarraren eta haren *Haurren hiria* liburua ekarri dute gogora: "Jolasten, pasean edota bakarrik dabilzan umeak baldin badaude hirian, hiri osasuntsua den seinale. Hirian ez bada haurrik ikusten, hiria gaixotuta dagoen seinale."

Pandemiaren hasieran sortua

Duela urtebete abiatuta, aitortu dute "hasiera xelebrea" izan duela ekimenak, pandemiak ez dielako utzi nahiko zuketan moduan elkartzen. Hala ere, hasi besterik ez dira egin: "Bergara hezitzailea epe luzerako helburu bat izango da; hau maratoi

bat da eta hasierako urratsetan gaude. Taldea sortu dugu eta martxan gaude, atek zabalik".

Jolasaz eta beste hainbat arloz

Hain zuzen ere, atzo, hitzaldi bat izan zuten Seminarixoan, Olgeta proiektuko Itsaso Pagoaga arrasatearrarekin, eta hilaren 11n, Hiritik At kooperatibako Ibai Esteibarlandaren saioa izango dute, Seminarixoan (18:00). "Jolasari garrantzi handia ematen diogu, uste dugulako, hein handi batean, jolasaren bidez hezten direla umeak, eta horregatik eskatu genion Itsaso Pagoagari etortzeko. Eta, era berean, hilaren 11n, Ibaik jolasaz haragoko herri hezitzaileak izango ditu hizpide; herriek

MARTXOAREN 20RAKO SAIO PRESENTZIALA DEITU DUTE; IZENA EMAN BEHAR DA, EDUKIERAGATIK

hamaika modutan hezten gaituztela konturatuko gara", dio Idoia Larrañaga de la Presak.

Zabalotegiko kanpo espazioa

Hasteko, Zabalotegiko Txiki Txokoaren kanpoko espazioa eraldatu egin nahi dute: "Herriaren erdigunean dago, helitzeo erraza da, egun nahiko hilda dagoen espazio oso handia. Gune bati eraldaketa hezitzailea emateko adibide ona da", dio Olatz Sanz Errastik. Kanpoko eremuaren eraldaketarako "ahalik eta herritar gehieni" entzuteko ariketa abiatu dute, partaidetza prozesu baten bidez: "Pandemian apur bat konplikatuz zaigu...". Modu telematikoan har daiteke parte dagoeneko, euren sare sozialen bidez galdetegi bat gertu dute -tartean, eremua irudikatuzko marrazkia egiteko aukerarekin-, eta martxoaren 20rako saio presentziala antolatu dute; edukiera kontuengatik izena eman behar da: bergarahe- rrihezitzailea@gmail.com.



NIRE USTEZ

JOANES PLAZAOLA

"Babesa"

Duela hilabete, lagun bat taberna bateko terrazan pipak jatearren identifikatu zuten. Duela bi aste, hainbat lagun jipoitu zituzten identifikatzerakoan. Kotxea goitik behera miatu zioten beste bati. Pandemiak halako hainbat eta hainbat gertakari ekarri dizkigu; bueno, pandemiak edo. Horiek babeserako neurriak direla diote batzuek, eta nago ni arrazoirik ez dutela falta: sistema kapitalistaren babesgarri dira. Hau da datorriguna: babesez mozturrotutako kontrol soziala, hedabideek zurituko dutena, eta punta-puntako teknologiaz hornitua. Ez du pandemiak ekarri eta ez du pandemiak berarekin eramango. Zer esanik ez gainean dugun krisi kapitalistaren gerizpean, non miseria gailenduko den biztanleriaren multzo zabaletan, eta horien haserre eta amorrua gelditzeko mekanismoak beharko dituzten estatuek. Eguneroko ogi bihurtu zaigu miseria, eta berarekin kontrol soziala, eta badirudi gure etorkizunetan leku bat izan nahi luketela. Guri, baina, kontrol horri kritikaz eta antolakuntzaz aurre egitea dagokigu, ez badugu gizarte eredu honen biolentzia eta miseria normaltzat hartuaz bukatu nahi.

Itxarote-zerrenda dago Telesforo Monzonen etxea bisitatzeko

Urte luzez publiko orokorrari itxita egon ostean eta martxoaren 9an Telesforo Monzon hil zela 40 urte beteko direnez, hilaren 13an irekiko dituzte Olatz Sanz Errastik. Egun horretan bisita bi egingo dira -10:15ean euskaraz eta 12:00etan gazteleraz- eta martxoko hurrengo bisita hilaren 27an izango da, euskaraz bakarrik (10:15). Erreserba tele-

fonoz egin beharko da, Turismo Bulegora deituta (943 76 90 03), eta, ondoren, sarrera bulegoan bertan erosi behar da bisitara joan baino lehen. Hilero hiru bisita egingo dituzte, bi euskaraz eta bat gazteleraz, eta sarreraren ohiko prezioa lau euro da. Bisitok ikusmina piztu dute, itxarote-zerrenda luzea dago eta.

Bestalde, urteurrenaren bueltan, martxoaren 9an jasoko du lehen *Monzon Ganuza* saria Libe Garate Goñik, Seminarixoan egingo den ekitaldian (18:30).

OHARRAK

Pentsiodunak: elkarretaratzea eta omenaldia

Astehenean, Martxoak 8, emakume guztiak omentzeaz gain, bereziki bi emakume omenduko dituzte, hiru uretan zehar erakutsitako elkartasunagatik. San Martin plazan, 12:00etan.

Goienagusi: Rikardo Azkargortaren eskola

Margolari bergararrak hitzaldia eta erakustaldia egingo du hilaren 10ean, Seminarixoan (10:00): *La acuarela, proceso y técnica. Realización de una acuarela en directo*.

Ordenagailuen monitoreak banatzeko zozketa

Udaleko informatika ekipoak berriro behar direla-eta izena emandakoan artean zozketa egingo da astehenean, hilak 8.

Xaxau: bilera irekia bihar, Oxirondo azokan

Online jarraitzeko aukera ere egongo da, 11:00etan; interesa duenak, xaxaukomunikazioa@gmail.com helbidera idazteko.

Pilota: Gipuzkoako lau eta erdiko txapelketa

Gaur, kadeteetako hirugarren mailako partidua (19:45), Bergara eta Oiarpe artean. Domekan, nagusien bigarren mailako lehia (10:30), Bergara eta Beloki taldeko pilotariaren artean.

Lokatzaren elastikoarekin lehian, lehendabizikoz

Hamasei urteko historian lehen aldiz emakumezko taldeak edukiko ditu lehian Lokatza kirol elkarteak. Kadete mailan eta elite mailan bina ordezkari edukiko dituzte eta klubak aspalditik zuen erronka errealitate bihurtu da 2021 denboraldian

Xabi Gorostidi BERGARA

Pandemiak baldintzatuko, du hein batean, Lokatza taldearen 2021 denboraldia, baina ez horrek bakarrik. 45 urteko ibilbidean lehen aldiz, emakumezko partaideak edukiko dituzte lehian: Edurne Ormaetxea eta Itxaso Plaza kadete mailan; eta Eneritz Urrutia eta Olatz Gabilondo elite mailan. "Klub bezala aspalditik geneukan gogoia, eta, azkenean, heldu da; nesken bi talde edukiko ditugu lehian lehen aldiz. Neskentzako lasterketak antolatatu izan ditugu aurrez, baina gure elastikoarekin lehian ez dira inoiz aritu", azaldu du Lokatza taldeko kadeteen kirol zuzendari Iñigo Larrañagak.



Julen Prieto, Itxaso Plaza, Edurne Ormaetxea eta Iñigo Larrañaga. LOKATZA

Kadeteen estreinaldia

Kadete mailan arituko diren biek jada egin dute estreinakoa taldearekin. Joan den aste bukaeran, Kia Capdequi Astigarraga saria jokatu zen, Donostian, eta zortzigarren eta bederatzigarren postuak eskuratu zituzten Ormaetxeak eta Plazak, hurrenez hurren.

"Urduitasun handia zegoen txirindulari guztiengan, aurreko urte ia osoa hutsean egon ostean lehen lehiaketa zelako. Edurneren eta Itxasoren kasuan are gehiago, euren lehen lehia-


keta zelako. Baina oso emaitza polita lortu zuten. Erlojupeko proba bat izan zen, eta Itxaso Plazak emaitza hobea lortzeko aukera izan zuen. Laugarren denbora onenarekin heldu zen amaia aldera, baina eroriko baten erruz 30 segundo inguru galdu zituen. Guretzako emaitza ez zen helburua, esperientzia eta konfiantza hartzea baizik, baina oso txukun ibili ziren biak, eta lehiatzeko oinarri ona dutela erakutsi dute. Hurrengo lasterketa Atarrabian izango da, martxoaren 14an, eta hor iku-

siko dugu errepide zabalean eta tropelean nola moldatzen diren".

Edurne Ormaetxea lehen urteko kadetea da eta iaz eskola mailako Lokatzako taldean aritu zen –adin horretakoek ez zuten lehiaketarik izan iaz–. Kirolari amorratua da, txirindularitaz aparte hockeyan ere jokatzen baitu. Itxaso Plaza, aldiz, triatloi alorretik dator. Bizikleta gainean hobetzeko gogoak bultzatuta batu da taldera, eta errepideko bizikletako lehiaketak eta triatloikoak uzta-
 tartuko ditu.



Olatz Gabilondo eta Eneritz Urrutia. O.G. ETA E.U.



Elite mailan, Urrutia eta Gabilondo

Gabilondok 21 urte ditu eta aurrez ez da bizikleta gainean inon lehiatu. Eneritz Urrutia, aldiz, triatloi lehiaketetan aritutakoa da, eta biek ala biek "gogo handia" dute euren burua tropel barruan ikusteko, eta lehiatzeko.

Elitekoak, estreinatu gabe

Elite mailakoek oraindik ez dute debuta egin –Atarrabian izango dute lehen lehiaketa–, eta apenas izan dute tarterik elkarrekin entrenatzeko. "Aurtengo denboraldi-aurrea arraroa izan da oso, eta lan asko egin behar izan du nork bere aldetik. Azkenaldian aritu gara taldekako lan-saioak egiten, baina egia da elite mailako bi neskak oraindik ez direla elkarrekin entrenatu", azaldu du Larrañagak.

Olatz Gabilondori txikitatik gustatu izan zaio kirola egitea, eta askotariko diziplinak probatu ditu. DBHko 3. mailan hasi zen bizikletarekin, aitzak xaxatuta: "Nire aitari izugarria gustatzen zaio bizikleta, eta hark bultzatuta hasi nintzen. Baina azken urteetan nahi abandonatuta izan dut, iaz berriro ekin nion arte. Askok aritu nintzen

bizikleta gainean, eta aurtan lehiaketan mundua probatu nahi dut, ea zer-nolako maila eman dezakedan", azaldu du Gabilondok.

Eneritz Urrutia arrasatearra triatloian aritu da azken urteetan, baina, bizikleta gainean gero eta gehiago gozaten duela ikusita, errepideko lehiaketak probatzeko apustua egin du. "Aurtan, Iruñeko Saltoki Triatloian lasterketetan, ez nuen konpromiso handirik hartu nahi. Baina Iñigok eskaintza egin zidan, eta ez nuen askorik pentsatu. Gero eta gusturago nabil bizikleta gainean, ordu asko egiten ditut, eta lasterketetan neure burua ikusteko gogoia nuen. Aurtan, triatloi proba gutxiago egongo dira; beraz, urte aproposa da aproba egiteko. Ea nola moldatzen garen tropelean".

Labegaraieta berritua estreinatu ostean, "sentsazio onak"

Kiroldegi berrituan lehen partidu ofiziala jokatu zuen zapatuan Soraluze-Bergara eskubaloit taldeak

X.G. BERGARA

Bergarako Labegaraieta kiroldegia inauguratu osteko lehen partidua jokatu zuten zapatuan Bergarako eta Eibarko eskubaloit taldeek. Kantxa berria estreinatze-
 zeko ohorea izan zuten eskuba-

loi jokalariek, eta gustatu egin zitzaizkien parket berria. "Kantxa berria oso ondo dago, eta badi-rudi beste kantxa bat dela. Oraindik hauts apur bat du, baina partidu aurretik mopa pasatu dugu eta ez gara labaindu", azal-

du zuen Josetxo Muniategik, Bergarakoen entrenatzaileak.

Horrez gain, adierazi zuen leku epelagoa eta argitasun gehiagokoa dela orain. "Bergailuak oraindik ez dituzte jarri, baina erabiltzen dugunok igarri egin dugu epelagoa dela. Agian, itxituraren bat egin diote, edo, agian, itxita egon izanagatik da, baina igarri egin dugu. LED argiak jarri izana ere igartzen da, eta lehen baino argiztapen hobea dugu. Aldea handia dago, alde horretatik".



Zapatuan jokatutako partiduaren une bat. GOIENA

Bioeraikuntza da kontzeptua

Bioeraikuntza kontzeptua helburu hartuta ari dira Natur Eskola berritzen, eta, lanerako material konkretuak erabiltzeaz gain, ahalik eta efizientzia energetiko handiena lortzea gura izan dute. Teilatua, esaterako, berdea izango da, belarrezkoa

Oihana Elortza OÑATI

Berehala antz ematen zaio Natur Eskolari berritu egin dutela. Kanpoko itxura beste bat da orain. Beheko aldea urdinez margotua zegoen lehen eta goiko bi pisuetako kanpoaldean bistako adreilu zuriak ikusten ziren. Orain, ordea, egurrezkoa da fatxada nagusi guztia, goitik beheraino; baita leihoak ere. Alboak, berriz, zuriak. Eraikinaren forma lehengoa da, baina aurrealdean badago lehen ez zegoen zulo edo putzu bat. Berritze lanetan erabilitako materialak dira, baina, ezaugarri nabarmenenak.

Kalte txikiko materialak

Bioeraikuntzaren filosofia jarraitu dute, hori izan da helburua, eta, hortaz, ingurumenari ahalik eta kalte txikiena egingo dioten materialak erabili dituzte, ekologikoak, berrerabilitakoak eta efizientzia energetiko handia sor dezaketanak. "Adibidez, eraikinaren isolamendua oso garrantzitsua izan da. Fatxada egurrezkoa da, baina isolamendu berezia du; lastoa da fatxada nagusian erabili dena eta beste bi aldeetan, egur zuntza. Horrekin zubi termikoa apurtzea lortu da, kanpoko eta barruko tenperaturaren arteko egokitza-pena lortzea. Margotzeko erabili diren pinturak, bestalde, ez dira plastikoak, nahiz eta denbora gehiago behar duten lehortzeko. Hoditeria polipropilenoakoa da PVCkoa izan ordez, eta barruko egituretan ere egurra erabili dugu", zehaztu du Ingurumen zinegotziak, Asier Iraetak.

Eraikin barruan ere ikusten dira aldaketak, nahiz eta egitura lehengo bera duen. Beheko solairuko zutabeak, esaterako, lehengoak dira, baina argitsua-

goa da orain barrua, goitik beheko solairuraino sartzen da argia. Gela batzuetako ateak, esaterako, kendu egin dituzte, hormak bota eta bi gelarekin bakarria egin, kanpoko leihoetara begira dauden bi espazio zabal eta atsegin sortuz modu horretara,

lehengo forma geometrikoa pixka bat apurtuz, bide batez. Altzariz hornituta egongo den sukalde bat dago beheko solairuan, eta baita eraikina berotzen lagunduko duen berogailu berezi bat ere: "Su-egur gutxirekin denbora luzez irauten duen

berogailua da eta behetik gora doan tximinia bat du, goiko aldea ere goxatzeko. Horrez gain, aerotermino berogailuak ere baditugu", zehaztu du Iraetak.

Lanak azken txanpan sartuta daude, nahiz eta oraindik teilatu egiteke dagoen.

Teilatu berdea eta harkaitzegia

2018an hasi zituzten Natur Eskola birgaitzeko lanak. Hasieran, isolamendu lanak egin zituzten, eta beheko zoria jaso eta berria egin; hori ere material ekologikoarekin, kortxoarekin. Kanpoko isolamendua, iturgintza eta



Hauxe da Natur Eskola berrituak kanpotik duen itxura. 0.E.



Egurrezko gaina duen sukalde hornitu bat dago beheko solairuan. 0.E.



Egurrarekin elikatzen den berogailu horrek berotuko du eraikina. 0.E.

Fitoaraztegia eta komun lehorrak

Eraikin honen efizientzia energetikoa ahalik eta handiena izatea da gura dena, eta komunetan ere aplikatuko dute filosofia hori. Komun lehorrak izango dira Natur Eskola berrituan egongo direnak; hau da, ez dute bonbarik izango, ez da urik erabiliko bertan egiten direnak kanporatzeko. Beheko zein goiko solairuetan egongo dira komunak; denak izango dira lehorrak eta bereizi egingo dituzte kakak eta txizak. Instalazio guztia eginda dago, komunak muntatzea da falta dena.

Komunean egin beharrekoak eginda, hankarekin palanka bati eragin eta zinta garraiatzaile baten bidez kanpora aterako dira

solidoak, kakak. Kanpoan dagoen biltegi edo ontzi handi batera helduko dira zinta horren bidez, eta ontzi horiek hustu egingo dituzte maiztasun jakin batekin. Bertan pilatzen dena ongarri moduan erabiliko dute gero. Hoditeriak berak kanporatuko du usain txarra ere, eta modu horretan ez da kiratsik pilatuko komun barruetan.

Komunean egiten diren txizak, aldiz, beste hodi batzuetatik barrena kanporatuko dira. Hodi horiek eraikinaren aurrean, albo batean, egin duten zingira edo putzu moduko batera helduko dira. Orain, plastiko batekin daude estalita hodi horiek, baina, laster, dena txukundu eta garbituko dute, eta orduan,



Fitoaraztegia egongo den gunea, eraikinaren albo batean. 0.E.

plastiko hori kendu eta oihal edo geruza berde fin bat botako dute hodian gainean. Landare berezi batzuk jarriko dituzte hor, eta landare horiek komunetatik datorren ur zikina depuratu

egingo dute; nolabait, araztegi lana egingo dute, eta askoz garbiagoa iritsiko da ur hori ondoko errekarara. Kanpotik, berriz, landarez hornitutako putzu berde bat ikusiko da.

igeltserotza lanak ondoren. Orain, barruko lanetan ari dira, batez ere: elektrizitatea, telekomunikazioa, komunak jarri... Barruko zorua material berezi batekin garbitu eta margotuko dute eta kanpokoa altxa eta berria jarriko dute; ura iragazten utziko duen zoru berri bat izango da. Teilatua ere azken fase horretan egingo dute; teilatu berdea izango du gero Natur Eskolak, be-larrezkoa.

Barruko lanak amaitzean, behin dena garbi eta txukun dagoenean, eraikina apaintzen hasiko dira. Eta harkaitzegi bat izango da egongo den apaingarrietako bat. Lehengo eraikinean ere bazegoen bat, bertako langileek egindakoa. Berria, baina, horretara dedikatzen den enpresa batek egindakoa izango da eta Oñatin egon daitekeen edozein harkaitzegiren modukoa izango da, txori eta guzti. Eta

horrekin batera hasiko dira eraikin barruko gelak ere beharrezko ekipamenduz hornitzen eta bisitan joango diren umeendako antolatzen eta apaintzen, ekosistema ezberdinen adibideak birsortuz, esaterako.

Eltziatik ohiko tokira

Obrak egin bitartean Natur Eskolako zerbitzuak ez du etenik izan. Ohiko tokitik Eltziaira lekuz aldatu ziren eta han egin dituzte azken bi ikasturteak. Berritze lan hauek uda aurretik bukatuko dituzte eta asmoa da hurrengo ikasturtean ohiko tokira bueltatzea eta han hartzea herri ezberdinetatik etor daitezkeen umeen bisitak. 2019-2020 ikasturtean, esaterako, ia 4.300 bisitari hartu zituzten, baina martxotik aurrera etxetik jarraitu zituzten eskolak umeek. Joandako lautik hiru Oñatikoak ziren.



Bigarren solairuko gela batzuetako atek kendu eta espazioak zabaldu dituzte. O.E.



Lehengo zutabeak eta argia pasatzen uzten duen egurrezko sabai berria. O.E.



Udaleko eta Mondragon Team Academyko ordezkariak, eguaztenean. M.S.

Ekintzailatza sustatzea helburu, abian da 'Oñatin Elkarrekin Ekin'

2021ean zehar garatuko diren ekintzak aurkeztu ditu Udalak, Mondragon Team Academyrekin batera

Maialen Santos OÑATI

Negozio ideia berriak martxan jarri nahi dituzten ekintzaileei eta dagoeneko enpresa txikiren bat kudeatzen dutenei zuzenduta egongo da Oñatin Elkarrekin Ekin programaren laugarren edizioa. Hain zuzen, azken horietan azpimarra jarri gura dute programaren sustatzaileek, bereziki merkataritza eta zerbitzu sektoreko komertzio, autonomo eta enpresa txikiei bertan parte hartzea animatuta. Unai Kortabarria Sozioekonomiako teknikariak azaldu duenez, "ahalegin berezia" egin dute ekintzailatza sustatzea helburu duen programak merkataritza planarekin "bat egin dezan".

Azaldu duenez, programaren "esentzia" beti izan da negozio ideia berriak zein enpresa proiektuak dituztenei ideiak gauzatzeko "tresnak" ematea: "Garbi ikusten da azken urteetan sek-

toreak belaunaldi-erreleboa emateko zailtasunak dituela, gazte gutxi animatzen direlako sektorean ekitera".

Hala, hiru oinarri nagusi izango ditu programak: aukera berrien azterketa, ekintzailatasuna eta Berrikuntza eta Digitalizazioa. Eta,aldi berean, hiru fasetan banatuta egongo da. Bego Ugarte Mondragon Team Academyko kideak azaldu du lehen fasean analisia egingo dutela: "Aukera berriak non egon daitezkeen edota daukagunari beste buelta bat nola eman aztertuko dugu". Bigarren fasean, Ideazio fasean, ideiak garatzeko prozesu bat jarriko da martxan; eta hirugarren faseak, aldiz, aholkularitza eta elkarlana izango du oinarri.

Programan izena eman gura duenak 943 00 31 98 telefonora deitu edota enplegu@onati.eus helbidera idatzi dezake.

COVID-19ari buruz hausnartzeko hitzaldi sorta antolatu dute

COVID-19, osasunaz haratago izeneko hitzaldi sorta antolatu du martxorako Informa*tu taldeak, eta arlo ezberdinetan adituak diren hizlariak ekarriko dituzte, pandemiak izango dituen ondorio ekonomikoez zein psikosozialez edo hemendik aurrera gure eguneroko bizitzaren diseinua izango denaz hitz egiteko, "reseteo programatuaren"

ezaugarriak aztertze eta pandemiaren kudeaketan erabili diren oinarri biomedikoak eza-gutzeko, besteak beste.

Guztira, lau hitzaldi antolatu dituzte, laurak hilabete honetako martitzenetan izango dira, 19:00etan, Santa Ana antzokian; hurrengo astean, martxoak 9, izango da lehenengoa. Edukiera mugatua da eta aurrez eman behar da izena, eta horretarako bideak dira: 658 71 90 89 edo osasunaetaeskubideakdebagoiena@protonmail.com.



NIRE USTEZ

JONMIKELA INSAUSTI

Hirugarren uhina

Anaiak institutuan irakurgai zuten Alvin Toffler-en *La tercera ola* (1979) leitu nuen 20 urte nituenean. Liburu iragarle hartan gizakiak izandako hiru paradigma uhinak aztertzen zituen: lehenean, nekazaritza abeltzaintza; bigarrenean, industriaren garapena; hirugarren uhinak informazioarekin etorrera zuen.

Teknologiak eta globalizazioak aukera berriak ekarri badituzte ere, hauek badute beste aurpegi bat: gizarte ultrainformatu eta konektatzen lehenak etekin handiena duen -klikak, jarraitzaileak, salmentak...-; ez da garrantzizkoa egiazki informatzea, lehena izatea baino; bozgorailurik handiena duenak ez du zertan egiazko informazioa, eta paradoxikoki, gaizki informaturik izan gaitzke informazioa eskura badugu ere -zuhaitzak ez digu basoa ikusten uzten-.

Algoritmoek gure kontsumo joerak aztertuz profilatzen gaituzte eta guri buruzko datuok salerosgai bihurtu dira: gustuko dugun hori eros dezagun helburu. Informazioa baita orain diru-iturri berria.

Ongi etorri hirugarren uhinera!

Zuhaitz eta landare azoka bihar eta landaketa etzi

Natur Eskolak antolatuta, zuhaitz eta landare azoka egingo dute bihar goizean Foruen plazan; bederatzi bat postu egongo dira. Domeka goizean, berriz, urteroko zuhaitz landaketa egingo dute. Basoko sagarrondoak eta madariondoak landatuko dituzte, 60 bat; 10:00etan elkartuko dira, plazan. Aitzurra duenak eraman dezala eskatu dute.



Herritarrak, plazan, joan den asteko egunean, otsaileko osoko bilkura egin zen egunean. O.E.

Erabakitzeke dago zer egin gerakin guztiarekin

Zortzi milioi euroko gerakina utzi du 2020ak eta Udal Gobernuaren proposamena izan da libre gelditu den kopurua, 3,5 milioi, erabili gabe uztea, oraingoz. EAJk ondo deritza, baina martxan dauden proiektuak bukatzeko eskatu dio

Oihana Elortza OÑATI

Zortzi milioi euroko gerakina utzi du 2020ak Oñatiko Udalean, eta diru hori zertan erabili eztabaidatu dute otsaileko osoko bilkuran. Horietatik 3,5 milioi geratuko lirerateke libre, mailegura eta martxan dauden proiektuetara –kiroldegia, Natur Eskola eta Araozko ostatua– bideratuko da-eta gainerakoa.

Finantza plan beharrik ez

Udal Gobernuaren proposamena da hiru proiektu horien likidazioari gehitzea kopuru hau eta orduan ikustea zein beste proiektu estrategikotan sartu edo zein behar egon daitezkeen herrian, pandemiak sortutakoak barne. Jeltzaleek ondo ikusi dute ideia, baina kezka ere azaldu dute. "Zazpi egin gabeko inbertsioetakoak dira. Ez dugu uste pandemia izan denik horretarako arrazoi bakarra", zioen Anjel Biain jeltzaleak osoko bilkuraren amaieran. Udal Gobernuak EH Bilduko Xabier Igartuaren ustez,

baina, hori ez da horrela: "Hiru proiektu handietarako da dirua eta gainerakoak ere ari dira gauzatzen. Joan den martxoan milioi bat gehitu genion aurrekontuari eta horri esker Azkoagaingo aldagelak ekarri, Santxolopeztegiko bidegorria egin eta desfibriladoreak jarri dira". Jeltzaleek egindako beste eskaera bat izan zen martxan dauden proiektuak bukatzea: "Araozko ostatua hornitzeko akordioa egitea onartu dugu orain, baina, fase gehiagotan pentsatu beharrean, amaitu egin behar dira hasitakoak. Garrantzitsua da kronograma bat egitea eta agintaldirako finantza plan bat". Udal Gobernuak ez du horren beharrik ikusten. "3,5 milioi

**KIROLDEGIKO, NATUR
ESKOLAKO ETA
ARAIZKO OSTATUKO
GERAKINEI GEHITUKO
DIOTE IAZKOA**

euroko poltsa bat egonda, ez du zentzurik. Martxan dauden inbertsioetarako kantitateak jarritako daude, sarrerak gastuak baino handiagoak izan dira, kontu-hartzaileak balorazio positiboa egin du eta lasai gaude azken urteetan kudeaketa ondo egin dugula uste dugulako".

Pandemiaren ganean

Galde-erreguen tartean, Oñatiko intzidentzia-tasa metatuarekin kezkatuta daudela eta ea Udal Gobernuak neurri gehiago hartuko dituen galdetu zioten jeltzaleek alkateari. Izaro Elorzak erantzun zien gaiaren jarraipena euren bozeramailearekin eta osasun zentroko arduradunekin eta Debagoieneko Ospitaleko OSiko zuzendaritzako kideekin ari direla egiten eta osasun adituek esandako neurriak betetzea dela euren gomendioa. Fokuak non sortu diren ez dietela esan adierazi zuen Elorzak eta duela urtebete hasitako desinfekzio lanekin jarraituko dutela.

Emaitza onak lortuta itzuli dira eskiatzaileak Panticosatik

Euskal selekzioarekin lehiatu ziren Axier Alonso, Sara Arregi eta Haritz Arregi, eta bere kabuz Ainara Uribarri

Maialen Santos OÑATI

Asteburuan egin zuten, Panticosan, Espainiako Kopako kroinoigoera eta bakarkako lasterketa; zapatuan eta domekan, hurrenez hurren. Lau ordezkari oñatiar izan ziren lehiatzen.

Hiru oñatiar aritu ziren euskal selekzioko ordezkari. Senior mailan, Axier Alonso oñatiarra zortzigarren sailkatu zen zapatuan, eta euskal selekziokoen artean onena izan zen. Kadete mailan, bestetik, Haritz Arregi 13. postuan sailkatu zen, eta, azkenik, gazte mailan aritzen

den Sara Arregi bosgarren sailkatu zen.

Domekan, bakarkako lasterketan, berriro gailendu zen Axier Alonso euskaldunen artean. Haritz Arregi izan zen selekzioko parte hartzaile bakarra, eta 14. postuan sailkatu zen. Sara Arregi bosgarren sailkatu zen, gainera.

Azkenik, Ainara Uribarri bere kabuz lehiatu zen asteburuan, ez euskal selekzioko kide gisa. Zapatuan hirugarren helmugaratu zen; eta bosgarren, berriz, domekako lasterketan.

Espainiako txapelketan lehiatuko da Enaitz Sagasta

Igerilari oñatiarrak elkartetako Espainiako neguko igeriketa txapelketan hartuko du parte asteburu honetan, Malagan. Egubakoitzetik domekara bitartean izango da txapelketa, hango Inacua instalazioan, eta oñatiarra, Aloña Mendiren izenean, domekako proban lehiatuko da: 100 metro bizkar estiloan egingo ditu Sagastak.

Ordu eta erdian agortu dira Oñatiko Duetloirako dortsalak

Aste honetan, eguaztenean, zabaldu dute Oñatiko duetloian parte hartzeko izen-ematea, eta ordu eta erdian agortu dira 300 dortsalak. Apirilaren 24an izango da; aurtengo denboraldiko lehenengoa, gainera. Banaka aterako dira parte-hartzaileak eta erlojuaren kontra egingo dute: 5 kilometro korrika, 20 bizikletan eta 2,5 korrika.



JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA

Piano jaialditik, dominak jantzita

Jose de Azpiazu musika eskolako piano-joleak zilarrezko lau domina eta brontzezko eta urrezko bana eskuratuta itzuli ziren etxera Andoaingo XVI. piano jaialditik. Bi kategoria ezberdinetan lehiatu ziren sei ikasleak: Julen Urzelai, Lara Santos, Irati Atxa, Sara Txintxurreta, Sara Iñurritegi eta Goretti Arregi. Irakasleek "positiboki" baloratu dute ikasleen jarduna.

GOIENA TELEBISTA
UDABERRIKO
PROGRAMAZIOA



%100 EMATEN
JARRAITZEN DUGU

'GALDEGAZTE' SAIOA MARTXOKO GONBIDATUAK

EGUAZTENETAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN



MARTXOAK 10
MARIASUN PAGOAGA, AKTOREA
ARIZMENDI IKASTOLAKO (ALMEN)
IKASLEEN ELKARRIZKETA.



MARTXOAK 24
YLONE NOEIRAS, AKTOREA
MARIAREN LAGUNDIKO (BERGARA)
IKASLEEN ELKARRIZKETA.



MARTXOAK 17
IDOLIA ASURMENDI, MUSIKARIA
ARIZMENDI IKASTOLAKO (GAZTELUPE,
ARRASATE) IKASLEEN ELKARRIZKETA.



MARTXOAK 31
MARKEL IRIZAR, TXIRRINDULARI OHA
TXANTXIKU IKASTOLAKO (OÑATI)
IKASLEEN ELKARRIZKETA.



Jokin Bereziartua
'Galdegazte' saioko aurkezlea

goiena[™]
Zu hemen zaude.



Asier eta Andoni Azkarate arrasatearrak eta Unai Cueva Oñatiarra, bizikleta gainean, Eulen taldearen maillotarekin. MIREIA BIKUÑA

Inoizko txapelketarik zalantzatienean, oinak pedalei ondo itsatsita

TXIRRINDULARITZA Otsail hasieran hasi zuten amateur mailako txirrindulariek 2021eko denboraldia. 23 urtez azpikoetan hiru debagoiendarrek jantziko dute Eulen taldearen maillota hemendik eta abuztu amaierara arte: "Egutegiari une oro begiratzen diogu"

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak *Abiatzen* izeneko txapelketa antolatu du aurtengo denboraldi berezi honetan, 23 urtez azpiko ziklista amateurrei otsail eta abuztu arteko denboraldian lehiatzeko aukera eskaintzeko. Momentuz, 13 lasterketa daude programatuta; horietako bat –Zumaiako karrera– joan den asteburuan izan zen. Hasiera batean, 16 hitzordu antolatu zituzten, baina bi egutegitik erori dira –Urretxu eta Trucioskoa– eta bat atzeratu egin dute –Laukizkoa–.

Ziurgabetasun horren baitan mugitzera moldatu behar izan dute txirrindulariek aurten, azken unera arte ez baitute jakiten gertuen daukaten zita aurrera aterako den ala ez. Debagoieneko hiru ziklistak, Andoni eta Asier Azkarate anaiek

eta Unai Cuevak, kontatu dute nola bizitzen ari diren pandemia garaian denboraldia prestatzeko dakartzan ajeak. Zarauzko Eulen taldeko ordezkariak dira hirurak, eta nabarmendu nahi izan dute "zortea" daukatela, gutxienez lasterketetan lehiatzeko aukera daukatelako. Gainera, kirolari erdi-profesionalak kontsideratzen direnez, askatasunez ibili daitezke inguruko errepideetan, euren herrien mugak zeharkatzeko baimena baitaukate. Halaber, "aitzakia gabe" joaten dira parean tokatzen zaien lasterketan lehiatzera: "Ez baitakigu

HIRUGARREN URTEA DUTE AZKARATE ANAIEK KATEGORIAN; CUEVARENTZAT, ALDIZ, MAILA BERRIA DA

ondorengoa izango ote den aurten jokatu dugu azken lasterketa ofiziala".

Gurpilak martxan

Joan den zapatuan eman zioten hasiera *Abiatzen* txapelketari, Zumaiako, eta hurrengo egunean Cantabriako Colindres herriko lasterketara ere joan ziren Eulen taldeko ziklistak. Ontzat jo du Andoni Azkaratek bi hitzorduetako esperientzia: "Zumaiako tropel nagusiaren barruan helmugaratu ginen taldekide dezenteko, eta Colindresen bi kideri lagundu genien zarpigarren eta hamabosgarren postuetan amaitzen, bi portu luze eta hiru labur gainditu ostean". Aste honetan ez dute lehiarik izango; bai, ordea, datorrenean. Izan ere, Asteasuko Aiztondo klasikoak lehiatzera joango dira amateur mailako ziklistak.

Taldeko lana ardatz

Hiru debagoiendarrek ez dute euren burua besteen gainetik ikusten, helburu kolektiboak partekatzen dituztela nabarmentzen baitute: "Taldekide guztion lanaz maila txukuna eman nahi dugu hitzordu bakoitzean, ahal dugun moduan borrokatu eta gauza politak lortu", dio Asier Azkaratek. Anaien artean "pike sanoa" edukitzeak entrenatzeko orduan "asko" laguntzen duela gaineratu du: "Lasterketetan nor bere bidetik doa". Anaia bikiek, Cuevak ez bezala, hirugarren urtea dute kategorian, eta taldean esperientzia gehien duten txirrindularietakoak dira.

Azken horren kasua ezberdina da, lehen urtea baitu 23 urtez azpiko kategorian. Gazte mailaz alderatuta, aurten "aldaketa handia" nabaritu duela esan du oñatiarrak, "lasterketetako erritmoa bizkorragoa delako eta ibilbideak, berriz, luzeagoak". Hala ere, "ilusioz" begiratzen dio denboraldiari. "Eulen taldean giro polita aurkitu dut, eta horrek asko lagundu dit mailara egokitze orduan", dio Ulma tal-

deko txirrindulari ohiak. Gararik "zailena" sasoi hasiera izaten dela aitortu du Cuevak: "Lehiara ohitu gabe hasten gara lehen pedalkadak ematen".

Lan-saio pertsonalak

Lasterketetan elkarri laguntzea berebizikoa duten arren, ziklista bakoitzak bere behar eta ezaugarrietara egokitutako entrenamenduak egiten ditu astean zehar, eta helburuak ere norberaren sasoi puntuaren arabera joaten dira finkatzen. Andoni Azkaratek, esaterako, "uda garaian" uste du emango duela bere onena: "Gatzagako lasterketara ahalik eta puntu hoberean iritsi nahi dut, gustuko baititut bertako mendateak, ondo ezagutzeaz gain".

Helmugarik ederrena profesional mailan tokia egitea dela argi dute hiru ziklistek, nahiz eta ondo jakin maila horretara iristeko "salto handia" dagoela. "Baina horretarako egiten dugu lan; gure lanaren emaitzek esango dute gorantza egiteko aukerarik ba ote dugun", aipatu du, baikor, Asier Azkaratek. Poliki-poliki iristen baita urrutira.


Gorlako igoera, "aurten bai"

Momentuz egutegian tinko mantentzen den lasterketako bat Bergarako Gorlako igoera da, hilaren 28ko goizaldean zehar izango dena. Lokatza ziklismo eskola arduratzen da lasterketa antolatzeaz, eta bertako presidente Jon Unamunok adierazi du "betiko enpresen eta laguntzaileen babeslezkak" ahalbideratuko duela ekimena aurrera ateratzea: "Beste finantzaketa modu bat txartelak saltzea izaten da, baina aurten baztertu egin dugu aukera hori, kaleko kontaktua saiheste aldera".

Ibilbideak ere izango du berezitasunik, ikusleen pilaketarik gertatu ez dadin. "Aurten, karrera ez da Herriko Plazan hasiko, Bergara kanpoaldean baizik; hori bai, amaitu Gorlan amaituko da, hor ez dago diskusiorik", aipatu du Unamunok.

121 kilometroko lasterketan talde bakoitzeko 14 txirrindularik parte hartu ahaliko dute, eta horietako bi elite mailakoak izan daitezke. "Contador Fundazioa eta halako kanpoko taldeak hasi dira galdezka ea etor daitezkeen; esan diegu hemengo taldeek izango dutela lehentasuna", nabarmendu du Lokatzako kideak.

Iaz, pandemiaren hastapenak galarazi egin zuen martxoan lasterketa aurrera ateratzea, eta, irailean antolatzeke saiakerak egin ziren arren, azkenean, ezin izan zuten ekimena martxan jarri. Aurten, aldiz, "herritarren prestutasunak lagunduta" jokatu da, haizeak kontrako norabidea hartzen ez duen bitartean.



J.F. Calle, 2019ko irabazlea. I.S.

Hutsetik hastea, kirolarien erronkarik ezohikoena

Uxue Otxoa osasun eta kirol psikologoak eliteko eta formazioko kirolariek azken urtean jasan behar izan duten egoera mentala izan du hizpide, asteon, 'Harmailatik' saioan: "Betiko helburu indartsuak ezbaian ikusteak frustrazioak eragin ditu"

Hasier Larrea ARRASATE

Kirolariak, izan elitekoak, afizionatuak edo formazioan daudenak, ohituta daude euren jardueran pautak batzuk jarraitzea, eta ekuazio simplea betetzen dute, normalean: helburuak finkatu, entrenatu eta lehia erabakigarria ahalik eta prestatuen heldu, maila psikologiko, fisiko, taktiko eta teknikoan. Duela urtebetera arte, horrela garatu izan dute euren egitekoa; pandemiak, baina, errutina oro zapuztu dizkie, eta euren burua berrasmaztera behartu. Prozesu horretan aholkulari gisa jarduten du Uxue Otxoa arrasatearrak, eta kirolari bati baino gehiago lagundu dio ezohiko urte honi ahalik eta modu baikorrenean aurre egiten: "Askatasun muga aldakorrek blokeo psikologikoa eragin dute, eta kirolari bakoi-zak era batera edo bestera eraman du, osasun egoeraren testuinguruaren barruko kokapen emozionalaren arabera".

Urtebetean, lehiarik ez

Azken hamabi hilabeteetan egindako lanketa psikologikoa kirolariei lehen egiten zituzten jarduerak aurrera ateratzeko "ze tamainatako motibazioa" zeukaten hausnartzeko balio izan diela adierazi du Otxoak: "Aldea dago kirola behar batenegatik edo desio batenegatik praktikatzeko duzula jakiten duzunean, eta horrek asko markatzen du psikologikoa kirolariarekin egiten dugun terapia".

Arrasatearrak gaineratu du "erantzun indartsuek" konfiantzaz aritzera laguntzen diotela edozein kirolariri. Aldiz, erantzunak argi ez dituztenean, urduri jartzen direla. Horregatik, asmo edo helburu baten zalan-tzagarritasuna kudeatzeko laguntza ematen dihardu pandemia garaioan: "Normalean, *zertarako?* galderarekin funtzionatzen dugu, eta erantzunak begi bis-



Uxue Otxoa, asteleheneko Harmailatik saioan. MIREIA BIKUÑA

EUREN BURUARI GALDERA BERRIAK EGIN BEHAR IZAN DIZKIOTE ELITEKO KIROLARI ASKOK

takoak izaten dira, baina pandemia garaian *zergatik?* galdera gailendu da, eta horrek trataera sakonagoa eskatzen du, ikuspuntu ezberdina jorratzeko beharra".

Larritasuna nola kudeatu?

Eliteko kirolariek bizi izan dituzte hilabeteotan, batez ere, frustrazioarekin lotura handia duten emozioak. Bizimodua egitegi zorrotz baten bueltan antolatetik "benetan maite dutena birmoldatzera" pasatu dira oso epe laburrean, eta galdera filosofikoa planteatu dituzte bide horretan: "Benetan maite dut egiten dudana? Zergatik jarraitzen dut honetan? Halako zalan-tzak sortu zaizkie kirolariei, eta barne-ariketa egin behar izan dute, arreta non jarri zehaztean oinarritutakoa", aipatu du Otxoak.

Fase horretan askori larritasuna sortu zaiela nabarmendu du osasun mentalean dituenak; batez ere, Olinpiar Jokoetan oraindik postu bat ziurtatu ez duten atleten artean: "Tokiora doazela dakitenek baino lanke-ta handiagoa behar dute oraindik kanporaketaren bat pasa behar dutenek, kontzentrazioa mantentzeko gaitasuna muturreraino eraman behar izaten dutelako, ziurgabetasunak bul-tzatuta". Prestakuntzako denbora-tarteetan etengabeko luzapena-ri "pauza eman eta beste gauza batzuk jorratzea" garrantzitsutzat jo du, nahiz eta prozesu hori "oso pertsonala izan, eta ez hainbeste orokorra".

Kontrara, formazio garaian dauden kirolari gazteengan "presioa baino gehiago gozamina" nagusitzen dela desberdindu du arrasatearrak: "Gaztetan geure burua kirolaren bidez ezagutze-ko aukera izaten dugu, lehia egon edo ez egon, baina egia da gero eta bizkorrago sartzen diegula presioa kirolariei, elite mailara ahalik eta prestatuen heltzeko". Adin tarte horietan kudeaketa hobe egiteko tarte badagoela aitortu du Otxoak.

Mondrak eta Bergarak derbia jokatu dute bihar Mojategin

UDAK ez du asteburu honetan jokatu; saskibaloian, berriz, MU liderrak bigarren sailkatuari egingo dio bisita

H.L. DEBAGOIENA

Mahoneroek eta sarrailagileek egutegian gorritz markatutako egun horietako bat biziko dute bihar arratsaldean, 16:30ean, Mojategiko futbol zelaian. Orain-gero honetan, baina, zaleen berotasuna faltan sumatuko dute jokalariek. Ligako bina partiduko jokatu, lau puntu batu dituzte bergarrek; bakarra, oster, arrasatearrek. Biek ala biek aukera polita izango dute, beraz, *play-off* postuen borrokan aurrerapauso bat emateko.

Mondrak, gainera, beste derbi bat jokatu du datorren asteburuan, aretxabaletarren aurka neurtuko baititu indarrak, Ibarako zelaian.

Boleibolari dagokionez, denboraldiko hamalagarren norgehiagoka jokatu du Arizmen-di taldeak zapatu arratsaldean, 17:30ean hasita, Ibarako kirol-

degian. Aurrean postu bat gorago dagoen Beco Laredo taldea izango dute jokalariek.

Etxean jokatu dute, baita ere, Arrasate-Ordizia taldeko errugbilariek, baina ez Mojategin, Ordiziako Altamira zelaian baizik. Ligako lehen garaipena eskuratzera aterako dira bihar, 18:30ean, Atletiko San Sebastian-Hernani taldearen aurka.

MU, lidergoa sendotzera

Joan den astean Solaresi etxean 85-79 irabaztetik abiatuko dira Iruñera Mondragon Unibertsitateko saskibaloio jokalariek, domekan jokatu baitute, arratsaldeko seietan, Megacalzados Ardoiren aurka. Lehen postua are eta tarte handiagoaz egonkortzeko aukera izango du Ointxe!-ko taldeak, momentu honetan hiru puntu ateratzen baituzkie nafarrei.

Haizea Tornay, euskal selekzioen arteko lagunartekoan

XAKEA Euskal Herriko hegoaldeko eta iparraldeko emakumezko selekzioek elkarren artean jokatu dute online bidezko lagun arteko topaketa domeka goizean, 10:00etatik 14:30era bitartean. Hegoaldeko taldeko ordezkarietako bat izango da Haizea Tornay arrasatearra, eta bere aitak, Josu Tornayk, hartuko du selekzio horri jokatzeko

gomendioak emateko ardura. Jokalari bakoitzak bi partida erdi-azkar eta bosna partida azkar jokatu ditu.

Aviron Bayonnais kirol klubeko xake taldeak antolatu ditu topaketak, Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Baionako Udalaren eta Euskal Xake Federazioaren hauspoa lagun. Txapelketak geldidudela eta aukera aproposa izango dute xake jokalariek entrenamenduei segida eman eta euren dohainak erakusteko.

Master Laboral Kutxa txapelketan arituko da Arrate Bergara

ESKU PILOTA Bihar emango dote hasiera Eusko Jaurlaritzak babesten duen eskuz binakako Master Laboral Kutxa izeneko txapelketari. Euskal Herriko puntako pilotariak batzen dituen torneoak ordezkari debagoiendar bat izango du, Arrate Bergara bergarra. Ainhoa Ruiz de Infanterekin bikotea osatuko du Bergarak, eta Asteasun lehiatu-

ko dira finalerdirako txartela poltsikoratzeko asmoz, bihar bertan, 16:30ean hasita. Norgiagoka hori, beste guztiak bezala, ETB1en jarraitzeko aukera egongo da. Finalerdiak eta finala Irunen jokatu dira, martxoaren 20an bata eta apirilaren 4an bestea.

Emakume Master Cup-eko ordezkariak adierazi dute pilotari parte hartzaileen erantzuna "sekulakoa" izan dela, orotara 80 emakumek eman dute eta izena lehiaketan jokatze-ko.

Badator hamalagarren Huhezinema jaialdia

Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Fakultateko ikasleak eta irakasleak azken ukituak ematen ari dira martxoaren 16tik 18ra bitartean egingo duten film laburren jaialdiari; hibridoa izango da, saio batzuk online izango dira eta presentzialak besteak

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Euskal Herriko film laburren jaialdien artean dagoeneko bere tokia egin du MUren Aretxabaleko fakultateak antolatzen duen proposamenak. Itxialdiaren eraginez iazkoa egiteko trabak izan zituzten arren, aurrera egitea lortu zuten, jaialdia online "arrakastaz" eginda.

Iazko esperientziatik ikasita, aurten ez dute zalantzarik izan eta hamalagarren euskarazko film laburren jaialdiari azken ukituak ematen ari da antolatzaileen talde berria, *Kultur ekitaldien antolaketa* izeneko ikasgaiaren barruan, Ikus-entzunezko graduako laugarren mailako ikasleek osatzen dutena. "Nahiz eta pandemiak gogor jo, sortzaileak ez dira lokartu eta iaz baino lan gehiago jaso ditugu; esaterako, Sail Ofizialean lehiatzeko 73 film. Orokorrean, maila handiko lanak dira; Euskal Herriko leku askotatik bidalitakoak –Biarrizetik, Iruñetik eta EAeko herri askotatik–. Bitxikeria moduan, Ameriketako Estatu Batuetan ikasten dabilen euskal emakume zuzendari baten proiektu bat ere jaso dugu, eta Sail Ofizialean ikusteko aukera izango da hori ere", azaldu du antolatzaile taldeko kide Nerea Alonsok.



Aurtengo film laburren jaialdiko antolatzaileak lanean. HUHEZINEMA JAIALDIA

Berrikuntza, Komedia saria

Euskal Herriko zinema panorama zabala da, eta antolatzaileek diote hala erakusten dutela aurtengo jasotako lanek ere. "Fikziozko lan asko jaso ditugu; horien artean, klasikoagoak batzuk eta esperimentalagoak beste hainbat. Dokumental generoan ere oparota izan da jasotako uzta. Aurten, baina, faltan igarri ditugu animaziozko eta komediazko proiektu gehiago ez jasotzea".

Komedia saria sortu dute aurten, pandemia-egoerari buelta bat emateko gogoz. "Sari berria-

rekin ez genuen jaialdiaren gaia komediara mugatu gura, baina, bereziki, umore ukitua duten filmak –betiere, umorea egiteko modu ezberdinak daudela kontuan hartuta– txalotzea da gure asmoa. MUko ikasleen eta Sail Ofizialekoek izango dute sari hori eskuratzeko aukera. Horrez gain, aurrekoetan moduan, sari potolo gehiago banatuko ditugu".

Aurten, "jaialdi hibridoa"

Hiru eguneko egitaraua eskainiko dute, eta, film emanaldiez gain, ekitaldi gehiago proposa-

tzeko lanean ari dira antolatzaileak. "Adituekin eskola magistralak lotzen ari gara. Oraindik zehaztu barik dugu ikasleentzako ala guztiontzako zabalik izango diren eskola horiek".

Formatu presentzialaren eta online formatuaren arteko nahasketa izango da. "MUko ikasleen filmak martxoaren 17an eta Sail Ofizialekoak eta sari-banaketa ekitaldia martxoaren 18an Arkupe kultura etxean eskainiko ditugu, eta baita streaming bidez ere. Edukiera mugatua izango dute, eta sarrerak laster eskuragarri izango dira *Huhezinema.eus* atarian".


Lehen aukeraketa, eginda

Asteon osatu dute sail ezberdinetan lehiatuko diren filmen zerrenda: "Asko kostatu zaigu aukeraketa egitea. Mila esker parte hartzaile guztioi, ederra izan baita filmekin gozatzea! MUko ikasleen sailean, honako hauek aukeratu ditugu: *Harria; Vale ya, Nora; Amaiur; azken arranoaren hegaldia; Ilunabarean esan; Puntuak; Eskuminak; Ilunean argia; Deia; 12 minutos; Lau egun; eta Hamar egunez*".

Sail Ofizialean lehiatzeko beste hamar aukeratu dituzte; honako hauek izango dira, bada, sari nagusiaren bila: *Gorria; La Cirila; Hemen. Gaur. Berriz; Lamia; La Noche del Cocodrilo; Before I Die, Dar-dar; Datsegit; Barbudos* eta *Maitte*.

Kartel "asko eta politak"

23 proposamen jaso dituzte jaialdiaren aurtengo irudia izateko. "Huhezinemaren funtsa modu desberdinean islatu du egile bakoitzak; horregatik, zaila egin zaigu bakarrik aukeratzeko. Mila esker zuen sormena eta denbora gurekin partekatzeagatik!".



Kartel irabazlea. HUHEZINEMA

Aurtengo irudia, Haymar Manzidorrek

Gai edo izenburu zehatza izan dute aurreko aldiek; iaz, esaterako, *Horror story* izan zen. Aurten, kartelen egileek ez dute mugarik izan, eta, aurkeztutakoan artean, Zarauzko Haymar Manzidorrena sarituko dute. "Huhezinemaren estetika fidelena delako; arrunta bezain efizientea da. Online eta modu presentzialean izango da, eta, horregatik, aproposa iruditu zaigu kartelean zine aretoko eserlekuetan jendea eserita erakustea".

Antolatzaileek aipamen berezia egin nahi izan diote Eider Diaz de Argandoñak bidalitako kartelari. "13 urte ditu, inoiz izan dugun parte hartzaile gazteena da! Eskuz eginda dago eta oso teknika ona du bere lanak. Zorionak, Eider, eta eskerrik asko!".

GOIENA TELEBISTA
UDABERRIKO
PROGRAMAZIOA



%100 EMATEN
JARRAITZEN DUGU

ASIER VITORIA

GUREAK TALDEKO ZUZENDARI
NAGUSIARI ELKARRIZKETA
ENEKO AZKARATEK GIDATUTA 'HARIRA' SAIOAN
MARTXOAREN 9AN, MARTITZENEAN,
21.30EAN ETA 23.30EAN



goiena
Zu hemen zaude.

Emakumeen aldeko aldarriak, raparen bidez

Bargasta talde feministak eta Ernaik antolatuta, kontzertu bikoitza izango da bihar, Oñatiko Antixena gaztetxean, 17:00etan hasita; taularen gainean Haizea eta 'Ningra' eta Zitzada & Rlantz izango dira. Sarrerak emanaldiaren aurretik salduko dituzte

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Aspalditik zuten Oñatiko gazte-txera hip-hop giroa ekartzeko gogo. "Zitzada & Rlantz bizkaitarrak lehenagotik ezagutzen genituen, eta orain oso indartsu ari dira Haizea eta *Ningra* arabarrak. Askok gustatzen zaigu euren musika, eta, bereziki, euren hitzekin bat egiten dugu. Eta zein aukera hobea gurera ekartzeko, Martxoaren 8aren bueltan antolatutako egitarauaren barruan baino. Musikariek ere oso pozik hartu dute proposamena, ez dute-eta, zoritxarrez, horiek ere emanaldi askorik egiteko aukerarik", diote antolatzaileek.

Bi kontzertu izango dira, 17:00etan hasita, 20:00ak bitartean. "Hasiera batean, barruan egitea da asmoa, baina eguraldiagatik, akaso, aldatu egingo dugu. Gaztetxearen kanpoan zein barruan izan, bietan edukiera mugatua izango da, distantziak eta bestelako segurtasun neurriak hartuta".

Reggae kutsuarekin

Irene Elgezabal bilbotarra (ahotsa) eta Amurrioko Erlantz Serrano (base-ekoizlea eta *dub-maker*) dira Zitzada & Rlantz. "2017an abiatu zuten bidea, eta bederatzi kantuz osatutako *Azken argiak* da euren azken lana.

Gai sozialen bozgorailu dira, eta, musikari dagokionez, *dubstep* estiloa jorratzen dute, nagusiki; reggaeren aldaera elektronikoa da hori. Estilo horrekin azken bi urteetan *sound system* kulturen murgiltzeko aukera izan dute, baina kantu berriak jorratzen ere jarraitu dute".

Arabatik bi rap kantari

Nork bere aldetik ibilita, orain dela gutxi egin dute bat bidean eta elkarrekin izango dira Antixeneko taularen gainean Haizea Alonso eta Uxue Ning Iturri.

rrate *Ningra*. Alonsok arrakasta polita izan du *Nire bala* bi-deokliparekin, eta *Hitzak* da egin duen azkena. *Ningra*-k, berriz, Enbor taldearekin egin duen *Hazia* izeneko da.

Sarrerak, emanaldiaren aurretik Ikasleek eta langabeek hiru euro ordaindu beharko dute eta gaintzekoek, bost.

Kontzertua bukatutakoan, herriko plazan elkarretaratzea egingo dute, Martxoaren 8ko ekitaldietan parte hartzeko deialdia egiteko.



Zitzada & Rlantz bizkaitarrak Antixeneko gaztetxean izango dira. ZITZADA & RLANTZ

Abian da AEDren Arrasate Literatur Lehiaketaren 34. aldia

Lanak bidaltzeko epea apirilaren 25ean bukatzen da; oinarriak, 'Arrasateliteraturlehiaketak.wordpress.com'-en

A. A. ARRASATE

Gazteen artean euskal sormena bultzatzeko asmoz sortu zuen AED elkarteak sariketa, eta abian du 34. aldia, Arrasateko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak babestuta.

Debagoienean bizi edota ikasten duten LHko 5. maila eta batxilergoko 2. maila artekoek har dezakete parte. Euskarazko lanak eta inoiz saritu edota argitaratu bakoak izan behar dute. Aed@aedelkarta.eus helbidera

bidali behar dira lanak eta maiatzaren 27an banatuko dituzte sariak. Herriko bi artista gazte dira aurten laguntzaileak: Izar Ruiz de Austri eta Olatz Zuazubiskar, hain zuzen.

Hainbat genero

Adinaren arabera lehiaketak izango dira: LH-5 eta DBH-2 mailen artean daudenek narrazioa, ilustrazioa eta bertsopaperak dituzte aukeran; eta DBH-3 eta 2. batxilergo artekoek, mikroipua, poesia eta komikia.

Goiena Klubaren txokoa

Hauek dira otsaileko irabazleak!

ERRIGORAKO SASKIA
Amala Osa Isasti (Oñati)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Maitane Rubio de Jesus (Aretxabaleta)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK
Santi Etxezarreta Agirre (Antzuola)
Iban Orueta Markuleta (Oñati)
Haritz Anduaga Altuna (Bergara)

MAULANDA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Jabier Kortabarria Arabolaza (Oñati)

TARTUFO JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Ainhoa Berecibar Gomez (Antzuola)

MAIALDE JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
David Garcia Martin (Eskoriatza)

'KONPROMISOA' ANTZEZLANERAKO SARRERAK
Itsaso Nulin Gonzalez (Arrasate)

OREKA TX TALDEAREN KONTZERTURAKO SARRERAK
Julen Arexolaleiba Biteri (Arrasate)

SARRIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzak sareak, Goiena Klubeko baretan eskuztuta. Bina saria bango diruzue Arrikrutzeko baretan. Sarrerak bina hilabeteko epean izango dira. ARRIKRUTZ KOBETA, Arrasateko OñATI 943 25 05 05. Oñatiko: Arrasateko irabazleak 10:00 - 12:00 (saria delako hilabetearen eguna). Harreman dendako otarria, Otarria jasotzeko, jo zuzenean, bakoitzaren bakoitzaren Harreman dendara. Arrasateko Erakle hiperrakatuaren duen dendara. **Errigorako saskia jasotzeko**, jarri GOIENAREN egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDETZAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDETZAREN AED elkartearen baretan de GOIENA Oñatiko Lizaritaduna 31. Arrasate. 943 25 05 05. Oñatiko: Arrasateko irabazleak: 09:00 - 18:00. Egurkitzetan: 09:00 - 14:00

Irabazi Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Saskia

ERRIGORA



PARTE HARTZEKO: MARTXOAREN 11

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus | WhatsApp: KLUBA "saskia" (bakidearen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakia. Parte hartzaileen artean egingo da zuzenean.

